

**+**  Belaunaldiz belaunaldi etxeokari eusten

Rufina Olasagasti euskaltzaleari elkarriketa




## LANBIDE HEZIKETAK, ASKO ERAKUSTEKO

Goiaz! azoka egin dute aston Arrasaten. Debagoieneko Lanbide Heziketaren eskaintza erakusteko batu dira ikasleak, gurasoak, hezitzaileak eta enpresetako ordezkariak / 3



Kulturateko klaustroan, eguaztenean, Goiaz! azokan azalpenak jarraitzen hainbat ikasle. XABIER URZELAI



Arantxa Tapia sailburua MUKo eta Mondragoneko buruekin, astelehenean. I.B.


**Eoliko sektorea eraldatzeko, goi mailako laborategia ireki du MUK / 2**

**Hartzaren Urratsa ibilbidea, Oñatin egingo den Puntaik Punta jaialdian**

Apirilaren 21etik 23ra arte egingo da Bidezidorren Jaialdia; Nogen eta Txuletons taldeek joko dute zapatuan, 22an / 4



**Uxue Oses oñatiarrak irabazi du, Olatz Arrizabalagarekin, Laboral Kutxa Masterra / 38**

 **'OSASUNA' GEHIGARRIA / 21**

**SINADURAK**

 JONMIKEL INTSAUSTI / 37

 OIHAN VEGA / 6

 IZAR ODRIOZOLA / 48



Astehenean egin zuten erdi-tentsioko laborategiaren inaugurazioa, Arrasaten. IMANOL BELOKI

## Erdi-tentsioko laborategia inauguratu du MUK

Energia eolikoa du aztergai, eta horren berri eman dute laborategiko kideek. Horrez gain, Arantza Tapia Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburuak proiektuak industrian egin dezakeen ekarpena aipatu du

**Amaia Ramirez de Okariz**  
**Kortabarría** ARRASATE

Energia eolikoaren sektorea eraldatzeko eta hobetzeko asmoz, Mondragon Unibertsitateak Europar bakarra den erdi-tentsioko saiakuntzak egiteko laborategi bat inauguratu du, unibertsitateak industria-ikerikuntza garatzeko erabiltzen duen 10. eraikinean, Arrasaten.

Carlos Garcia Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko koordinatzaileak gidatu zuen inaugurazio ekitaldia astelehenean, eta proiektua zertan datzan adierazi zuen. "Eolikoak, baina, batez ere, eurekin bat doan energia sistema frogatu ahal izateko da. Tamaina askotariko makinak sartzeko hiru laborategi ditugu". Horretarako, jakinarazi du dirulaguntza bat jaso dutela Europatik, eta, horrez gainera, enprekin duten elkarlanetik ere jaso dutela zenbaterako bat.

Ekitaldian, ordea, jende gehiagok hartu zuen parte. Uniber-

tsitateko erdi-tentsioko laborategiko ikertzaile Jose Maria Canalesek, esate baterako, MUK erdi-tentsioaren gaineko ikerkuntzaren alde eginiko apustuari buruzko hitzaldia egin zuen; laborategiko arduradun Manex Barrenetxeak, berriz, instalazioen ahalmen teknikoak izan zituen hizpide; eta, azkenik, Fastap proiektuko zuzendari Fernando Santodomingo -Siemens Gamesa da koordinatzailea- sorkuntza eolikoaren merkatu aurreikuspenez aritu zen.

**Industriari ekarpena**

Arantza Tapia Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburua ere izan zen inaugu-

**"AURRERATUAGO" EGOTEKO, "EUSKADIKO INDUSTRIAK" HALAKOEN BEHARRA DU, TAPIAREN USTEZ**

razioan. "Euskadiko industriari ekarpena egiten diozue; alde horretatik, eskerrak eman nahi dizkizuet. Gure industriak zuen beharra dauka, gero eta aurreratuagoa izateko, gero eta hobeto egoteko preparatuta, eta mundu mailan benetan izan dezagun ahalmena aurrera jarraitzeko".

Are gehiago, etorkizunera begira ere jarri zen Tapia, nazioartera zein tokian tokira begira: "Nazioartean egon behar dugu, baina gertutasun-puntu bat ere izan behar dugu, eta orain, inoiz baino beharrezkoagoa da. Europar bizi dugun krisi energetikoari eta ekonomikoari aurre egiteko, benetan sinetsi behar dugu bertatik ere egin behar diogula aurre, bertako enprekin, bertako ekoizpenarekin eta bertako enpleguarekin". Azpimarratu baitzuen osterantzean "beste batzuek" egingo dutela. "Gu kanpoan utziko gaituzte, eta hori ezin da inolaz ere gertatu".

## Lanbide Heziketa eta andreak uztartu dituzte ikerketa batean

Gida bat kaleratu dute, eta 'somaslasfp.eus' webgunean ere bada. Steam arloa sustatu nahi dute andrazkoetan

**A.R.K. BERGARA**

Zientzia, Teknologia, Ingeniari-tza, Artea eta Matematika zirkloetan (STEAM), Lanbide Heziketan, emakumeen presentzia areagotzeko asmoa du Bergarako Miguel Altuna ikastetxeak, ohartuak baitziren "hutsune bat" zutela arlo horretan, ikastetxeko idazkari Alberto Larreak jakinarazi duenez. Bada, pauso bat eman, eta *Etorkizuneko profesionalak gaitun* analisi-azterlanaz gauzatu du, Iruñeko Virgen del Camino eta Elgoibarko Meka Lanbide Heziketako zentroak, Ikaslan Gipuzkoa eta Ncuentra aholkularitza konpainia bidelagun izan dituela.

Ikaslan Gipuzkoako kide da Maite Arozena, eta, adierazi duenez, Hego Euskal Herriko 40 ikastetxetako 3.300 emakume ikasleren erantzunak jaso dituzte ikerketan. Lagin "indartsua" dela nabarmendu du, eta izan

duten arrakasta "espero baino handiagoa" izan dela.

**Datu orokorrak**

Kepa Altube Ikaslan Gipuzkoako koordinatzaileak adierazi duenez, Hego Euskal Herrian hamarretik zazpi ikasle gizonetakoak dira Lanbide Heziketan, eta hiru emakumezkoak. "Hor ikusten da salto handia dagoela, eta asmoa da parekatzea urteroko lana eginez". Alabaina, erantsi du Lanbide Heziketa bi arlotan banatzen dela eta haietako bakoitzean ezberdina dela egoera: "Zerbitzuetan eta osasunean ikasle erdiak baino gehiago emakumeak dira; aldez, teknologia-industrialean, %12".

Horregatik, funtsezkotzat jotzen dute dauden estereotipoei aurre egin eta ekintza berriak garatzea, ondorioztatu baitute "oraindik asko" falta dela "gizarte aldatzeko".



Eguaztenean aurkeztu zuten azterlana, Miguel Altunan. IÑIGO BARRENA

## Azken egubakoitzeko elkarretaratzeak egingo ditu Sarek

Sare Herritarrak azaldu duenez, "urruntze politikaren amaierarekin zama handia" kendu dute euskal presoen senideek. "34 urteren ostean eta denon lanari esker, bukatu dugu mendeku politika hori". Alabaina, aldarriei eusten jarraitu beharra dagoela nabarmendu dute.

Haien hitzetan, etxeratze prozesua "azkeneraino" eramatea

da hurrengo urratsa, hala nola salbuespen legedia bertan behera utzita eta lege arruntaren aplikazioarekin presoen graduen progresioak eta irteteko baimeak errespetatuta; aldarrikatu baitute "etxeratze bidea egiteko garaia" dela.

Hori dela eta, mobilizazioetan parte hartzeko dei egin dute. Antzuolan, Aretxabaletan eta Eskoriatzan 19:00etan izango da elkarretaratzea; eta 19:30ean Arrasaten, Bergaran eta Oñatin, herriko plazetan.



Ikasle-talde bat azokako postu bat bisitatzen. XABI URTZELAI

# Lanbide Heziketan ere eskaintza zabala dago

Azken hamalau urteetan egin bezala, aurten ere Goiaz! Debagoienako Lanbide Heziketako Azoka egin dute, Kultureteko klaustroan. Ikasle eta herritar ugarik bisitatu dute. Gainera, bi berritasun izan ditu: Debagoiengan Egina eta Erasmus Txokoa

**Iñigo Barrena Kortabarria** ARRASATE Eguaztena eta eguena bitartean, Debagoieneko ikasleak, gurasoak eta Lanbide Heziketako profesionalak batu ditu Kultureteko klaustroan egin den Goiaz! azokak. Hamabosgarren aldia izan da aurtengoa, eta ibarrean dagoen eskaintza zabala eta azokan bertan egon diren berrikuntzak ikusteko aukera egon da; ber-

tako zazpi ikastetxek jarri dituzte informazio-guneak. Gainera, aurrez aurre hitz egiteko aukera izan dute bertaratutakoek, etorkizuneko aukerei begira jarrita. "Helburua Lanbide Heziketa plazaratzea eta herritarrei zein ikasleei mundu hori ezagutzera ematea da", adierazi du Amaia Irizarrek, Debagoieneko Mankomunitate-

ko Garapen Agentziako teknikariak.

Herritarrek eta gurasoak izan diren arren Kultureteko klaustroan, DBHko zein batxilergoko ikasleak izan dira, batez ere, azoka bisitatu dutenak, eskoletatik egindako bisiten bidez; haiek baitira etorkizun hurbilean zer ikasi erabakiko dutenak. Asko "harrিতuta" gelditu dira eskain-

tzarekin, ez zutelako horren berri, eta "informazio baliagarria" aurkitu dutela azpimarratu dute. Bestalde, postu bakoitzean aurkitu dituzten eredu praktikoei "beste ikuspuntu bat" izateko balio izan diete.

## Aurreiritziak aldatzeko helburua

Urtetik urtera eskaintza berrituz eta egokituz joan arren, irakasleek eta profesionalak azaldu dute oraindik badirela aurreiritziak Lanbide Heziketaren inguruan, eta hori aldatzeko baliatu nahi izan dute azoka, batez ere. "Askotan, uste dugu bide bakarra dagoela, DBH, batxilergoa eta ondoren unibertsitatea, eta kontuan hartu beharra dago beste bide batzuk ere badaudela", esan du Gorka Quintanank, Arizmendiko Mikroinformatikako irakasleak.

Irizarrek ildo beretik jarraitu du: "Hezkuntzan aukera asko daude, eta, batzuetan, bide bakarra dagoela uste dugu; izan ere, pentsatzen dugu Lanbide Heziketa aukeratuz gero bideak ixten ari garela, baina hori ez da horrela. Kontuan izan behar dugu ibilbide mota asko dauzkagula aurrean, eta, hain zuzen, azoka horrek Lanbide Heziketa aukera moduan eskaini ahal izateko laguntzen du".

Aretxabaleta Lanbide Eskola irakasle Lander Etxeberriak esan du "mitoak" apurtzeko aukera ematen duela Goiaz! azokak: "Zenbait ziklotan emakumezkoak dira gehien matrikulatzen direnak eta beste batzuetan, aldiz, ez da apenas egoten; eta beste ziklo batzuetan, ez dakigu zergatik, agian, lan zikina edo irtenbiderik ez duela pentsatuz, ez da jenderik etortzen, eta okerrak diren uste horiek apurtzen saiatzen gara".

## Aurtengo berrikuntzak

Bi berritasun nagusi izan ditu aurtengo azokak: alde batetik, Erasmus Txokoa jarri dute erakusketaren gune batean, Lanbide Heziketarik ere aukera dagoela aditzera emateko. "Askotan, praktikak atzerrian egiteko aukera unibertsitatean soilik dagoela uste dugu, eta Lanbide Heziketak horretarako aukera ere ematen du", adierazi du Mankomunitateko Garapen Agentziako teknikariak.

Nobedade garrantzitsuena, berriz, klaustroaren erdian kokatu dute: Debagoiengan Egina izenpean, bertako enpresek ekoizten dituzten produktuak ikusteko aukera egon da. Amaia Irizarrek aitortu du denbora eman dutela hura prestatu nahian, eta, irailera begira, bertan ekoiztiko produktuen azoka "osatuagoa" egiteko asmoa agertu du.

Enpresak ere pozik agertu dira azokan egoteko aukerarekin eta ikasleei euren lana modu erakarriagoan erakusteko. "Tokiko talentuan asko inbertitzen dugu, eta, era berean, gertuko jendea asko baloratzen dugu. Azokak ikasleen ondoan egoteko aukera ematen digu", esan du Ulma Packaging-eko Irene Sazedak. AGA enpresako Mikel Agirrezabalak, berriz, ikasleei laguntzeko balio duela uste du: "Ikasleentzat lagungarria izaten da gauza konkretuak ikustea; esaterako, zer ekoizten dugun. Horrek etorkizuneko erabakiak hartzen laguntzen die".

## HELBURUETAKO BAT DA LANBIDE HEZIKETAREKIKO DAGOEN AURREIRITZIA ALDATZEA

## LANBIDE HEZIKETA PUBLIKOA DEBAGOIENEAN ATEAK ZABALIK

Etorkizuna zure esku

Fp ikasLAN Gipuzkoa

### ARETXABALETAN:

Apirilaren 19: 18:00etan



**ALE - Aretxabaleta Lanbide Eskola**  
Etxebarri auzoa, 21g - 22 Pk. • 20550 ARETXABALETA  
☎ 943 79 79 00 / Whatsapp: 688 811 489  
la@aretxabaleta.com  
[www.ale-aretxabaleta.eus](http://www.ale-aretxabaleta.eus)

### BERGARAN:

Apirilaren 20an  
10:30etan, 12:30etan, 16:00etan eta 18:00etan  
Maiatzaren 13an, 11:00etan.



**Miguel Altuna LHII Bergara**  
Agirrebidea, 2 • 20570 BERGARA  
☎ 943 899 270 / 943 899 271  
info@maltuna.eus  
[www.maltuna.eus](http://www.maltuna.eus)

### OÑATIN:

Apirilaren 27an, 18:00etan  
Maiatzaren 6an, 11:00etan



**Oñati Institutua**  
Lamaña auzoa, 16 • 20560 OÑATI  
☎ 843 899 300  
info@onati.net  
[www.onati.net](http://www.onati.net)

2023 - 2024 IKASTURTERAKO AURREMATRIKULA AURKI

# Bi ekintza izar aurtengo Puntaik Punta jaialdian

Apirilaren 21etik 23ra bitartean egingo dute Puntaik Punta Bidezidorren Jaialdia, Oñatin. Debagoieneko mendi-ibilbide zirkularra proposatzen duen Hartzaren Urratsa aurkeztu eta Aloñako Igoera egingo dute egun horietan, baita ekintza gehiago ere

## Hasier Larrea DEBAGOIENA

Debagoieneko Natur Ondareari balioa emateko sortu zen 2016an Puntaik Punta, eta aurtengoa zazpigarren edizioa izango da. Lehen aldiz Oñati izango da anfitrioi, apirilaren 21etik 23ra bitartean. Asteon egin dute egitarauaren aurkezpen-ekitaldia, Zumeltzegi dorrean, eta Oñatiko Udaleko Turismo zinegotzi Karmelo Guridik eta Debagoieneko Mankomunitateko presidente Maite Antonek hartu zuten hitza. Guridiren esanetan, "herritarrak gure mendietara gerturatu eta inplikatzeko programa oso bat dakar 2023ko Puntaik Puntak, ibilaldiz, tailerrez eta kontzertuz josita. Beraz, eskualde osoko adin guztietako jendea gonbidatzen dugu Oñatira etortzera".

Hilaren 21eko arratsaldean inauguratuko dute egitaraua. Txokolateixan kakaoari buruzko jarduerak egongo dira, Santa Marina zinema-aretoan Mendi Film festibaleko lau proiektzio, Turismo Bulegoan astronomiarekin lotutako tailerra eta plazan erraldoien kale ikuskizuna.

## Hartzaren urratsen atzetik

Zapatuan, 09:00etan batuko dira GR-289 ibilbidea, Hartzaren Urratsa deitu diotena, bertatik bertara ezagutzeko. Gaur egun



Maite Anton eta Karmelo Guridi, Zumeltzegi dorrearen alboan. M.ARREGI

homologatuta dauden PR eta SL ibilbideen baturan oinarritutako bost etapak osatzen dute mendi-ibilbidea. Hala, zortzi ordu inguru irauten duen lehen etapa gidatua, Oñati eta Bergara artekoa, egingo dute goiz horretan, eta gainontzeko laurak hurrengo asteburuetan. "100 kilometro inguruko ibilbide-sareak Debagoieneko gune turistikoko esanguratsuenak lotzen ditu, natura ardatz hartuta: Oñatiko gune historikoa, Antzuola eta Bergara lotzen dituen trenbide zaharra, Bergarako

Laboratorium museoa, Elgetako gerra lubaki eta babestokia, Arrasateko Udala auzoa, Urkulu, Aitzorroitz, Leintz Gatzagako Gatz Museoa, Araotz eta Arantzazuko Santutegia, besteak beste", azaldu du Antonek.

## Oñatiko txokoak

Gainerakoan ere ekintza ugari egongo dira aukeran zapatuan; esaterako, ibilketa nordiko ikastaroa unibertsitatean hasita, espeleoabentura Arrikruzten, gaztagintza ezagutzeko aukera Gomiztegin, *Bizi pottoka* espe-

rientzia Pottokalekun eta *Baso bainua* San Martin zuhaitzian. Musikaz gozatzeko aukerarik ere ez da faltako, arratsalde ilunkeran Txuletons taldearen kontzertua egongo baita plazan, eta gauean Nogen taldearena. 10 eta 15 urte arteko gaztetxoek, ostera, arratsaldean zehar *urban-jump* gunea izango dute eskura unibertsitate alboko skate eta *parkour* parkean.

## Deabrua, gonbidatuta

Domekan izango da aurtengo Puntaik Puntako bigarren ekintza nagusia: Aloñako Igoera, alegia. Aurten, bi ekitaldietako antolatzaileek elkarlanean antolatu dute lasterketa hori. Beraz, Aloñako Igoerako deabrua ere presente egongo da Puntaik Punta jaialdian, 22 kilometroko probako irteeran eta helmugan lasterkariei animoak ematen. 1.868 metroko desnibel metatuan Artzanburu, Arriurdin, Akaitz, Butreaitz eta Aloñako tontorrek zeharkatuko dituzte partaideek. Itzuleran, erdiguneko kaleetan Rock Klean elektrotzaranga izango dute zain, azken txanpa burutzeko energia behar izango baitute.

Horrez gain, natur turismo eta xendazaletasun azoka egingo dute domeka goizean, herriko plazan. Arratsaldean, Puntaik Punta borobilduko duten ekintzak bi izango dira: bata, Turismo Bulegotik abiatuko den herriko bisita gidatua; eta bestea, dantza eta umorea ardatz dituen *Tio Teron* kale ikuskizuna herriko plazan.

Jaialdia dela eta, autokarabana eta furgonetak aparkatu ahal izango dira San Martin zuhaitzian. Informazio gehiagorako, sartu Puntaik Punta jaialdiaren webgunean.

# Indarkeria matxistaren biktimen babes zentroa bailaran

Aldundiak aurten ireki nahi du, emakume bakoitzari "erantzun pertsonalizatua" emateko

## H.L. DEBAGOIENA

Gipuzkoako Foru Aldundiak erakundearen arteko mahaia bat jarri du abian, indarkeria matxistaren biktima diren andreei babes handiagoa emateko. Gizarte larrialdiko zerbitzuaren bidez Diputazioak ematen duen arreta "indartzea" da helburua, "emakume bakoitzari erantzun integral eta guztiz pertsonalizatua" emanez. Horretarako, zentro bana irekiko dute Debagoienan eta Goierrian, baita lurralde osoan zehar hedatuko diren 24 orduko hiru krisi zentro ere. Horien kokapen zehatzaren berri aurrerago emango dute.

Maite Peña Gizarte Politike-tako diputatuak azaldu du bortizkeria matxistaren arazoaren konplexutasunak eta izaerak berariazko esku-hartze eredu bat hartzea eskatzen duela, eta, horretarako, printzipio eta gako batzuk definitu dituztela: "Zehazki, hobekuntza arloak identifikatu dira, eta, ondorioz, arreta ereduaren funtsezko printzipioak jardunbide zehatzetan ezartzen laguntzen duten jarraibide zehatzak sortu dira. Ikuspegi hori indartu egingo dugu Gipuzkoan, indarkeria matxistaren aurreko arreta koordinatzeko erakunde arteko mahaia aktibatuta".

# Saria Lana kooperatibari

Joan den ostiralean Donostian egindako Gipuzkoako Enpresa Sariak emateko ekitaldian, Oñatiko Lanari *Enpresa nazioartekotzea* deritzen saria banatu zioten, nazioarteko negozioaren garapenean egindako "ahalegin eredugarriatik". Era berean, Debagoienan lantegiak dituen Gureak enpresak *Berrikuntza saria* jaso zuen.



GIPUZKOAKO BAZKUNDEA

# Greba egin dute, hezkuntza-sistema aldatzea eskatzeko

Atzo, Ikasle Abertzaleek deitututa eta *Enpresari handien hezkuntzak miseriarra kondenatzen gaitu, Ikasle langileok borrokara!* lelopean, greba egin zuten Hego Euskal Herriko unibertsitateetako, Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako ikastetxeetan, eta bailarako hamar institutu eta Lanbide Heziketako zentro batu ziren deialdira,

Debagoieneko IAK azaldukoaren arabera. Gainera, mobilizazioak egin zituzten Bilbon, Iruñean, Gasteizen eta Donostian, eta Debagoienetik autobus batzuk bertaratu ziren Gipuzkoako hiriburura. IAKo kideek kezka ikusten dute "ikasleen erdiek eskolaz kanpoko partikularrak jaso beharra", eta gaia lantzen dihardute ikastetxeetan: "Zazpi orduz ikastetxean egotea nahikoa ez bada, premiazkoa da diziplinan oinarritzen den heziketa hori errotik aldatzea".

# MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA  
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA, KOOP. E.

## Goi Mailako Heziketa

### Zikloak

- | Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- | Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- | Sistema Elektrotekniko **Berria!** eta Automatizatuak
- | Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- | Mekatronika Industrialia
- | Automatizazio eta Robotika Industrialia



## ATE IREKIAK

**Apirilak 1** 11:00etan

**Maiatzak 6** 11:00etan

### Espezializazio

### ikastaroa

- | Industria Mantentzearen Digitalizazioa **Berria!**

### #LanerakoGertu



### Eman izena!

664298683  
664298704



[mondragon.edu/lanbideheziketa](https://mondragon.edu/lanbideheziketa)



ZABALIK

OIHAN VEGA

## Krisi energ(etikoa)

Joan den asteburuan Nafarroan barrena ibili naiz eta energia eolikoa sortzen duten errota erraldoi pilo bat ikusi ditut. Ustez, haizearen energia aprobetxatzen dute elektrizitatea era jasangarrian sortzeko; ikusi nituen errota guztiak geldirik zeuden, ordea.

Nire ezjakintasunetik pentsatu nuen: kontxo! Agian, ez dabil haizerik. Baina bai, bazen haizerik. Orduan?

Kontua da energia-sortzaileek merkatuaren kuotarekin jokatzeko dutela energia sortzeko orduan prezioak igotzeko. Eskaera eskaintza baino handiagoa bada, prezioak garestiagoak dira, mundu guztiak daki hori: *merkatuaren legea* deritzo. Negozio pribatu bat balitz, edo beharrezkoa ez den produktu

### ZER DELA-ETA EZ DUGU ENERGIA BERRIZTAGARRI GEHIAGO? DOAN DELAKO. EZ DUTE NAHI

bat balitz, ni lege horren aldekoa izango nintzateke. Baina kasu honetan, herri batek funtzionatzeko behar duen funtsezko baliabide bati buruz ari gara. Ez dago kontrolik agintarien eskutik? Ez dago inolako mugarik?

Zuzenean lapurretan ari dira; gure fakturak bikoiztu egin dituzte ustezko krisi energetikoan oinarrituz, baina zifrak ez datoz bat saldu diguten kontu horrekin. Adibidez, 2022an Iberdrolak 4.300 milioi euro garbi irabazi zituen. Gure kontura! Prezioak asmatuz. Ez dago beste irakurketarik.

Esango digute baliabide energetikoak garestiak direla, oso zaila dela ulertzea, analisi ekonomiko sakonak egin behar direla... Ez da egia! Eurek jartzen dituzte nahi dituzten prezioak eta merkatuarekin jokatzeko dute; alegia, gure poltsikoekin.

Ez da etikoa. Eta, agian, ez luke legala izan beharko ere. Non daude agintariak hori guztia kontrolatzeko?

Amaitzeko, zer dela-eta ez dugu energia berriztagarri gehiago? Doan delako. Ez dute nahi. Ez dago beste azalpenik. Itsasoko olatuak, haizea, eguzkia... Zenbat eta zenbat energia galtzen dugun egunero... minuturo!

Krisi energetikoa ez da egia. Krisi energetikoa ez da etikoa.

## MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Leku on bat da Eskozia

BLANCA URGELL

'BERRIA'-N ARGITARATUA  
[HTTPS://LABUR.EUS/95PCT](https://labur.eus/95PCT)

Sturgeonek dimisioa eman eta lehen aldiz kasu eman diot hedabideen ohiko paisaia osatzen dutenetako emakume honi, baina ingelesezko Wikipedian ez dago deus haren hizkuntzaz edo hizkuntzez. Arraioa. Foro antzeko batean era guztietako erantzunak jaso ditut. "Bai, badaki Eskoziako gaeleraz. Jendaurrean askotan hitz egin du. Erraz egiten du". "Ez, baina eskoziera hitz egiten du, normala denez, bera ez baita Lur Garaietakoa, Behe Lurretakoa baizik". "Ez,

inondik ere ez, eta SNP bere alderdia ere ez da gai honetaz kezkatzen". "Gure independentismoa ez da linguistikoa edo kulturala, politikoa baizik. Gaelikoz ez dakigunok besteak bezain eskoziarrak gara". (...)

Eztabaida omen dago eskoziera hizkuntza ote den, ala ingelesaren dialektoa. Wikipediak dio, fatalismoz, hizkuntzaren eta dialektoaren artean bereizteko irizpide unibertsalik ez dagoela. Alabaina, bi irizpide sendo ditugu. Nork erabakitzen duen, edo zerk erabakitzen duen (ejerzitoa aipatu ohi da), eta harena da hizkuntza. Honatx irizpide pragmatikoa.

Beste bat ere badago: hizkuntzaren historiarena. Bakarra, adituak aditu balira, eta ez iritzi-emaike merkeak. Goi Erdi Aroan Britainia Handira mendebaleko hizkuntza germaniko bat heldu zen, anglosaxoiera, bertan mintzo ziren hizkuntza zeltak (eta balizko latina) leku askotatik uxatu zituena. Egia esan, hizkuntza bat ez, zenbat gizatalde hainbat aldaera baizik, gerora ere noiz bakoitza bere aldetik, noiz bata bestearen eraginik aldatuz segitu zutenak. Ingelesaren Historia omen hau guztiau, baina gaurko erraldoiaren alturatik begiratu beharrean behe-behetik begiratu bageno: zeren historia litzateke?

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

[www.goiena.eus](http://www.goiena.eus)

**Argitaratzailea**  
Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkartea  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

**Lehendakaria**  
Monika Belastegi.  
**Zuzendari nagusia**  
Iban Arantzabal.  
**Eduki zuzendaria**  
Eneko Azkarate.

**Erredakzio batzardea**  
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

**Zuzendari komertziala**  
Mireia Larrañaga.  
**Administrazio zuzendaria**  
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**  
Iñaki Iturbe.  
**Hizkuntza arduraduna**  
Sergio Azkarate.  
**Harpidetza eta banaketa arduraduna**  
Igone Osinaga.

**Sailletako arduradunak**  
Xabier Urzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).  
**Maketazioa**  
Imanol Soriano,  
Aitor Lagoma,  
Amaia Martínez de Arenaza.  
**Publizitatea**  
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,  
Amaia Mundiñano.

**Administrazioa**  
Ane Bereizibar, Iratxe Bengoa,  
Nerea Artola.

**HARPIDETZA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[harpidetza@goiena.eus](mailto:harpidetza@goiena.eus)

**PUBLIZITATEA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[publi@goiena.eus](mailto:publi@goiena.eus)  
**EGOITZA NAGUSIA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
[berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus)

**Lege Gordailua:** SS-965/2014  
**ISSN:** 2174-369X  
**Tirada:** 18.500 ale  
**Difusioa:** 18.723 ale

**Inprimategia:**  
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagakoko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

## GUTUNAK

## 34 urtez

## IRATI ARANZABAL ZULOAGA

ARRASATE

34 urteren ondoren sakabanaketa amaitu egingo dela jakin berri dugu, azken bost euskal presoek Euskal Herriratzearekin. 1989an sortutako eta mendekuan eta gorrotoan oinarritutako espetxe-politika hiltzaile, ilegal eta kriminalaren bukaerara iritsi omen gara.

Urteetan eskubide-urraketak etengabeak izan dira, gure senide presoentzat eta etxean ginenontzat. Ezin ditugu ahaztu sakabanaketaren ondorioz hil diren hamasei senide eta lagunak. Sakabanaketak ahalbidetu zuen osasun-asistentzia txarra, eta hark hainbat presoren heriotza ekarri zuen; eta ikasteko eskubidearen debekua. Ezin dugu ahaztu espetxeetan ehunka kilometrotara izan arren jasotzen zuten elkartasun eta maitasun uholdeak mozteko asmoz nola sortu zituzten bisitarako lagunak hamarreko zerrendak eta sumario berriak asmatu zituztela beraien kaleratzeak ekiditeko asmoz, doktrina madarikatu baten izenean

espetxean urteak oparitu. Askok kalean beharko lukete hirugarren graduarekin, eta, horren orde, berriz espetxera bidaltzen ari dira.

Itzelezko kostu ekonomikoak ekarri digu sakabanaketak senideei eta lagunei, gure bizitza baldintzatzeraino. Ate guztiak jo ditugu espetxeetako egoeraren berri emateko asmoz. Ez dira batere errazak izan 34 urte hauek, baina duintasunez eta maitasunez bizi izan ditugu. Horren adibide ditugu egindako harremanak espetxeetarako autobusetan, furgonetetan, senideen bileretan... Zenbat irribarre konplize, malako eta besarkada bero! Gogoratze hutsarekin harrotasunez eta emozioz betetzen nauten pasarteak, bizipenak... Anekdotak dirudite orain!

Apirilaren 2an, gure herritar Unai Parotek 33 urte beteko ditu espetxean; espetxe-politika anker horren eredu garbia dugu. Unai kalean beharko luke egon legea, beraien legea, aplikatuz gero. Horregatik, egun horretan arratsaldeko zazpitan Seber Altuben hasiko den manifestaldian elkartuko gara.

Berri pozgarria da, baina badago oraindik bidea egiteko.

Etxean faltan ditugu senide asko oraindik ere, espetxean edo erbestean jarraitzen dutelako, eta jada gurekin nahi ditugu. Urte hauetan guztietan bidelagun izan zaituztegun denoi eskerrak eta besarkadarik beroena!

## Urbe auzoko maltzurkeriak

## AINHOA ASTIGARRAGA

ARRASATE

Urbe auzo inguruko txakur-jabe talde bat gara; aste honetan, jabe batek hiru saltxitxa-zati topatu ditu orratz batzuekin barruan.

Zein izan daiteke kapaz animalia bati min egiteko? Maltzurra behar du bizikidetzaren beste batzuei kalte egin barik.

Susmoa dugu nor izan daitekeen, agertu diren tokiagatik.

Ze kalte egiten dugu gauero gure txakurrekin kalera irteten garenean elkarrekin jolas daitezen eta gu berrikerian bagabiltza? Ze pertsona mota molestatzen dugu? Nire ustez, maltzurra den pertsona bat bakarrik molestatu dezakegu, hain min handia probokatu nahi badu...

## Alderdi politikoei eskaerak

## EÑAUT MUXIKA OLASAGASTI

AED ELKARTEAREN ZUZENDARITZA

BATZORDEAREN IZENEAN

ARRASATE

Maiatzean egingo diren udal hauteskundeak direla-eta, bilera-erronda hasi dugu Arrasaten ordezkariak daukaten alderdi politikoei, zenbait eskaera helarazteko eta udal hizkuntza politikaren inguruan dituzten asmoen berri jakiteko.

Eskaera garbi batekin goaz: euskaraz aritzeko gai diren hautagaiekin osa ditzatela zerrendak, edo, gutxienez, Udalaren funtzionamendua eta herritarrekiko harremanak euskaraz izatea bermatzeko ulermen maila nahikoa daukatenekin. Horri lotuta, beste eskaera bat ere egingo diegu: Udalean euskaraz jarduteko borondatez aurkez daitezela, amaitzean den agintaldian kezka ikusi baitugu udalbatzaren bilkuretan, euskaraz aritzeko gai izanda ere, gaztelaren aldeko apustua egin duela PSEko bozeramaileak. Arrasateko Udalak aspaldi erabaki zuen euskara izango

zela erakundearen zerbitzu eta lan hizkuntza, eta jarrera horiek atzerapauso larria dira, baita herriaren berreuskalduntzean ere.

Bide batez, AED eta Ekin Emakumeak elkarteek erabiltzen dugun lokalaren egoera prekarioaren berri ere ematen ari gara alderdi politikoei. Lokalaren jabetza partekatua da -zati bat AEDrena eta bestea Udalarena-, ez ditu egungo legediak eskatzen dituen baldintzak betetzen eta, ondorioz, inbertsio ekonomiko handia eskatzen du -50.000 euro ingurukoa, BEZ gabe-, irabazi asmorik gabeko elkarte batek bere gain hartu ezin duena.

Lokal horiek, AEDren eta Ekinen bulego lanak, bilerak eta askotariko jarduerak egiteko ez ezik, Udalaren harrera-zerbitzua emateko zein euskalgintzaren eta beste hainbat eragileren bilerak egiteko ere erabiltzen dira.

Aspalditik datorren afera da, eta arazoari behin betiko irtenbidea emateko borondate politikoa ikustea espero dugu bileretan, euskararen aldeko lanak goxotasuna merezi baitu, espazio duinak eta erakargarriak.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrek erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus



## Realaren eta Getaferen arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean

### GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Reala-Getafe norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuk eta zuk aukeratutako beste lagun batek: Reale Arena futbol zelaiko *premium* gunetik.

Partida apirilaren 8an, zapatua, 18:30ean izango da.

Parte hartzeko azken eguna: apirilak 2



Egin bazkide eta Reala ikusteko aukera izango duzu!

goiena<sup>™</sup>  
kide

Okm:  
batzen gaituen  
distantzia

Ezin errazagoa da zozketan parte hartzea!



1. Aplikazioa deskargatu.

2. Zozketak atalean sartu eta parte hartu.

Gertu.  
Zorte on!



# "Giza hilketa larriagotua leporatu zidan Estatuak"

**TEODORA VASQUEZ** ABORTU ESPONTANEOAGATIK ZIGORTUA

Arrasateko Emakume Txokoak antolatuta, 'Nuestra libertad' lana aurkeztu zuten joan den astean Kulturaten, eta protagonista Arrasaten izan zen, esperientzia partekatzen

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE Salvadortarrak 39 urte ditu gaur egun eta duela 16 urte, 2007an, jaiotzearen haurra galdu zuen, arazo obstetrikoko medio.

**Zuri gertatutakoa ikusaraztea da dokumentalaren helburuetako bat.**

Bai. Latinoamerikako herrialde gehienetako errealtatea oso konplexua da, injustizia asko daudelako, legeak ez direlako betetzen eta, azken batean, emakumeok ordaintzen ditugulako injustizia horiek. Horregatik, garrantzitsua da emakume latinoamerikarrok jasaten ditugun arazo horien berri ematea.

**Zure kasuan, 30 urteko kartzela-zigorra ezarri zizuten, giza hilketa larriagotua leporatuta.**

Bai. 2007an, abortuagatik atxilotu ninduten; eta 2008an, tipifikazioa aldatu eta giza hilketa larriagotua izatera pasa zen. Hala ere, ditugun ikerketen eta erregistroen arabera, zehaztu gabeko heriotza bat izan zen. Oraindik, gaur-gaurkoz, ez dago baieztatuta zerk eragin zion heriotza nire alabari. Bi aukera daude: jaiotze aurreko heriotza edo murgilketa bidezkoa. Garbi dagoena da pertsona bat ezin daithekeela bi aldiz hil, baina El Salvadorko Estatuak, bidezko arrazoirik ez izanda ere, 30 urteko kartzela-zigorra ezarri zidan,

egin ez nuen delitu bategatik. Baliabide urriko emakume iza-tegatik zigortu ninduten.

**Mehatxu moduan erabiltzen du hori hanga Estatuak, ezta?**

Hori da. Azken batean, gainontzeko emakumeentzako eredu gisa erabiltzen dituzte gure kasuak, inork ez abortatzeko eta abortatu gura duenak pentsa dezan ze onorio izan ditzakeen. Politika horrek berak eraman ninduen ni kartzelara, baita beste emakume asko ere.

**30 urteko zigorra izan arren, hamar egin zenituen kartzelan.**

2017ko abenduaren 17an nire sententzia zuzendu egin zuten. Amnesty Internationalek eskatu zuen nire kasua berraztertu zedila eta epaileak esan zuen ez ninduela askatuko. Halere, beste helegite bat ere aurkeztu genuen, zigorraren konmutaziorako. Preso guztiek dute horretarako aukera zigorraren heren bat bete ostean, eta nik beteta nituen hamar urte haiek. Beraz, baldintzapeko askatasunerako eskubidea nuen eta berriro ere aztertu zuten nire kasua. Hala, askatasuna eman zidaten, baina



Teodora Vasquez, Mujeres Libres El Salvador elkartearen kamisetarekin. T.V.

Estatuak ez ninduen errugabe egin, ez baitu aitortu nahi delitu bat egin zuela ni kartzelan sartuta nahikoa frogatzen gabe.

**Kartzela gogorra izango zen...**

Nire bizitzako urte zailenak izan ziren. Une hartan, neukan gutzia galdu nuen; ez askatasuna bakarrik, baita familia, ametsak eta ordura arte eraikitako gutzia ere. Nire semeak 3 urte zituen, pentsa. Gainera, errealtate zail bati egin behar izan nion aurre: diskriminazioa, eskubideen urraketa eta kartzela batean bizidun egoera prekariora. Nire alabaren heriotza ere gainditu behar izan nuen, maitasun handiz ari bainintzaion itxaroten.

**Salatzen duzu klase bazterkeria ere badela.**

Bai. Emakume dirudun bat ez da kartzelara joango, ospitale pribatu batera edo beste herrialde batera joango da eta ordaindu egingo du abortatzeagatik, inor konturatu gabe. Baliabide gutxiko emakumeok, aldiz, laguntza bila joaten gara ospitalera, eta, arretera jaso beharrean, polizia eta komunikabideak izaten ditugu aurrean; bizitza betirako izorratzen digute.

**Zu aske zara orain, baina emakume askok kartzelan jarraitzen dute.**

Hamar urte eta zazpi hilabeteren ostean, askatasuna berreskuratzea lortu nuen, eta, orduetik, nire konpromisoa da borrokan jarraitzea, arrazoi beragatik kartzelan dauden emakume haiek guztiek askatasuna berreskuratu dezaten. Ni irten nintzenean, 24 emakume geratu ziren barruan, eta, gaur-gaurkoz, albiste ona da aske direla, haien bizitza berreskuratzen. Hala ere, zigorra bikoitza da. Lehena epaileak jarritakoa eta bigarrena, gizarteak jarritakoa; diskriminazioa, berriro biktimitatzea eta abar. Horregatik, ga-

rantzitsua da borrokan jarraitzea, autonomia eta autoestimua berreskuratzeko, emakumeok ahalduentzeko. Emakumeok erakutsi behar dugu gai garestu sistema patriarkal eta matxista horri aurre egiteko.

**Mujeres Libres El Salvador izeneko elkarte da horren adibide.**

Bai. Legez sortutako elkarte bat da, irabazi asmorik gabekoa eta emakumeen eskubideen alde lanean eta aldarrikatzen diharduena, bai El Salvadorren eta baita Latinoamerika osoan ere. **Abortuaren baitako legedia gogoratu du El Salvadorrek; azken urte hauetan aurrerapausorik izan da alde horretatik?**

Ez, berdin jarraitzen du, eta okerrera da ez dugula elkarriketarako tarterik ikusten. Duela bost urte, lau helegite aurkeztu ziren, emakumeek abortatu ahal izateko, baina eskaera horiek bertan behera geratu ziren, eta 2021ean, presidentek artxibatzea bidali zituen. Guk, giza eskubideen alde lan egiten dugun elkarte gisa, ez daukagu inolako aukerarik Gobernuarekin eta instituzioekin berba egiteko. Geratzen zaigun bakarra borroka kolektiboa da. Asko gara elkartu garen emakume aktibistak, eta gure eskubideen alde borrokan jarraituko dugu, etorkizun batean emakumeek bermatuta izan ditzaten haien eskubideak, aukera hobek izan ditzaten. Ezin dugu onartu guri gertatutakoa emakume gehiagori gertatzea etorkizunean.

**"EZIN DUGU ONARTU GURI GERTATUTAKOA EMAKUME GEHIAGORI GERTATZEA; BORROKA EGITEA DAGOKIGU"**

## Autismoa ikusaraztea helburu duen mahai informatiboa Biterin

Etzi, domeka, Autismoaren Nazioarteko Eguna da, eta, horren harira, autismoa ikusarazteko mahai informatibo bat jarriko dute bihar, zapatua, Biteri plazan, 10:30etik 13:00etara. Informazioa emateaz gain, txapak eta bestelako materialak izango dituzte salgai, eta batutako dirua Gautena elkartera bideratuko dute, autismoaren espektroko

nahastea duten pertsonen senideen elkartera. Halaber, Gautena elkarteak Urdinduz martxa egingo du domekan Azpeitian. "Helburu nagusia autismoaren errealtatea bistaratzea da, askotariko errealtateak gizarteari erakustea, aurkeztea. Hor gaudelako eta hor egon nahi dugulako. Aukera berberak nahi ditugulako gizarte honen partaide garen kide guztiontzat. Denok gara ezberdin eta aldi berean denok gara berdin", azaldu dute elkarteko kideek.

## Bisita gidatuak eta mendi irteerak Aste Santuan gozagai

Arrasate hiribildu bizia izenpean, bisita gidatuak egingo dituzte apirilaren 6an, 7an, 8an eta 15ean, 11:00etan, Herriko Plazatik abiatuta. Bestalde, Bakue-Kortaburu-Etxezarreta mendi irteera egingo dute apirilaren 9an, 09:00etan Herriko plazatik irteera. Izen-emateak, BAZen, 943 25 20 00 zenbakian edo [izenemateak.arrasate.eus](http://izenemateak.arrasate.eus)-en.

## Podemos Arrasate herritarren ekarpenak jasotzen ari da

*Auzoak erdigunera: auzo aurrekontuak* lelopean, herritarren ekarpenak jasotzen ari da alderdi morea. "San Andres, Musakola, Erguin eta Santa Teresa auzoetan egon gara eta balantze oso positiboa egiten dugu", dio Eva Abuin alkategaiak. Datozen asteetan, era berean, Gesalibarrren, Meatzerrekan eta Bedoñan ere izango dira.

## OHARRAK

### Ludoteka ibiltaria

Bihar, aurtengo azken saioa egingo dute San Andresko Arimazubi plazan, 11:30etik 13:30era. Apirilaren 22an, Erguingo saioak hasiko dira.

### Doke txapelketa

Apirilaren 7an egingo dute, SUDC elkarteak antolatuta, 10:00etan, Monteazpin. Erronka bat ere egongo da, hamarretakoaz gain.



# 2025-2026ko kurtsorako prest, "dena ondo badoa"

Arrasate Herri Eskolako Musakola guneko eraikin berria ardatz hartuta, eguaztenean egin zuten bilera udaletxean. Eusko Jaurlaritzako ordezkari Alfredo Ruizek adierazi zuen "guztia ondo badoa" bi urte beharko dituela proiektua esleitu eta gauzatzek

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE Eusko Jaurlaritzako Azpiegitura, Baliabide eta Teknologia zuzendari Alfredo Ruizek azaldu du "guztia ondo badoa" bi urte beharko dituela prozesu guztiak, eta, hori hala izanik, 2025-2026ko ikasturterako egongo litzateke prest Arrasate Herri Eskolako Musakola guneko eraikin berria.

Ruizek azaldu duenez, lehenik, bi hilabetez egon behar du argitaratuta eraikin berriaren proiektuak, eta, ondoren, aurkeztutako enpresen proiektuak ebaluatu eta puntuatu egin beharko ditu Jaurlaritzak. "Puntuazio altuena duenari esleituko zaio proiektua, eta, bigarrenarekiko tartea txikia izanez gero, alegazio-epa zabalduko litzateke, eta horrek ere epea luzatuko luke. Alegaziorik ez badago, kontratazioa egingo da", adierazi du Iratxe Salaberriak, Arrasate Herri Eskolako zuzendariak. "Kontratua sinatzeko epea guztia ondo badoa sei hilabetekoa izango dela esan ziguten", gaineratu du.

## Obrek, hamazortzi hilabete

Behin obrak hasita hamazortzi hilabete epea aurreikusten dutela kontuan hartuta, prozesu osoak bi urte inguru beharko ditu. "Hala, gauzak ondo, 2025-2026ko ikasturte hasierarako



Arrasate Herri Eskolako Musakolako gunea, astelehenean. E.A.B.

egongo litzateke prest", dio Salaberriak. "Galdetzen joango gara eta gainean egongo gara. Halaber, Udaletik ere agindu digute gainean egongo direla, eta eskertzekoa da hori ere". Horren harira, Ruizek dio Musakolako proiektuari lehentasuna eman diotela.

## Bileran ordezkari zabala

Honako hauek egon ziren bileran: Eusko Jaurlaritzako Azpiegitura, Baliabide eta Teknologia zuzendari Alfredo Ruiz; Maria Ubarretxena, alkatea; Edurne

Unamuno, Hezkuntza zinegotzia; Aintzane Lasa, Hezkuntza eta Euskara teknikaria; Arrasate Herri Eskolako guraso komunitateko hainbat ordezkari; Iratxe Salaberria, Arrasate Herri Eskolako zuzendaria; eta Naiara Salamanca, ikasketaburua.

## Eraikin berriaren garrantzia

Ikastetxeko zuzendaritzak eta guraso komunitateak diote inportantea dela Musakolako bizilagunek aukera izan dezaten hezkuntza prozesu osoa bertan egiteko ikastetxe publiko batean.

## Atarte Eguneko Arreta Zerbitzua hialren 17an hasiko da martxan

LK kooperatibak kudeatuko du zerbitzua, mendekotasun arina duten 65 urtetik gorakoei zuzendutakoa

### E.A.B. ARRASATE

Joan den astean inauguratu zuten Atarte, eta apirilaren 17an hasiko da zerbitzua ematen. Mendekotasun arina duten 65 urtetik gorakoei zuzendutako eguneko udal zerbitzua izango da, eta, adin nagusikoen jardueira fisikoa sustatzeaz gain, erabiltzaileari arreta pertsonalizatua eskaini nahi diote.

Maria Ubarretxena alkatea zera azaldu du: "Zaintzarako zerbitzu berri bat da, Arrasatek orain arte izan ez duena. Garrantzitsua da, gure herrian

adineko pertsona asko daudelako". Atarteko dinamizatzailea Nekane Castellano izango da, eta xehetasunak eman ditu: "Hasiara batean, asteleheneetik egubakoitzera 10:00etatik 13:00etara eskainiko dugu zerbitzua. Ideia da arlo fisikoa lantzea, kognitiboa eta emozionala ekintzen bitartez. Ekintzak taldearen behar eta nahien arabera antolatuko dira".

Ordainpekoa izango da, erabiltzaile bakoitzaren egoeraren arabera –hilean gutxienez 5 euro eta gehienez 60 euro–.

## Santa Marina eta Santa Teresa hobetzea da lehentasun nagusia

Udalak egin duen galdeketa, bizilagunek eta eragileek argi utzi dute auzoguneak hobekuntzak behar dituela

### E.A.B. ARRASATE

Doneztebe Portuko kalean aparkaleku bat egiteak eta horko etxebizitzaren atzealdeko filtrazioen arazoari irtenbideak indar handia hartu dute galdeketa. Beraz, bi gai horiek proiektuan sartzea aztertuko du Udal Gobernuak. Gainerako proposamenak proiektuan aurreikusita zeuden lehendik. Honako hauek dira: espaloiak hobetzea, zintarriak eta zoladura handituz; oinezkoentzako pasabideak hobetzea; trafiko-seinaleak berritzea eta instalatzea; galtzada hobetzea eta abiadura

murrizteko badiak jartzea; barandak eta bankuak berritzea eta bateratzea; autobus-geltokiak berritzea; edukiontziak lekualdatzea eta paperontzi gehiago jartzea; energia aurrezteko sistemarekin argiztapena hobetzea; igogailuak jartzea; bide-garbitza hobetzea; berdeguneen mantentze lanak hobetzea; egungo haur-parkea egokitzea; Doneztebe Portuko 15-17 atzealdean parke berria egitea; Santa Teresa leian egoteko espazioa egokitzea eta espazio estali baten aukera aztertzea.



**Gualbi**  
aholkularitza  
Eraña aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA  
LAN ARLOKO AHOLOKULARITZA

ABOKATUAK  
KONTU IKUSKARIAK



Jokin Zaitegi plaza 6 (Arrasate) • 943 79 83 95 • erana@aserana.com • www.gualbiasesores.com



Domekako manifestaziorako deialdia egiteko prentsa-agerraldia, Kultureteko areto nagusian. XABIER URTZELAI

# Manifestazioa etzi, "bizi guztiko zigorra" salatzeke

Aurten 33 urte beteko ditu kartzelan Unai Parotek, eta Arrasateko Sarek manifestazioa deitu du domekarako. "Bizi guztiko zigorraren kontra baldin bazaude, ez gelditu etxean eta batu mobilizaziora. Unai kalean egon beharko luke jada", azaldu dute

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE Unai Parotek 33 urte beteko ditu espetxean aurten. "Erraz esaten da, baina 12.045 egun dira. Gehiegitxo, ezta? Libre egon beharko luke, zigorraren hiru laurdenak aspaldi beteta dituelako. Baimezez ere irten egin beharko luke, baina han jarraitzen du, espetxean. Zer bilatzen dute horrekin? Preso honen heriotza bilatzen dutela garbi daukagu!", salatu dute Arrasateko Saretik.

Halaber, gaur egun indarrean dagoen legediak "bizi guztiko espetxe zigorra" ezkututzen jarraitzen duela adierazi dute. "2003ko maiatzera arte, probintzia bakoitzeko zaintza epaileen esku zegoen bertan zeuden presoekin zaintzaz arduratzea. Legea aplikatuz, hark erabakitzen zuen noiz betetzen zuen presoak zigorra. Gaur egun ere horrela funtzionatzen du Auzitegi Nazionalean zigortu ez dituzten presoekin kasuetan. Zergatik aldatu zen legea? Bada, 30 urteko zigorra zuten hainbat euskal

preso erredentzioekin zigorra beteta kalera irteten hasi zirelako, 16, 17 edo 20 urte beteta", gehitu dute.

**Legea betetzea eskatuko dute** Euskal presoek jasaten duten "salbuespeneko legedia" ere gaitzetsi dute, eta "argi" utzi "funtsezkoa" dela legedia hori desaktibatzea. "Gaur egun euskal presoak bigarren eta hirugarren graduan sailkatuta daude. Bigarren graduan baimenekin atera daitezke kalera eta hirugarren graduan kalean egon daitezke presoak, batzuetan astean zehar espetxera lo egitera joanez eta beste batzuetan espetxera bueltatu gabe. Gradu horiek emateaz Espetxeko Tratamendu

**MANIFESTAZIOA SEBER ALTUBE PLAZATIK ABIATUKO DA, DOMEKAN, 19:00ETAN**

Junta arduratzen da, presoaren eboluzioa eta jarrera aztertu ondoren. Azken urte hauetan, Auzitegi Nazionala atzera botatzen ari da Espetxeko Tratamendu Juntak preso bakoitzari emandako gradua. Hala, ikusten ari gara, behin eta berriz, kalean dauden presoek espetxera itzuli behar izaten dutela. Gure eskualdean, adibidez, Joseba Arregiren kasua dugu nabarmenena, Oñatin. Salbuespeneko lege hori ez da euskal presoek aplikatzen zaien bakararra. Beste hainbat daude euskal presoek espetxean jarrai dezaten bermatzen dutenak".

Hori guztia salatu gura dute domekako manifestazioan, eta herritarrei dei egin diete parte hartzeko: "Egoera horren aurrean guk zer egin behar dugu? Kalera irten eta Unairen etxeratzea aldarrikatu. Ez dugu eskatzen inolako pribilegiarik, soilik legea bete dezatela; izan ere, legedia arrunta betez, Unai kalean egon beharko luke".



Mikel Uribetxeberria, Aintzane Oiarbide eta Maria Ubarretxena, Kanpanzarren. M.Z.E.

## Kanpanzarko errepideko lanak, maiatz erdialderako bukatuta

Arrasateko zatian errepidea zabaldu eta hobetzeko lanak, urrian hasi zituztenak, azken fasean sartu dira

**E.A.B. ARRASATE**

Sarako merendero inguruan hasi eta Bizkaiko mugaraino doan errepide zatia zabaldu eta hobetzeko lanak maiatz erdialderako bukatuta egongo direla aurreratu du Aintzane Oiarbidek, Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegiturako diputatuak. "Obrak ondo doaz, inbertsio handia izaten ari da, 1,2 milioi eurokoa, eta lehenengo bi herenak bukatzen ari gara. Lurzoria amaitu dugu. Azkeneko fasea gelditzen zaigu, baina, esan bezala, aurreikusten dugu maiatzerako amaituta egotea".

Lanak bukatzean, errepideak bi metro irabaziko ditu; orain arte, errepidearen zabalera zapi metrokoa zen, eta bederatzikoa izatera pasako da. Errepidearen 926 metrotan egin dituzte lanak eta zabalera gehitu ahal izateko ezkerreko mendi-magalean lur-erazketak egin dituzte. Oiarbidek errepide osoa nabarmen hobetu dela azpimarratu du: "Segurtasun handiagoa izango du errepideak, eta erosotasun handiagoa ibilgailu eta txirrindularientzat. Gainera, kamioi-trafiko handia dago: zirkulazio osoaren %18".



HASIER LARREA

## Mahai-inguru aberasgarria

AEDk antolatuta, aniztasun funtzionala duten pertsonen hizkuntza eskubideak aztertu zituzten martitzenean egindako mahai-inguruan. Hitz hartu zuten, besteak beste, Agurtzane Barrutia gurasoak, Huheziko Hezkuntza Bereziko irakasle Nagore Iñurrategik eta Goyeneche fundazioko Elena Zarete, eta gaiaren inguruan hausnartzeko abiapuntua izan zen.

# 'Pumptrack'-eko lanak hasi dituzte Markuleten

Astean hasi dituzte 'pumptrack' pista egiteko lanak Markuleteko biribilgune ondoko zelaietan; bost astean bukatzea da aurreikuspena, baina kirol instalazioa ezingo da maiatz amaierara arte erabili, asfaltoak egonkortzeko denbora behar du eta

## Eneko Azurmendi ARRASATE

Pandemia aurretik Arrasaten egindako ziklo-kros lasterketak Markuleteko belargunean izan du zirkuitua, eta, paradoxikoa bada ere, lur eremu hura baliatuko du Udalak kirol instalazio berri bat egiteko: *pump-track* pista. Bada, aste barruan hasi dituzte lanak, eta aurreikuspena da bost astean amaitzea. "Hala ere, maiatz amaierara arte ez da espero erabilgarri egotea; asfaltoa finkatu arte, kalterik egon ez dadin", azaldu du Victor Fuentes zinegotziak.

## Herritarrek aukeratua

Poolsport Soluciones SL enpresak egindako diseinua izan zen iazko lehiaketan bozkatuena, 1.311 botorekin. Hura kontuan izanik, enpresarekin batera Arrasateko *pump-track*-zaleek parte hartu dute diseinuan, udal ordezkariak azaldu dutenez, "herritarrentzat eta zaleentzat pista ahalik eta egokiena egiteko". Gainera, kirol hori praktikatzeko dutenen segurtasuna bermatzeko, herritarrei pista erabiltzen erakutsiko diete, *parkour* pista-ekin egin zen bezala. "Jendeak pista ardurarekin erabiltzea lortu behar dugu; *parkour* parkea, *pump-track*-a eta horrela-



Eguaztenez *pump-track*-eko lanei egindako argazkia, Markuleten. GOIENA

## BOST ASTEAN AMAITU NAHI DITUZTE LANAK; DENBORA BEHAR DA ZORUA EGONKORTZEKO

ko parkeak kontu handiarekin erabili behar dira", adierazi du Fuentesek.

## Bidegorria, ondoan


"Ingurua errepidez josita dago, baina hara heltzeko ez dago

errepidetik joateko beharrik. Izan ere, bidegorritik iritsi daiteke, inongo arrisku gabe; hain zuzen ere, horregatik iruditu zitzaigun eremu egokia", azaldu du Maria Ubarretxena alkateak. Azkenik, bidegorrian Gautxori eremua guztiz bertutuko dute, herritarrei segurtasuna bermatzeko.

Eremuak 3.900 metro karra izango ditu eta pista inguruan mahai batzuk jarriko dituzte, familian edo lagunartean joateko. Aurrekontua 125.000 eurokoa izan da, BEZa barne.

## Elkarrekin lotutako bi zirkuitu

Pistak elkarren artean lotzen diren bi zirkuitu izango ditu. Horietako bat, "errazagoa" izango da eta 86,10 metroko luzera izango du. Bigarrena, aldiz, 63,70 metrokoa, "bereziagoa eta zailagoa" izango da, Fuentesen esanetan. Ibilbide osoak 149,77 metroko luzera izango du, bederatzi bihurtu eta 23 oztoporekin.



Markuleten jarriko duten *pump-track*-aren irudi bat. ARRASATEKO UDALA

## Goñi memorialeko finalerako sailkatu da Ander Murua

Arrasatekoak apirilaren 5ean jokatu du partidu erabakigarria, Tolosako Ugartemendiarekin

## X.U.A ARRASATE

Eskuz binakako Goñi memorialeko finalean izango da Ander Murua apirilaren 5ean. Arrasatekoak Tolosako Ugartemendia pilotariarekin osatu du bikotea, eta txapelketa borobila egin dute finalera sailkatzeko. Lehenengo kanporaketa-partiduan 22-4 hartu zituzten mendean Labaka eta Beloki. Eta final-aurrekoan 22-2 irabazi zieten Igoari eta Apezteari. Berez, partidua 13-2kora arte jokatu zuten, baina Apezteak partidua bertan behera utzi behar izan zuen eskuin besoan ziztadak zituelako, eta arrasatearrak eta tolosarrak finalerako txartela eskuratu zuten, apenas lan erdiak eginda.

## Finala zuzenean ikusgai

Finalak datorren eguaztenez jokatuko dituzte, 18:30ean hasita. Lehenengo partidua prome-



Ander Murua. GOIENA

sen mailakoa izango da, eta elite mailan Muruak -Soraluze-ko kluba ordezkaturik- eta Ugartemendiak Elola eta Lizeaga izango dituzte aurrean. Bada, finala Youtuben ikusi ahal izango da, zuzenean, *Kirolzale tv* izeneko kanalean.

## Garaipen eta guzti Bilbon

Mater Series txapelketan izan ziren ARTko Pirolitikak aurreko asteburuan Bilbon. Eta garaipenaren zaporea dastatu zuten: "Izugarri ondo ibili gara; lau partidu jokatu eta lehenengo irabazi egin genuen, eta jokalarion irribarre eta emozioak dena esaten zuten", dio Belen Aranbarrik. *Garapena* kategorian zortzigarren sailkatu ziren arrasatearrak.



AMA PIROLITIKAK

## Bigarren dagoen Urolaren kantzara Mugarri Ingou

Joan den astean Egiaren kontra 21-21 egin eta gero, Mugarri Ingoukoak Zumarragara joango dira zapatu arratsaldean (18:00). Hala, asteburuan etxean berdindu egin badute ere, arrasatearrak bolada onean daude, azken lau partiduetan zazpi puntu batu dituzte eta. Biharko kontrario Urola, baina, bigarrena da sailkapenean.

## Tabirako Baqueren kantzara doa EBA mailako MU, bihar

Ligan azkenaurreko postuan dagoen Tabirakoren kontra jokatu du Mondragon Unibertsitateak bihar, zapatua (19:00, Durango). Azken hila-bete eta erdi txar baten ondorioz, moreak igoera faseko postuetatik urrunditu egin dira. Eta horietara gerturatu ahalegin-duko dira geratzen diren hiru jardunaldietan.



Ezkerrean, Goikobalu Txiki abesbatzakoak; eskuman, Arrasate Musikaleko dantza taldekoak. GOIENA

## Entsegu-lokal berriak estreinatzen irrikaz

Juan Arzamendi Musika Etxearen irekiera-ekitaldia egingo dute gaur, Arrasateko Udalak deituta, 19:15ean. Arrasate Musikaleko, AGAko eta Goikobaluko kideek girotuko dute hitzordua. Lokaletako giltzak jasotzeko gogoz daude erabiltzaileak

### Hasier Larrea ARRASATE

Juan Arzamendi Musika Etxea erabiltzeko prest dagoela jakinarazteko ekitaldia egingo dute gaur arratsaldean. 19:00etan Arrasate Musikalen egungo egoitzatik, Monterron jauregitik, irtengo da musika eskolako banda kalejiran, Nafarroa etorbiderantz, eta behin iristen direnean ekingo diote JAMEn irekiera

ekitaldiari. Eguraldi ona eginez gero, kanpoaldean hartuko du hitza Maria Ubarretxena alkatetik, eta musika eskolako sortzaile eta zuzendari izandako Juan Arzamendiren familiari lore-sorta banatuko dio. Txistulariek eta dantzariak aureskua interpretatuko dute une horretan, eta musikak protagonismoa izaten jarraituko du, musika

eskolako, Goikobaluko eta Arrasateko Gazte Abesbatzako kideek zenbait pieza plazaratuko dituzte eta; tartean, Arrasate Musikalen ereserkia.

Segidan sartuko dira JAMEko auditoriumera, aretoa estreinatzen kontzertuari hasiera emateko. 198 lagun sartzen direnez, kabitzen ez direnek kanpotik jarraitu ahaliko dute ekitaldia,

pantaila erraldoia egongo baita. Jatekorik ere ez da faltako, barbakoa egingo baitute.

### Giltzak banatzea falta da

Ikasturtea bukatzeko hiru hilabete eskas falta direnez, musika eskolako kideek lekualdaketa datorren ikasturte hasieran egitea erabaki dute, baliabide asko mugitu behar dituztelako. Baina badaude erabiltzaile izango diren bi kolektibo, Goikobalu abesbatza eta Arrasate Musikaleko ballet taldea, material astunetik gabe moldatzen direnak. Haiek, beraz, Arrasateko udal ordezkariak ematen dieten unean bertan sartu ahaliko dira, eta, bietako ordezkariak adierazi dutenez, egun hori ahalik eta lasterren heltzea espero dute.

### Goikobalu, Harresi aretotik

Kulturola zaharra izan zuen egoitza urte askoan Goikobalu abesbatzak. Eraikin berria egiteko obrek eta pandemiak hainbat tokitan entseatzera eraman zituen azkenaldian. "Arizmendi Ikastolako areto batean, San Frantzisko elizan eta Harresi aretoan –Iturriotz kalean– egin izan ditugu azken hiru urteotako lan-saioak. 35 urte beteko ditu Goikobaluk aurtan, eta, agian, berandu samar datorkigu merezi dugun lokala; baina bai, pozik gaude JAMEko instalazioekin", adierazi du Maider Ruizek, abesbatzako lehendakariak.

Izan ere, taldetxotan banatzeko aukera emango die haien eskumenekoak diren lau lokal txikiak eta denek batera aritzeko espazio handiagoko gela batek. Gela horrek tarima izatea garrantzitsutzat jo du Ruizek: "Modu horretan, ahotsek ez dute elkar oztopatuko, abeslariak mailaka-

tuta egon gaitzkeelako". Bestalde, gunearen "sonoritate sikua" modu positiboan baloratu du, akatsak gehiago igarriko direlako.

Gaur egun, haur, gazte eta helduendako taldeak daude Goikobalu abesbatzan, eta JAMEko auditoriumak aukera eskainiko die tarteka emanaldi txikiak egiteko: "Hala, kide berriak erakartzeko oholtza ere izango da kontzertuetako aretoa".

### Balleta eta gehiago

Iritzi berekoa da Arrasate Musikaleko dantza taldeko irakasle Jana Fuente Lucas. Hura eta ikasleak –80, denera– Udaltzaingoaren eraikinaren alboko lokal batean aritu izan dira orain arte, Trikiti Eskolari itsatsitako gelan, "egoera kaskarrean". Ondorioz, ilusio handiarekin daude lokal berrira joateko.

Gasteiztarra izatez, 5 eta 10 urte arteko dantzazaleei ematen dizkie ikastaroak duela 27 urte: "17 urterekin hasi nintzen, eta zaletasuna transmititzea, beldurrak askatzea eta sentimenduak adieraztea da irakasle moduan daukadan helburua; ni neu ere etengabe ari naiz ikasten, garai berrietara moldatzen". Horren erakusle da dantza urbanoetan trebatzen hasi dela, baina barra klasiko modalitatea ere lantzen du: "Balletaren adar hori herrialde askotan doa gorantz; dantzan sekula egin ez duten amei gomendatzen diet probatzeko".

## SARTZEN LEHENAK GOIKOBALU ETA ARRASATE MUSIKALEKO DANTZA TALDEA IZAN DAITEZKE

## Kontzertua eta DJak gaztetxean, Eguzkierripa Rock festaren alde

Gaur, 22:30ean hasita, Chuleria Joder, Trumans eta Olatz Ugarte, Denso, Sinkeen eta Urbe protagonistak

### H.L. ARRASATE

Rockaz eta musika elektronikoaz gozatzeko ekitaldia antolatuko dute gaur gauerako gaztetxean. Aramaio Tropikaleko Gazte Asanbladak maiatz bukaeran egiten duen Eguzkierripa Rock jaialdia

sostengatzeko helburua ere badauka, sarrerako 5 euroak hura finantzatzeko bideratuko baituzte, AGAKOko kideen oniritziarekin. Gaztetxeko asanblada badabil, gainera, 32. urteurreneko egitaraua atontzen.

Gaur gauean, zuzeneko eman go dute lehenengo bi orduetan Chuleria Joder eta Trumans taldeek. Bizkaiko Ezkerraldean joan den urtean sortutako taldea da lehenengoa, eta punkak berezko dituen jarrera eta melodiak ditu ikur nagusi.

Trumans Oñati eta Arrasateko hiru musikari gaztek osatzen dute, rocka eta bluesa lantzea gustatzen zaie eta Olatz Ugarte abeslariaren laguntza izaten dute zenbait kantu plazaratzeko. Taldea duela urte batzuk



Trumans, Elgetako Espaloian. H.L.

abiatu zuten, eta, etenaldi baten ondoren, aurtan hasiak dira bailarako oholtzetan euren erreperorioaren berri ematen.

Anplifikadoreak itzalitakoan, sintetizadoreen txanda helduko da. Denso musika-produktoreak plazaratuko ditu, Sinkeenek eta Urbe bezalaxe. Badakite zer den gaztetxea dantzan jartzea, eta gaur ere aretora ordu txikitant bertaratzen direnak mugiarazteko ardura hartuko dute euren gain.



GOIENA  
TELEBISTA  
SASOI  
BERRIA

## LEIHO BAT DEBAGOIENERA, TOKIKOA ETA SASOIKOA.

**HEMEN DEBAGOIENA**

EGUNERO, 18:00ETAN 20:00ETAN ETA 22:00ETAN

**ASTELEHENERO**

**'LANDARA', TXOMIN MADINAK  
AURKEZTUTA**

LEHEN SEKTOREKO LANAK ETA  
LANDA-EREMUKO ERREALITATEA

**EGUAZTENERO**

**'MUNDUTIK BINAKA', ENEKO  
AZURMENDIK AURKEZTUTA**

MUNDUAN ZEHAR BIZI DIREN  
DEBAGOIENDARREN IKUSPUNTUA

**EGUBAKOITZERO**

**'LUZAPENA', MIREIA BIKUÑAK  
AURKEZTUTA**

GURE KIROLARIAK MODU  
LASAIGOAN EZAGUTZEKO AUKERA

**ETA LASTER**

**'DEBAGOIENEAN EGINA',  
IÑIGO BARRENAK AURKEZTUTA**

ZER ETA ZELAN EKOIZTEN  
DUGU DEBAGOIENEAN?



DESKARGATU  
GOIENA  
APLIKAZIOA



**goiena**

Zu hemen zaude.

# Herritarrak, Kintelenari bultzada emateko prest

Janari-dendarekin aurrera ez egiteko asmoa erakutsi du Arbel Kooperatibak. Urtebeteko epea jarri dute horretarako: herritarrekin lantaldea osatu, eta komertzioak aurrera egin dezan ideia berriak aurkeztu beharko dituzte adostutako epean

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO Kintelena janari-dendari bultzada emateko asmoz, herritar guztiei zuzendutako batzar irekia egin zuten eguaztenean. Janari-dendaren etorkizuna kolokan dago gaur egun; eta, egoera horren aurrean, herritar askok erakutsi zuten egoera ezagutzeko interesa. Interesa bakarrik ez, baita lantaldean parte hartzeko konpromisoa ere.

Arbel kooperatibak hartu zuen Kintelena janari-dendaren kudeaketa orain dela sei urte; baina kudeaketak berak eragiten duen nekea, batetik, eta azken urteetako datu ekonomikoak onak ez direla kontuan hartuta, bestetik, Arbelek janari-denda uzteko intentzioa erakutsi du.

## Salmentak, behera

"Orain dela hamabost egun Arbeleko batzar orokorra izan genuen eta han komentatu zen Kintelenaren egoera", azaldu du zuzendaritzako kide Iñaki Etxebestek, eta gehitu du: "Salmenta kopurua behera doa, nahiz eta fakturazioa mantendu egiten den produktuen prezioen igoragatik". Arbeleko zuzendaritzak gaur egun Kintelenan lanean diharduten langileei eskaini zien dendaren kudeaketaren ardura; baina negozioak ematen dituen datuak ikusita ez dute bideragarri ikusi.

Martxoaren 18an egindako batzar orokorrean, bazkideek esfortzu bat egitea eskatu zioten zuzendaritzako kideei -Kintelena uztearen aldeko 17 boto egon ziren eta ez uztea bozkatu zuten 18k-. Hori horrela, herritarrei zuzendutako bilera bat egin eta irtenbideak topatzea erabaki du zuzendaritzak.

"Zerbitzua beharrezkoa dela ulertzen dugu, baina dagoenetan ezin da aurrera atera. Salmentek behera egin dute eta fakturak, argindarra, adibidez, asko igo



Eguaztenean egindako batzarra. A.E.G.

## SALMENTEK BEHERA EGIN DUTE ETA ARGINDARRA ASKO IGO DA, BESTEAK BESTE

dira. Gure proposamena da lantalde bat sortzea, egoera hori bideratuko duena urtebeteko epean", azaldu du Etxebestek. Horrez gain, Aramaioko komertzioen elkarte bat sortzeko ideia ere plazaratu zuten.

## Lantaldea

"Batzarrera etorri direnen artean hamar bat laguneko lantaldea osatu dugu. Elkartuko gara eta zein ideia dauden ikusiko dugu. Izan ere, erronka handia da. Demografikoki zahartzen ari garen herria gara, bai Euskal Herria eta baita Aramaio ere. Negozio txiki horiek erronka berezia eskatzen dute", dio Etxebestek.

Hara joandako herritarrek zerbitzua mantentzearen alde egin zuten, herria bizirik mantentzen duelako, eta herritarrei eskatu zieten herrian erosteko.

## 2022ko balantzea

Eguazteneko batzarrean Arbeleko zuzendaritzak erakutsi zituen datuak. 2022ko irabazi-daturak negatiboak da eta salmentak 374.045,81 eurokoak dira.

Urtea	Irabaziak
2018	2.394,54€
2019	7.524,90€
2020	13.062,70€
2021	2.933,41€
2022	-9.991,46€

## Mendi martxa egingo dute, mendiak babestea eskatzeko

Arabako Mendiak Aske plataformak deituta egingo dute mendi ibilaldia; 09:00etan frontoitik irtengo dira

### A.E.G. ARAMAIO

Arabako Mendiak Aske plataformak mendiak babesteko mendi martxen beste edizio bat hasi berri du. Lehenengo ibilaldia martxoaren 25ean egin zuten, Uribarri-Jauregin. Bihar, apirilak 1, bigarren mendi martxa egingo dute, Aramaion.

09:00etan elkartuko dira, frontoian, eta, handik abiatuta, Kruzetara, Durakogainera eta Gaborraldera igoko dira. Ibilbide hori hamabi kilometrokoa izango da eta 600 metroko desnibela izango du. Motzagoa izango den

beste ibilbide bat ere antolatu dute: 10:00etan irtengo dira Kruzetatik, zazpi kilometroko ibilbidea izango du ibilaldi motzak, eta 300 metroko desnibel positiboa. Mendi martxen helburua da zentral eolikoak eta fotovoltaiakoak ezarri nahi diren ingurune naturalak ezagutzera ematea.

Horrez gain, antolatzaileek gogora ekarri nahi dute maiatzaren 20an egingo den manifestazio nazionala. Euskal Herrian egin nahi duten makroproiektuen aurka egingo dute, 18:00etan, Gasteizen.



Iazko sari banaketa ekitaldia. GOIENA

## Ipuin, komiki eta mikroipuin lehiaketa Txirritolaren eskutik

Gaia librea izango da, eta literatur lanak aurkezteko epea apirilaren 28a izango da, liburutegian

### A.E.G. ARAMAIO

Txirritola Euskara Elkartek aurtan ere literatura oinarri duen lehiaketa antolatu du. Ipuin, mikroipuin eta komiki lehiaketa abian da, eta lanak aurkezteko epea apirilaren 28ra artekoa izango da.

Lehiaketa aramaiotar guztiei zabalik dago. Euskarazko ipuinak, komikiak eta mikroipuinak izan beharko dute, inoiz argitaratu gabeak.

### Gutxieneko luzera

Ipuinen kasuan, LHko 1. zikloko ikasleendako luzera librea

izango da eta LHko 2. zikloko ikasleek orri bateko ipuina idatzi beharko dute. Lehenengo zikloko ikasleek taldean idatzi beharko dute eta bigarren ziklokoek, bakarka.

Komikiaren kasuan, LHko 3. zikloko zuzendutako saila izango da, eta luzera librekoa izango da; eta mikroipuinak gehienez 100 hitzkoak izan beharko dute. Mikroipuin saila nerabeei eta gazte eta helduei zuzendutakoa izango da.

Lanak liburutegian aurkeztu beharko dira apirilaren 28a baino lehen.

# Tabuen gainean berba egiteak duen garrantzia

Martxoaren 8aren bueltan antolatutako emanaldia izango da bihar kultura etxean 18:00etan eskainiko dutena. Sarrerak 5 eurotan egongo dira salgai, 17:30etik aurrera. Jasotako diru guztia Izan Iñurri elkartearendako izango da

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO  
Izan Iñurri elkarteak antolatuta, bertso saio musikatua egingo dute bihar, kultura etxean, 18:00etan. Bularreko minbizia dutenekin lan egiten duen elkarte da Izan Inurri; eta ekintza kulturalak egiten dituzte gizartean tabu diren gaiak plazara ateratzeko.

"Lasarten sortutako elkarte da, eta, Ane Labaka bertsolaria lasartearra denez, azaldu zigun nahi zuela zerbait egin elkarteari laguntzeko. Doken egin genuen lehenengo bertso saioa musikatua, esperimendu moduko bat, eta, izan zuen arrakasta ikusita, dagoeneko hamahiru bat saio egin ditugu", azaldu du elkarteko bultzatzaile Julene Illarramendi Elexpuruk.

## Tabuak oholtzara

Gai-jartzaile lanetan Amaia Agirre ibiliko da, eta oholtzara eroango dituzte minbiziarekin zerikusia duten eta gizartean

tabu diren gaiak. "Tabuez hitz egin nahi dugu, ileordeez eta heriotzaz; tabu diren gaiak normalizatu nahi ditugu eta gure barruak askatu", dio. Saio guztietan Amaia Agirre izaten da gai-jartzailea, baina ez da baka-

rrik haren ardura gaiak plaza-ratzea: "Minbizia bizi duten emakumeak igoko dira taula gainera, eta guztien artean jarriko dituzte gaiak".

Ordu eta erdi pasa iraungo du ikuskizunak.



Izan Iñurri elkarteak egindako saioaren irudi bat. IZAN IÑURRI

## Katuko Muinoak laukotearentzat Kuadrilla Arteko sari nagusia

Egun osoko jaia egin zuten Laudion zapatuan; Aramaioko bertsolariak ere izan ziren finalean

### A.E.G. ARAMAIO

Gasteizko Katuko Muinoak laukoteak irabazi du 2023ko Arabako Kuadrilla Arteko Txapelketa. Zapatuan jokaturako finalean aurrean izan zituzten Izena Pentsau Bida aramaiorrek eta Gasteizko Errexala taldea.

Egun osoko jaia egin zuten Laudion, Arabako bertsogintzaren jaia borobiltzeko. Gorbealdeko eta Gasteizko trikitilarien doinuekin lagunduta poteoan ibili ziren goizean. Ondoren, herri-bazkaria egin zuten: 90 bat lagun elkartu ziren mahaiaren



Aramaiorrek, finalean. A.B.E.

inguruan. Bazkaritan jandako babarrun eta sakramentuei aurre egiteko modu egokia izan zen bazkalosteko trikiti-dantzaldia.

17:00etan hasi zuten finala, Arantxa Sobrino aurkezleak gidatuta. Giroa alaitzeko moduko agurrak prestatu zituzten taldeek: *Muinoko Alayak* pot-pourri kanta Gasteizko Katuen Muinoak; euskal punk eta kanta modernoaren arteko pot-pourriarekin hasi ziren aramaiorrek; eta *Brianen bizitza* filmeko doinuearekin, berriz, Errexalako kideak.

Finalistek Kuadrilla Arteko Txapelketako argazkia jaso zuten oroigarri moduan, eta Katuko Muinoak taldeko kide Iñaki Viñasprek, Eli Zalduak, Ekaitz Samaniegok eta Xabier Antiak landare bana jaso zuten, kimu berriak irudikatuzko.

## Bertso saio musikatua

Tabuen Kutxatik Oholtzara bertso saio musikatua egingo dute bihar, zapatua, Aramaioko kultura etxean. Bertsoan ibiliko diren bertsolariak dira: Alaia Martin, Ane Labaka, Uxue Alberdi eta Miren Amuriza. Gai-jartzaile lanetan Amaia Agirre ibiliko da, eta ikuskizunari musika jarriko diote Oihana Rodriguezek eta Gari Otamendik.



Amaia Agirre.

Sarrerak 5 eurotan jarriko dituzte salgai, eta egunean bertan 17:30etik aurrera horiek eskuratzeko aukera egongo da kultura etxean bertan.

Sarrerekin lortutako irabazi guztia Izan Iñurri elkartearendako izango da. Antolatzaile lanetan ibili dira: Aramaioko Udala, Arabako Foru Aldundia, Arabako emakumeen jabeakuntzarako Laia eskola, baita Inurri elkarte ere. [Izaninurri.com](http://Izaninurri.com) atarian kontsulta daiteke elkartearen gainerako informazio gehiago.

## Aitortzak

Tabuen Kutxatik Oholtzara ikuskizuneko ikusle gehienak emakumezkoak direla nabarmendu du Illarramendik, eta jende gaztearen falta igartzen dutela.

Izan Iñurri orain dela hiru urte sortu zuten: "Duela sei urte galdu nuen ama, eta beharra nuen aitortza moduko bat egin eta beste batzuei laguntzeko". Gaur egun lau lagunek osatzen dute elkartearen talde motorra. "Tribua sortzen dugu, eta laguntza ematen diogu minbizia bizi duenari, baita minbizia bizi

duenaren ondoan laguntzaile dagoenari ere". Laguntza ekonomikoa bakarrik ez dute ematen, bizipoza ere banatzen dute, minbizia duenari "sorpresatxoak emanez".

Diru guztia Izan Iñurri elkartearendako izango da.

**EKINTZA KULTURALAK EGITEN DITUZTE GIZARTEAN TABU DIREN GAIK PLAZARA ATERATZEKO**



LOKATZA

## Pontevedran izan da Ormaetxea

Edurne Ormaetxea ziklista aramaiorra Pontevedran izan da Igamo Packaging taldearekin. Gazteen kategorian 24. postuan amaitu zuen lasterketa, helmugara bigarren tropeltxoan sartuta. Saiklapen orokorrean 36. postura aurreratu da modu horretan. Espainiako Kopako hurrengo saioa Leonen izango dute, apirilaren 22an.

# Iralabarriko errepide zati bat asfaltatu egingo dute

Udalak aditzera eman du Basabe industrialdearen eta Iralabarri plazaren artean egoera eskasean dagoen 70 metroko errepide tartea konpondu egingo dutela Pazko Astean; era berean, Santakurtz kaleko tunela gaur zabalduko dute ibilgailuendako

## Mirari Altube ARETXABALETA

Udalak asfaltatze-lanak egingo ditu Basabe poligonoan Pazko Astearen bueltan. Apirilaren 11rako, martitzena, daude programatuta lan horiek, eta Iralabarriko etxebizitzaren hasieraren eta barruko plazarako sarbidearen arteko paraleloa den errepide-zatian –Izartu tabernaraino– egingo dira. Egoera eskasean dago tarte hori; izan ere, autoen zirkulazioan eragiten duten hainbat zulo daude. 70 metro inguru berri-tuko dituzte, eta, horretarako, errodatze-geruza fresatu egingo dute, eta, ondoren, birjarri. Lanon ardura Excavaciones Arrasate enpresari eman dio Udalak eta 19.698 euroko kostua dute –BEZa barne–.

## Kalea, itxita

Udalak uste du ondo bidean aurreikusitako egunean egingo dela obra, eta egunean bertan hasi eta bukatuko dutela. Horretarako, erretiratu egin behar dira autoak asfaltatu behar den eremuan dauden aparkalekuetatik. Egun horretan, ibilgailuen zirkulazioan ere eragina izango duela aditzera eman dute, eta ezingo dela kaletik igaro Basabe jatetxetik Iralabarriko etxebizitzaren hasieraraino. Poligonoaren atzeko parteko bidea, ostera, zabalik egingo da.

Azbeiko bi autobus geltokiak ere mugitu egingo dituzte martitzen horretan; Urkulu urtegi-rako igoeran geratuko dira, Eroskiren atzealdean.

## Santakurtzeko tunela, zabalik

Bestetik, itxura berria duen Santakurtz kaleari azken ukituak ematen jarraitzen dute, eta gaur, egubakoitza, zabalduko dute tunela ibilgailuendako; horren irekiera atzeratu egin da bi astez, espaloi berria egonkortu arte autoek ez zapaltzea



Hainbat zulo Basabe industrialdearen eta Iralabarri plazaren arteko bidean. X. URZELAI



Kirolegiaren aurrealdeko skate parkea itxura berriarekin. MIRARI ALTUBE

## Markoleko skate parkea, berrituta

Markole auzoko berdegunean dagoen skate parkeak itxura berria du. Joan den astean hainbat konponketa egin zizkieten, eta, horiek borobiltzeko, margotu egin zuten. Behin lanok bukatuta, berriro erabilgarri dute skate-zaleek.

hobetsi delako. Tuneletik bueltan Arkuperen atzealdean dagoen aparkalekura joan ahal izango dira orain; Otalora kalera sartzeko ostera, Amets tabernako bidea erabili behar dute.

Hornidura eta Saneamenduko Plan Bereziaren lanek urtebete eta bi hilabete iraun dute eta kalearen azpialdea zein gainazala eraberritu dituzte. Martxoaren 17an zabaldu zuten, eta orain, amaitutzat emango dituzte lanak.



Mikel Uribeberria eta EAJko hainbat kide Durana kalean. ARETXABALETAKO EAJ

## Mikel Uribeberria Barrena izango da EAJren alkategaia

Udal kudeaketan eskarmentua du eta "ilusioz" heldu dio erronka berriari, herritarrekin "elkarlanerako prest"

### M.A. ARETXABALETA

Aretxabaleako EAJk Mikel Uribeberria Barrena aurkeztu du maiatzeko udal hauteskundeetarako alkategai. Alderdiaren babesa jaso du eta militanteek berretsi egin dute erabakia. Uribeberriak "gogotsu eta ilusioz" heldu dio erronkari, baita "proiektu sendoekin" ere: "Aretxabalearen aldeko apustua egiten dugu eta gure herritarrekin konpromiso sendoa dugu". Aretxabaletarrekin eta hango eragileekin "elkarlanerako prest" agertu da hautagai jeltzalea, "guztion artean etorkizuneko erronkei arrakastaz aurre egiteko". Haren "hurbiltasuna, kudeaketa eraginkorra eta kemena" nabarmendu dituzte alderdikideek.

### "Proiektu berriak" eskuartean

Azken urteetan herriak izan duen "hobekuntza" azpimarratu du hautagai jeltzaleak: "Begi-bis-

takoa da eraldaketa nabarmena izan duela, baina Aretxabaletak aurrera egiten jarraitzeko proiektu berriak ditugu, gizarte zerbitzuetan, ekonomian, jasangarritasunean zein udal ekipamenduetan".

Horretarako, "eskarmentu handiko" lantaldea izango du lagun: "Herritarren beharrak entzun eta haien eskaerei erantzun diegu, ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzeko proposamen, proiektu eta jarduerak berriekin".

### "Eskarmentua" duena

Udal kudeaketan "eskarmentua" du Uribeberriak hainbat agintalditan izan da eta zinegotzi. Ingeniaritza Teknikoko ikasketak egin zituen eta Cegasa Taldean proiektu zuzendaria izan zen. Gaur egun, Kudeaketa eta Plangintza zuzendaria da Foru Alderdiaren Bide Azpiegiturarako Departamentuan.

## Pilotari kadeteek finala jokatu dute gaur, Iturri Gorri

Udaberri Saria eskuz binakako pilota txapelketako finala jokatu dute gaur, egubakoitza, Iturri Gorri pilotalekuan, 19:00etan hasita. Hirugarren mailako kadetek jardungo dute; Manex Arana eta Iker Ortueta aretxabaletarrek aurrez aurre izango dituzte Lazkaoko Natale Aranburu eta Lide Lopez. Joan den astean Zumarragako bikoteari

22-14 irabazita lortu zuten finalerako txartela etxekoek.

Aurretik, infantilen errendimendu txapelketako bigarren mailako finala jokatu da, baina ez da UDAko pilotaririk izango han. Lazkaoko Estensorok eta Izagirrek jokatu dute Añorgako Makazagaren eta Pagolaren aurka.

Joan den egubakoitzean jokatutako finalurrekotan, ostera, Vallek eta Betegik ezin izan zuten mendean hartu Orioko bikote bat: 18-17 galdu zuten.





Ipurbeltz ikuskizunaren une bat. AMEZTU PRODUKZIOAK

# Umeendako antzezlanak apirilari ekiteko

Musikari, zinemari eta antzerkiari egingo diete lekua Arkupen datozen asteetan, eta, hasteko, zapatuan 'Ipurbeltz' lana izango dute neska-mutikoei; herriko idazleek ere hitzordu garrantzitsua izango dute Liburuaren Nazioarteko Egunaren bueltan

## Mirari Altube ARETXABAETA

Adin guztientzako istorioarekin izango da Ameztu Produksioak konpainia arabarra bihar, zapatua, Arkupen, 17:00etan. Hain zuzen ere, *Ipurbeltz* ikuskizun familiarrekin, "jolasaren, umorearen eta errespetuaren bidez" kolore eta ideia guztiek dutela lekua zabalduko dute Zaraia aretoko oholtzatik.

Ez da izango apirilean umeei eskainitako hitzordu bakarra. Kantu Kolore konpainiak *Peru krokodiloa* izena duen ikuskizuna eskainiko die, zuzeneko musikak lagun eginda, apirilaren 23an, 17:00etan. "Elkartasuna, adiskidetasuna eta errespetua" nabarmentzen dituen lana da, eta balio horien berri eman-goto dute.

Udal liburutegiak ere antolatu du hilabetero egiten duen umeendako ipuin saioa. Hala, Leire Catala Alonsok *Liburu magikoa* ikuskizuna aurkeztuko du apirilaren 26an, 4 eta 7 urte bitarteko haurrei zuzenduta, 18:00etan. Bertaratzeko, aurretik eman beharko dute izena interesatuek: hilaren 4tik 24ra bitartean, hain zuzen ere; izan

## Laburbirako filmak, 4an

Euskarazko film laburren zirkuitu ibiltaria, Laburbira 2023, apirilaren 4an iritsiko da Arkupera, 19:00etan. Euskal sortzaileek ekoiztutako zazpi film emango dira: *Olatuen isiltasuna* (Maria Bartolome, Erik Campos eta Fernando Martin); *Muskil* (Marina Perosanz); *Koadro goriari heldu* (Iulen Arana); *Irrits* (Maidar Oleaga); *Asko falta da?* (Ane Cuesta); *Hitzak* (Josu Martinez); eta *Erlojupekoa* (Leire Egaña). Oleagaren *Irrits* filmak Huhezinemako sari nagusia jaso zuen.

## Idazleen aurkezpenak

Liburuaren Nazioarteko Egunaren bueltan Aretxabaletako hainbat idazleek argitaratutako azken lanak aurkeztuko dizkiete herritarrei; apirilaren 23an izango da, domeka, Arkupen, 12:00etan. Jon Sarasua, Josune Murgoitio eta Judit Ruiz de Munain elkartuko dira. Bestetik, Karmelegartuaren obra jasotzen duen liburuaren azalpenak emango ditu Tere Irastorzak. Ondoren, Herriko Plazan egingo den literatur azokan liburuak sinatuko dituzte.

ere, gehienez 30 ikuslerentzat egongo da lekua.

## Musika tradizionala

Musikari dagokionez, Roberto Etxebarria musikari bizkaitarrak eta alaba Mirenek *Kolpatuz* izeneko hirugarren diskoa aurkeztuko dute apirilaren 21ean, 20:00etan. Musika tradizionala oinarri izanda, ikuspegi berritua duten kantua sortu dituzte. Hala, aitak eta alabak trikitiarekin eta panderoarekin jardungo dute, eta gitarrak, kontrabaxuak, mandolinak eta haize-instrumentuek egingo diete lagun.

## Estibaliz Urresolaren filma

Zinema komertzialak ere izango du lekua. Helduek bi film izango dituzte: *Mari (Dos)*, apirilaren 14tik 17ra; eta *20.000 especies de abejas*, 27tik 30era; azken hori

Estibaliz Urresola gasteiztarrak zuzendu du eta hainbat sari jaso ditu Berlingo Nazioarteko Zinemaldian eta Malagako Zinemaldian. Haurrek, ostera, *Oink Oink* izango dute apirilaren 15ean eta 16an; eta *Super Mario Bros*, apirilaren 29an eta 30ean.

## Margolanak erakusketa-aretoan

Bestetik, erakusketa-aretoan Maidar Urretabizkaia artista lazkaotarraren margolanak izango dira ikusgai astelehenean hasi eta hilabetea bukatu bitartean.

**'20.000 ESPECIES DE ABEJAS' FILMA EMANGO DUTE APIRILAREN 27TIK 30ERA BITARTEAN**

## Zerrenda prest EH Bilduk

Udal hauteskundeetarako osatutako zerrenda aurkeztu du EH Bilduk. Garikoitz Iturbe izango da haren buru, iragarritako legez, eta harekin batera honako hauek izango dira lehenengo hamar kideak: Nerea Zubillaga, Ion Albizu, Lorea Serrato, Ibai Zangitu, Ainhoa Sanchez, Angel Mari Etxabe, Ander Uralde, Lore Martinez eta Ainara Bilbao.



ARETXABALETAKO EH BILDU



Ibarraundi museoan, asteon, herritar bat erosketa-bonuak erosten. IMANOL BELOKI

## Herrian gastatzeko 2.500 bonu atera ditu Udalak

'Eskoriatza bizirik' kanpainaren baitan, astelehena ezkerro salgai daude erosketa-bonuak Ibarraundi museoan. Haietako bat da txartelarekin edo telefonoarekin soilik ordaindu ahal izango direla

**Imanol Beloki Unamuno** **ESKORIATZA** Adinez nagusiak direnek eta Eskoriatzan erroldatuta daudenek bonu bana erosteko aukera izango dute. Erosle bakoitzak 20 euro balio duen bonu bat erosteko aukera izango du, eta trukean 30 euro gastatu ahal izango ditu kanpainari atxikitako komertzioetan.

"Helburu bikoitza du egitasmo horrek: batetik, herritarrek diru pixka bat aurrezte; eta, bestetik, dirua herrian bertan geratzea. Guztira, 2.500 bonu jarri ditugu salgai, eta, martitzenerako 500 salduta zeuden arren, apurka-apurka badoa salmenta aurrera", adierazi du Nerea Aranak, Eskoriatzako Udaleko Garapen Jasangarri Saileko teknikariak.

**Parte hartu duten komertzioak** Gaur egun, kanpainari atxikitako establezimenduak honako hauek dira: Ixkur ile-apaindegia, Altuna harategia, Dorleta liburu-denda, Akeita, Pauxa ile-apaindegia, Donde Maria Coviran,

Kuttuna edertasun zentroa, Pagalday harategia, M&M, Kimu, Maulanda jatetxea, Ilargi taberna, Carmen mertzeria, Adam fruta-denda, Namaste belar-denda, Kiribil ile-apaindegia, Erai osteopatia, Aloña fruta-denda, Villar ile-apaindegia, Eroski City, Compostela taberna eta Goxo Txiki. Horrekin batera, antolatzaileek jakinarazi dutenez, bonuak herriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu establezimenduetan gastatzeko izango dira, loteria eta bestelako joko establezimenduetan, farmazietan eta estankonetan izan ezik.

Horrekin batera, bonuak erosi nahi dituenak nortasun agiria edo atzeritarren identifikazio zenbakia (AIZ) aurkeztu behar-

**ASTELEHENA EZKERO SALGAI DAUDE 'ESKORIATZA BIZIRIK' EROSKETA-BONUAK IBARRAUNDIN**

ko du eta bonuak kreditu txartelarekin edo telefonoarekin soilik ordaindu ahal izango dira. Ez da eskudirurik edo *bizum*-ik onartuko, eta, ezarritako ordutegian bonuak erosteko aukerarik izan ezean, salbuespen gisa, interesdunak nortasun agiria beste pertsona bati utz diezaike bonua eros diezai. Hala ere, erosle bakoitzak gehienez bi bonu erosi ahal izango ditu: harena eta hirugarren pertsona batena.

### Bonuak erosteko ordutegia

Bonuak erosteko ordutegia honako hau da: martxoaren 5era arte, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara, egubakoitz arratsaldeetan izan ezik. Apirilaren 11tik aurrera, berri, martitzenetan soilik salduko dituzte bonuak, 10:00etatik 13:00etara. "Aurten txanda bakarrean atera ditugu bonuak, eta urriaren 31 arte erabili ahal izango ditugu, nahiz eta herritarrek lehenago erabiltzea espero dugun".



Eskoriatzako osoko bilkuren aretoa, beteta, martitzenean. IMANOL BELOKI

## Agintaldia amaitzear dela, herritarren zenbait eskaera

Herriko nagusien beharrak kontuan hartzea eskatu zuten martxoko osoko bilkurara gerturatutakoek

### I.B. ESKORIATZA

Martxoko ohiko osoko bilkuran herritar ugari batu zen, baina, haiek hitza hartu aurretik, egunerako prestatutako gaiak tratatu zituzten udalbatzako kideek. Horietan azpimarratzekoak izan ziren dirulaguntzen plan estrategikoa aldatzea, batetik -hau da, Ikasklik! programa gauzatzeko partida onartzea-; eta EH Bilduk Uraren Nazioarteko Egunaren baitan aurkeztutako mozioa, bestetik. Azken horretan, Eskoriatzako Elizateen Elkarteak abstenitu egin zen EAJk ezezko bost boto eman zituen; eta EH Bilduren lau baiezkoekin, ez zen onartua izan.

### Erretiratuen taberna hizpide

Gai horiez gain, abenduan itxi zen jubilatuen taberna izan zuten berba galde-eskeen tartean, eta gaiarekin ardurata batu ziren herritarrek osoko bilkuren aretoan: "Behin COVID-19ak sortutako nahitazko isolamendu-aldi luzea amaituta, eta adin honetan hain beharrezkoak diren sozializazio-prozesuak nolabait berriro hasten direnean barkadade arazoak saihesteko, erretiratuen taberna eta kultura-etxe lokalak une txarrean itxi dira". Hala, jubilatuen taberna herriko nagusien euren elkargunea ere bazela esanda, honako galderak egin zizkieten udal ordezkariak: "Hartu duzue neurriren bat taberna irekitzeko? Zein ku-deaketa egin behar da?...".

Horren ildora, Josu Ezkurdia EAJko bozeramaile eta jarduneko alkate jardun zuenak honako hau erantzun zien: "Argi utzi nahi nuke erretiratuen taberna itxita egotearen erantzukizuna Udalarekin sinatuta zuen kontratua hautsi duen pertsonarena dela". Maite Uribe EAJko zinegotziak gaineratu zuenez, "Olazar Erretiratuen Elkartearen presidenteari eta idazkariarekin hitz eginda, mahai gainean jarri zuten Antzuolan dagoen sistema, esaterako, baina ez dago ezer erabakita. Haiek zer esango zain gaude. Etorri dira zenbait herritar informatzera, baldintzak jakiteko, baina ez dago eskaerarik". Horren baitan, Dorleta Sologaitoa EH Bilduko zinegotziak gaineratu zuen ondo legokeela amaiera-data bat ezartzea erabakia hartzeko. Ekarpina ondo ikusita, horrela utzi zuten gaia.

### Eskaera partikularrak

Erretiratuen tabernaz gain, animalien gaineko ordenantzagatik ere galdetu zuten; zirriborro bat eginda, martxan dagoela erantzun zuten, eta Aranburuzabala kalean errekan dagoen sastraka piloa ibaiaren pasoa traba egiten dagoela salatu zuten.

**JUBILATUEN TABERNA ITXITA, ETORKIZUN LABURREAN ZER EGIN NAHI DEN GALDETU ZUTEN HERRITARREK**

# Martxan da liztor asiarren aurkako kanpaina

Udalak liztor asiarraren aurkako kanpaina abiarazi du, erlezainekin elkarlanean. Guztira, 80 tranpa jarri dituzte, eta apirilaren 30ean aterako dituzte ondorioak. Harrapatutako liztorrak zenbatuko dituzte, eta tranpak eraginkorrak izan diren edo ez jakingo da

## I.B. ESKORIATZA

Liztor beltza ekosistemaren orekarako mehatxua da, erle arruntaren populazioan eragiten ari delako. "Hilabete honen baitan sortzen dira liztor asiar erreginak, eta haiek harrapatzeko jarri dugu martxan egitasmoa. Ez dakigu eraginkorra izango den, baina ezer egin gabe ezin gara geratu", adierazi du Fermin Lezetak, Eskoriatzako basozainak.

Liztor asiarrak erlauntzen sarretan egoten dira, zain; kanpotik nektarrez beteta datozen erleak harrapatzen dituzte eta barruan daudenei beldurra eragiten diete; ez dira irtetera auzartzen eta, azkenean, hil egiten dira. Erlezainek egindako kalkuluaren arabera, udan zeuzkaten erleen %50 inguru desagertzen zaie udazkenerako. Hortaz, erlezainak oso kezkatuta daude bertako erleei eraso egiten dien espezie horren ugaritzarekin, eta neurriak hartzeko antolatu egin dira. Hala, Eskoriatzako Udalarekin elkarlanean, udalerriaren 80 tranpa jarri dituzte eta jarraipena egingo diete. "Zenbait erlezainekin batu eta martxan jartzea erabaki dugu; herriko hainbat eremutan banatu eta tranpak jarri ditugu. Batez ere, erreka-zuloetan".



Ibarraundi museoko eraikinaren alboan jarritako tranpa bat. I.MANOL BELOKI

## Erreginak harrapatzeko tranpak

Tranpa horiek oso selektiboak dira eta bi zulo nagusi dituzte: liztor beltza baino handiagoa den bertako liztorra (*Vespa crabro*) ez da sartzen eta liztor beltza baino txikiagoak diren gainontzeko intsektuak irten daitezke. Liztor beltza sartu sartzen da, baina ezin da irten. Botila barruan likido gozoa jartzen da, liztorrak erakartzen dituena. Argazkiko tranpa, esate baterako, Ibarraundi museoarean eraikin alboan dago, eta egun gutxian zenbait liztor beltz erregina geratu dira

harrapatuta. "Tranpa selektiboak propio daude eginda liztor asiarrarentzat. Eraginkortasuna lortzea dugu helburu, eta ahalik eta gutxien eragitea gainontzeko intsektuei...".

## Orain da garaia

Liztor Beltzaren erregina gazteak hibernazio lekutik ateratzen dira orain, eta apirilean eta maiatzaren haietako bakoitza habia bat eraikitzen hasten da. Beraz, liztor beltzaren aurkako tranpak martxoaren 1etik apirilaren 30era jartzen dira.

## Gazte Eguna jendetsua

Joan den zapatuan ospatu zen lehenengoz Gazte Eguna. Itzartu Gazte Asanbladak antolatuta, herrian izan diren mugimenduak aztertzeko solasaldia izan zuten, herri bazkaria, baita Itzartu taldearen emanaldia eta Youth United talde gaztearen estreinaldia ere, kontzejupean. Amaitzeko, musika-pintxada kolektiboa egin zuten, Inkernun.



I.B.

# LEINTZ GATZAGA | 19

## Milioi erdiko aurrekontua onartu dute Hautesle Elkarteko kideek

San Migel plazako Udalaren lokaletan komunitate lanen zatira bideratuko dute inbertsio handiena: 5.300 euro

### Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Martxoko osoko bikuran onartu zuten Leintz Gatzagako Hautesle Elkarteko kideek 2023ko ekitaldirako aurrekontua; 536.766,19 eurokoa da, eta iazko ekitaldiarekin alderatuta %18 txikiagoa da. "Idatzi nahi diren plan zinegetikoak eta baso-planak baldintzatuko dute hasierako aurrekontuaren sarreren estimazioa", adierazi du Gotzon Goikoetxeak, Leintz Gatzagako Udaleko idazkariak.

2023ko aurrekontuetako balantzeari erreparatu, pertsonal gastuetara 179.500 euro inguru bideratuko dituzte udalbatzako kideek; ondasun arruntetan eta zerbitzuetan izango dituzten gastuak 284.600 eurokoak izango dira; transferentzia arruntetan, 48.000 euro; inbertsio errealetan, 23.700 euro; eta kapital transferentzietarako 945 euro bideratuko dituzte.

### Proposamenak garatzen

Diru kopuru handiena Olaun-Dorletako baserri ura eramateko -4.000 euro- eta San Migel plazako Udalaren lokaletan komunitate lanen zatirako -5.300 euro- bideratuko dutela jakinarazi dute. "Hiru edo lau etxetan ur barik geratu gara eta lan horietara bideratzeko inbertsioa egin dugu. Behin-behineko irtenbide gisa bideratu dugu ura beste toki batetik, baina lanak egiten ari dira egun hauetan. Gaur egun, hori da esku artean dugun inbertsioetako bat; gainontzekoei dagokionez, baditugu beste hainbat proiektu, eta horiek garatzen ari gara. Esaterako, udaletxeko eraikinean eta pilotalekuan eguzki-plakak jartzea aztertzen ari gara; dirulaguntza bat ere iritsi zaigu baserri-bideak konpontzeko...", adierazi du Jon Sasiainek Gatzagako jarduneko alkateak.



San Migel enparantzako ikuspegia, udaletxe alboan. I.B.

## 'Munduko hizkuntzen basoa' proiektuaren berri emango dute

*Munduko hizkuntzen basoa* izeneko proiektuaren berri emango du Jon Sarasuak Leintz Gatzagako kultura etxean. Gaur, egubakoitza, izango da hitzordua, 18:30ean.

"Munduko hizkuntza guztiak batzen dituen baso bat sortzea da proiektuaren oinarria, eta proiektu hori aurrera eramateko Gatzagan egitea begi onez

ikusten da; Hiruerreketa inguruan. 7.000 hizkuntza daude munduan, eta zuhaitz bakoitzari hizkuntza bat egokitzea eta hizkuntza horren gaineko azalpen bat ezartzea izango da oinarrian proiektuaren ardatza. Hori, proiektuari dagokionez, baina, lehenbizi, herritarrei aurkeztu nahi diegu egin nahi dena, eta jakin ea begi onez ikusten duten. Horren ostean, etorriko dira gerokoak...", adierazi du Juanito Bengoak, Gatzagako Mendi zinegotziak.

# "Zaintzen krisiari" aurre egiteko plana, aho batez

Zaintza-plana martxan jartzea onartu zuen udalbatzak asteleheneko bilkuran, talde politiko guztien babesarekin. Farapi kooperatibak iazko uztailan abiatu zuen lanketa; EH Bilduk dio "lehen urrats txiki bat" dela: "Erpin asko ditu gaiak, eta asko dugu hobetzeko"

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA "Zaintzen krisiari" aurre egiteko lehen ekintza-plana aho batez onartu zuen udalbatzak asteleheneko bilkuran. Udal Gobernuaren arabera, garaia da zaintzaren gaia agenda politikoaren erdigunera eramateko; are gehiago, pandemiaren ondorioak ikusi eta Martxoaren 8ko aldarrikapenekin bat egin ostean: "Zaintzaren inguruan, jaiotzen garenetik hiltzen garen arte, intentsitate handiagoarekin edo gutxiagoarekin, denok daukagu zaintzaren beharra, pandemiak argi utzi zuen bezala. Eta guztiok dugu zaintzeko gaitasuna. Erpin asko ditu gaiak eta asko dugu aldatzeko eta hobetzeko. Familiarengan dago ardura, eta, bereziki, emakumeengan. Merkantilizatu ere egin da emakumea modu masiboan lan-munduan sartu denean".

**Diagnostikoa pandemian eskatu** EH Bilduko bozeramaile Nagore Iñurategiren arabera, astelehenen onartu zen zaintza-plana "pauso txiki bat" da: "Lehen aldiz modu ordenatu eta sistematikoan erdigunera ekarriko dugu gaia; badago agenda bat zaintza-plana gauzatzeko. Sortu den modu berean gauzatu da plana, norbanakoekin eta eragile-



"Zaintzen krisiari" aurre egiteko ekintza-planaren bozketak; aho batez onartu zen. J.B.L.

kin elkarlanean. Gai batzuk Udalaren eskumenekoak izango dira, neurri handi baten, baina beste batzuk elkarlanean egingo dira herritarrekin batera".

Izan ere, 2020an zaintzaren errealitatea ezagutzeko diagnostikoa eskatu zuen Udal Gobernuak, eta, diagnostiko haren emaitzak ikusita, 2022an erabaki zen plan bat egin behar zela. Emakunderi diru-laguntza eskatu zitzaion, eta Farapi kooperatiba kontratatu du Udalak plana osatzeko. 2022ko maiatzean abiatu zuen lanketa barne mai-

lan Udalak, eta uztailen hasi zituen lan-saioak arlo horretan dabiltzan eragile eta norbanakoekin eta modu batera edo bestera gaiak zuzenean eragiten dienekin.

**Oposizioa: "Enegarren plana da"** Oposizioak begi onez ikusten du zaintza-plana abiatu izana, baina mesfidati ere badaude; diotenez, "agintaldiko enegarren plana" da. EAJko eledun Maite Agirrek honelaxe azaldu zuen: "Urte luze baten lanaren emaitza da eta uste dugu berri ona dela.



Regularización ya! ekimeneko kideak udaletxean, Martxantereekin. J.B.L.

## Esplotazioaren aurka, erregularizatu

**Regularización ya!** plataformako kideek hitza hartu zuten, Espainiako Diputatuen Kongresuari 470.000 bat atzerritarren erregularizazioaren gaineko eskaeraren berri emateko. Luciana Alfarak azaldu zuenez, 2022an 70.000 sinadura baino gehiago lortu zituzten Euskal Autonomia Erkidegoan egoera irregularrean dauden atzerritarrak erregularitzeko. "Eusko Legebiltzarrean herri ekinaldi legegile bat martxan jartzeko 10.000 sinadura behar dira eta guk 70.000 lortu ditugu; herritarren babesa badugu, orain talde politikoena behar dugu. Badakigu egoera irregularrean egoteak lan-esplotazioa dakarrela, besteak beste". Aurrera egin zuen proposamenak: EH Bilduk aldeko botoa eman zuen, EAJ abstentitu egin zen –Legebiltzarrean EAJK, EH Bilduk, PSE-EEK eta Podemosek onartutako mozio bat aurkeztu zuten jeltzaleek Bergaran– eta PSE-EEK kontra bozkatu zuen.

Orain, baina, plan berri bat martxan jartzea izango da erronka. EH Bilduk agintaldian zehar hainbat plan jarri ditu martxan, baina horietatik ia bat bera ere ez dute gauzatu; adibidez, mugikortasun-plana, turismo-plana... Ikusiko dugu zaintza-planarekin zer gertatzen den".

PSE-EEko Alberto Alonsok ere Agirreraren antzeko irakurketa egin zuen: "Udal Gobernu honen agintaldiko enegarren planaren aurrean gaude. Analiaren menpeko paralisia da Udal Gobernu honen marka.

Ondo ikusten dugu planifikatzearena, baina agintaldi amaierara heldu gara ia, eta planifikatu besterik ez dute egin. Hala ere, ondo ikusten dugu bide-orri bat zehaztea; hurrengo Udal Gobernuak jarri beharko du lanean gai horretan ere".

**2020AN EGINDAKO ZAINZAREN GAINEKO DIAGNOSTIKO BATEN EMAITZAK IKUSITA SORTU DUTE PLANA**

## Herbehereetan, trukeari esker

Mariaren Lagundiko DBHko 44 ikasle Warnsveld hirian (Herbehereak) egongo dira bihar arte, apirilak 1. Martxoaren 25ean joan ziren, hango eskolarekin adostutako elkartruke-programa bati esker. "Esperientzia ahaztezina ari da izaten ikasleentzat, ezin dugu-eta ahaztu ekimenon helburua ikaslearen garapen integrala dela; asko ari dira gozatzen".



MARIAREN LAGUNDIA

# OSASUNA



**Gorputza eta  
adimena zaintzen**

Bizi-ohitura egokiak izatea lagungarria da osasuntsu egoteko





# Arreta eskaini beharko genioke bizkarrari

Bizkarreko minaren intentsitatea aldatu egiten da jatorriaren eta patologiarene araber. Zenbait kasutan, makurtzeak, biratzeak, pisua altxatzeak, zutik egoteak edo oinez ibiltzeak okertu egin dezake. Zorionez, badira lagun dezaketzen tratamenduak

Bizkarreko mina da osasun-konsulta egiteko arrazoi ohikoenetako bat. Larritasunaren araber, gainera, egunerokotasuna nabarmen muga dezake eta gaixotasun-baimen askoren iturria izan ohi da. Gehienetan, ordea, ez zaio beharrezko arretarik eskaintzen.

Lehenengo eta behin, jakin behar da mina zerk eragiten duen, eta pazientearendako ez da erraza bereiztea arazoa gainkargak edo muskuluen kontraktura batek eragindakoa den edota zerbait serioagoa den. Horregatik, garrantzitsua da lehenbailehen bizkarrezurrean aditua den espezialista baten-

gana jotzea. "Fisioterapia aktiboak erabat alda dezake egoera", diote Euskadiko Fisioterapeuten Elkargotik. "Fisioterapiak askotariko onurak ditu: muskuluak indartzea, elastikotasuna areagotzea, antsietatea eta estresa murriztea, osasun mentala hobetzea, patologia batzuei aurre hartzea eta lo egiten laguntzea, besteak beste".

**LEHENENGO ETA BEHIN, JAKIN BEHAR DA MINA ZERK ERAGITEN DUEN; JATORRIA ZEIN DEN**

Debagoienean hainbat zentro espezializatu daude. Horien artean daude hamar urte bete berri dituen eta Aretxabaletan kokatutako Athlon bizkar klinika, Arrasateko Abian fisioterapia zentroa, Bergaran eta Arrasaten egoitza duen Sane fisioterapia zentroa eta Bergarako Oreka fisioterapia zentroa.

#### Teknika berritzaileak

Bizkarra sistema konplexua da. Zenbait patologia, gainera, kronikoak izan daitezke eta minaren intentsitatea aldatu egiten da paziente batetik bestera. Tratamendu eraginkorra egiteko, lehenengo eta behin, mina



Gazte bat bizkarreko minez. ADRIAN STEF

eragiten duen benetako jatorria zein den zehaztu behar da. Diagnostikoa egin ostean aukeratu du tratamendu egokiena profesionalak. Esku-hartzeak askotarikoak izan daitezke. Horien artean daude kontrol mo-

torreko ariketak, postura zaintzeko tratamenduak, bizkarrezurrari presioa kentzeko ariketa abdominal hipopresiboak, eskuzko terapia osteopatikoa... Tratamendu aukera zabala dago gaur egun.

634 646 538

[clnicasathlon.com](http://clnicasathlon.com)  
[aretxabaleta@clnicasathlon.com](mailto:aretxabaleta@clnicasathlon.com)

Ibarra Kiroldgia  
Markole auzoa z/g  
20550, Aretxabaleta, Gipuzkoa

Back Clinics  
Bizkar Klinikak  
Clínicas de Espalda

## Bizkarreko minik baduzu?

Athloneko bizkar kliniketan dugu zure minarentzat konponbidea

**BIZKARREKO MINAREN AURKAKO TEKNOLOGIA NORDIKO BERRITZAILEA**

RPS zbkia. 204/18

# Ikusmena zaintzea eta aztertzea komeni da

Adinez nagusia edo gaztea izan, betaurrekoak izan edo ez, lentillak erabili edo ez; ikusmen-azterketak sarritan egitea komenigarria da, etorkizunean patologiak izatea saihesteko. Gurean optika zentroek ematen digute aukera

Ikusmenak aukera ematen digu aurrean duguna ikusteko, eta, era berean, begiak dira gure egunerokotasunean gidatzen gaituztenak. Haiek ondo zaintzea, beraz, oso garrantzitsua da, ikustea askok nahiko luketen altxorra baita. Eta, esaterako, betaurrekoak izan edo ez, ikusmenaren zaintza bera da guztionez. Gurean profesional asko daude horretan aritzen direnak; Bergarako Zabala Optika da haietako bat, non begien azterketa egiteko aukera ematen duten.

Gaur egun, gainera, pantailei lotuta bizi garen gizartean, ezinbestekoa da burua altxatzea,



Ikusmen-azterketa egiten.

denbora luzeegia ematen dugulako gertuko distantziara begira, eta horrek esfortzu handiagoa eskatzen die gure begiei. Hori dela eta, Zabala Optikakoek diote "distantzia luzeko" aktibitate gehiago egin beharko genituzkeela; era berean, lanean gaudenean noizbehinka leihotik begiratzea ere "onuragarria" dela adierazi dute.

## Ikusmena zaintzea, beharrezko

Txikitan arazoak ez izan arren, gure begiek ere adinean aurrera egiten dute eta adinak ez du inor barkatzen; ongi zaindu ezean, arazoak agertzen joaten dira. Hori dela eta, behar denean eta, batez ere, adinean aurrera goazenean oftalmologia-zentroetara joatea "gomentatzen" dute Optikakoek, ikusmenaren barruko egitura nolakoa den jakiteko.

## IKUSMEN ARAZOAK EKIDITEKO, OPTIKA ZENTROETAN AZTERKETAK SARRI EGITEA KOMENI DA

Optikak "sarritan" bisitatzea azpimarratu dute, graduazioa ondo dagoela ziurtatzeko. Hori egin ezean, batzuetan, agertzen dira graduazioa txarto dutenen kasuak; batzuek gehiegizkoa izaten dute eta beste batzuk berri, gutxiegi, eta horrek ikusmen-sistemari lan handiagoa eskatzen dio. Gainera, buruko mina eta begietako molestiak eragin ditzake.

## Lentillak berritu

Betaurrekoez gain, pertsona asko dira lentillak erabiltzen dituztenak, baina, askotan, haien erabilera okerra egiten dugu; kasu horretan ere, gure ikusmenaren arazoak eragiten ditu. Betaurrekoak berritu behar diren bezala, lentillak ere aldatu beharra dago, eta haiek behar den garaian aldatzeak arazo asko saihesten dituela azpimarratu dute Zabala Optikakoek.

Eta azken gomendioa da lentillen errebisioak egiten jarraitzea, erabiltzaile askok uste baitute behin eginda bizitza osorako balio dutela; alegia, ez dira ohartzen ikusmenari arazoak eragiten ari direla.

RPS: 227/18

**ESTELLA**  
ORTOPEDIA SEKZ.

Ander Estella, ortopedia teknikari tituluduna  
OSAKIDETZAREKIN  
HITZARTUTAKO ZENTROA

**Eguneroko bizitzarako laguntzak**

**Mastektomia produktuak**

**Rollator**

**Aulki gurpildun elektrikoak**

Matxiategi 5, 20570, Bergara • 943 76 19 63 – 688 899 851 • [consultas@estellafarmazia.com](mailto:consultas@estellafarmazia.com) • [www.estellafarmazia.com](http://www.estellafarmazia.com)

**sane**  
fisioterapia

- Zoru pelbikoan adituak
- Haurdunaldia eta erditzea
- Lanketa posturala
- Fisioterapia orokorra
- Entrenamendu pertsonala (Arrasate)

Iparragirre 4 • BERGARA • 688 63 37 32 • [sanebergara@sane fisioterapia.com](mailto:sanebergara@sane fisioterapia.com)

Usaetxe plaza 5 • ARRASATE • 613 26 71 86 • [sanearrasate@sane fisioterapia.com](mailto:sanearrasate@sane fisioterapia.com)

RPS: 04/23





Urrats Podologia Zentroaren irudi bat.

# Urtaro guztietan zaindu behar dira oinak

Oinen bitartez egiten dugu bizitzan aurrera, baina, tarteka, haiek ere sufritzen dute. Zainketa ona egin beharra dago urte osoan. Podologia zentroek laguntzen dute oinak egoera onean mantentzen eta etorkizunean izan ditzakegun arazoak saihesten

Eguraldi ona iristearekin batera, gure oinak egunerokotasunean ikustera ohitzen gara, eta jende asko orduan ohartzen da bere oinen egoera ez dela onena. Horren ondorioz, gure oinen zainketa ona egitea, urte osoan zehar ezinbestekoa da; are gehiago, uda garaian, aire librean sufritzen baitute gehien. Berandu ibiliz gero, arazoei konponbidea emateko aukerak ere zaildu egiten dira, eta zuzenean gure osasunean eragina izaten du horrek.

Oñatiko Urrats Podologia Zentroan espezialistak dira horretan, baina lana etxetik egin beharra dagoela azpimarratu dute: "Gure oinak osasuntsu egoteko, neguan ere hidratazio maila mantendu beharra dugu haietan, ondoren zaila izaten da eta urte osoko zainketak egitea".

**UDA GARAIAN EZ EZIK, OINEN ZAINKETA EGOKIA URTE OSOAN ZEHAR EGIN BEHARRA DAGO**

## Oinetakoen garrantzia

Oinen zainketa, ordea, ez da soilik hidratazio kontua. Gure oinak egunero mugimenduan daude eta ezinbestekoa da oinetako egokiak erabiltzea. Gainera, askotariko ariketa eta ekin-tzak egiten ditugu eta bakoitzarako oinetako aproposak erabiltzeak ere arazoak izateko aukerak murrizten ditu.

## Zainketarako gomendioak

Berandu izan baino lehen, norberak du aukera oinak ondo zaintzeko, eta badira horretarako kontuan hartu beharreko gomendio batzuk. Aurretik aipatu bezala, oinak hidratatuta mantentzea oso garrantzitsua da; krema baten bidez, esaterako. Oinetako egokiek ere arazoak ekiditeko aukera ematen dute. Eta, patologiaren bat izan edo ez, urtean behin bada ere podologia-zentro batetik pasatu eta begirada bat ematea ere gomendatzen dute. Patologiaren bat edo arazoak dituztenek, aldiz, sarriagotan joateko ohitura izan beharko lukete, oinen egoerak okerrera egiterik nahi ez badute.

RPS: 215/18



**ARDENT S.L.**  
ARREGI HORTZ KLINIKA  
ODONT. OLAIA ORBEGOZO  
Bixente Ferrer kalea 3, behea  
ARRASATE - 943 79 71 90

Inplantologia  
Ortodontzia ikusezina  
Periodontzia  
Protesiak  
Hortz estetika  
Laser bidezko hortzen zuritzea  
**PADI**



Arantzazuko Ama 19 A - OÑATI  
Tel.: 943 53 36 37  
[www.urratspodologia.com](http://www.urratspodologia.com)

- Oinatzen azterketa
- Oin diabetikoak
- Kirol podologia
- Haurren podologia
- Oin zola pertsonalizatuak
- Kiropodologia
- Azazkalen kirurgia
- Ekografia

RPS: 275/18

# Egunerokoa errazteko laguntza tekniko sorta

Hezurak, muskuluak eta azala zaintzeko produktu osasuntsuak saltzen dituzte famazia-ortopedietan. Paziente bakoitzaren beharretara egokitzen iaioak dira, esaterako, Bergarako Estellan. Kremak zein aulki gurpildunak, denetik daukate

Ortopedia, jatorrian, lokomozio-aparatuaren arazo eta gaitzez arduratzen den espezialitate medikoa da, baina gaur egun zentzu zabalagoan ulertzen da, ohitura osasuntsuak barnebiltzen baititu. Bergarako Estella farmaziako ortopedia sailean, adibidez, kirolarientzat diseinatutako produktu ugari daude: energia handiagoa lortzeko elikadura osagarriak, baita giharretako mina gutxitzeko krema, kinesio-benda eta partxe termikoak.

Nolanahi ere, mugikortasun murriztua duten pertsonen informazio baliagarria eskura dezakete han. Ohe artikulatuak,



Estella ortopedian eskura daitezkeen bi aulki motordun.

dutxarako aulkiak, ultzerak prebenitzeko koltxoiak, motordun gurpildun aulkiak... Norbere ezaugarrietarako egokienak diren produktuak eskuratzea ez da erronka makala, eta ortopediako profesionalak aholkularitza pertsonalizatua eskaintzen dute. "Izan ere, pazienteak euren edo beste senide baten eguneroko bizitza errazteko laguntza teknikoak bila etortzen dira, eta guk galdera zehatzak egiten dizkiegu, gero eta informazio gehiago jakinda lortzen baitugu haien zat egokiena izan daitekeen produktu hori eskaintzea", adierazi du Ander Estellak.

Lesioak saihesteko gomendioak ematen ere espezialistak dira, jendearen bizitza errazagoa egite aldera, etxebizitzetan zein laguntza tekniko eduki ahal diren aholkatzen dute eta. Etor-

**ERORKETAK  
SAIHESTEKO  
GOMENDIOAK EMATEN  
ADITUAK DIRA  
ORTOPEDISTAK**

kizun batean istripurik ez gertatzeko edota erorketak prebenitzeko bastoiak edo taka-takak ere eskura dauzkate, gainera: "Gizartean gero eta garrantzi handiagoa duen sektorea da gurea; izan ere, biztanleria zahartzen ari denez, mugitzeko zailtasunak dituztenen kopurua gorantz doa".

Kontuan hartu behar da, bestalde, izendatutako salgaiak erosteagatik dirulaguntzak eskaintzen dituztela Osakidetza eta Gipuzkoako Foru Aldundiak.

## Azala, askoren ardura

Bezero bakoitzaren behar konkretuen azterketa azaleko produktuen bila doazenekin ere egiten dute. Azalaren osasuna analizatuta, hidratatua dagoen edo ez ikusten dute, eta, horrela, produkturik egokiena eskaini: "Oporren bueltan etortzen zaizkigu eguzkitako zein azala hidratatzeko kremez galdezka, gehienbat. Orain, Aste Santua ate joka dugula, galdera gehienak gai horren bueltakoak dira. Jendeak badaki dibertsifikazio handiko saltokia garela".



Euskal Herria 3, behea  
Arrasate

Tel.: 943 79 44 22

[www.udalaiz.com](http://www.udalaiz.com)

[inform@cmudalaiz.com](mailto:inform@cmudalaiz.com)

RPS 238/19 - 238/19

**Espezialitate medikuak**  
**Azterketa psikoteknikoak CRC SS0048**

**Diagnosi-probak**

**COVID-19aren probak**



RPS: 63/19



**INPLANTOLOGIAKO  
ESPEZIALISTAK 3D  
TEKNOLOGIA BERRIENAREKIN**

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN  
ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

DURANA KALEA 22 • ARETXABAETA • TEL.: 943 79 93 55



Ikasgela batean, ikasle bat eskua altxatuta, hitz egiteko txanda eskatzen.

# Adimen gaitasun handiak eta emozioak bideratzen

Haurren eta aurrenerabeen artean adimen gaitasunak dituztenekin esku-hartzea egiteko, ikastetxeetan identifikazio-protokoloak martxan dauzkate. Halako kasuetan orientazioa ematen du, besteak beste, Oñatin dagoen Ezagutzen zerbitzuak

Haurren ikasteko zein komunikatzeko orduan ezohiko portaeraren bat hautematen bada, hobe izaten da ahalik eta modurik egokienean erantzutea sor daitezkeen zalantzei. Prozesu horretan laguntza eskaintzen du Lourdes Sarasketa Osa hezitzaileak, Ezagutzen zerbitzuaren bitartez.

Dioenez, bereziki gurasoak bertaratzen dira haren bulegora, eta adimen emozionalari eta gaitasun handiko adimenari heltzen diete: "Lehenengoa orokorragoa da, eta, besteak beste, seme-alaben haserreak dakartzan jarrera desegokiak lantzeko aproposa da; egunerokotasunean aplikatzeko gomendioak ematen ditut". Semeek edo alabek 10 urte baino gehiago baldin badauzkate, presente egoten dira saioetan, "koherentzia egoteko".

**BIZTANLERIAREN  
%15-20K DU ADIMEN  
GAITASUN HANDIA,  
BAINA GUREAN %0,28  
DAGO IDENTIFIKATUTA**

## Gaitasun handikoak

Badira haurren jarrera batzuk adimen gaitasun handia izan dezaketela adierazten dutenak. "Justiziaren zentzu handia dute, eta kuriosoak, autonomoak eta oroimen oso onekoak dira, frustrazioarekiko tolerantzia gutxi-koak eta sentikortasun handikoak arlo sentsualean, psikomotorrean, intelektualean, irudimeanean edota emozionalean", azaldu du Sarasketak. Nortasunaren arabera, barnerakoiak edo kanporakoiak izan daitezke, edo arreta-falta zein hiperaktibitatea pairatu, eta beste batzuek, ordea, horren itxura azaldu.

Kasuistika zabala da, eta ikastetxeetan protokolo berezia dute halakoak identifikatzeko, erantzunik eman ezean porrot akademikorako zein desoreka emozionalerako eta sozialerako arriskuak areagotu egiten baitira: "Orduan, gurasoak Ezagutzen zerbitzuarekin harremanetan jar daitezke, saio bakarrean kasua ikertu, erantzun bat jaso eta, behar izanez gero, psikologoengana bideratzeko, ebaluazio psiko-pedagogikoa edo, agian, terapia ere jaso dezaten".

**ABIAN**  
FISIOTERAPIA ZENTROA

**TALKA UHINAK**  
Masajeak - Errehabilitazioa  
Auto istripuak - Indiba Activ  
Drainatze linfatikoa  
Kinesiotaping-a

**Saioa Baena / Kizkitza Lasa / Arkaitz Zeziaga**

Lapurdi kalea 9 -11, behea • ARRASATE - Tel.: 943 79 97 44

RPS: 183/18

**ezagutzen**  
adimen emozionala  
adimen gaitasun handiak

San Lorentzo 98, behea  
20560 OÑATI  
Hitzordua: 669 360 558  
Lezagutzen@gmail.com

**ZATOZ IKASTERAI!**

**ADIMEN EMOZIONALA**

- Emozioak kudeatu ONGIZATE baterako
- Gatazken konponketa
- Autoezagutza
- Autoestimua
- GURASOA bazara, haien erreferentea zara, ZUGANDIK ikasiko dute

**ADIMEN GAITASUN HANDIAK**

- NOLAKOAK dira haur hauek?
- EZAGUTZEN dituzu? Jakingo zenuke IDENTIFIKATZEN?
- Badakizu zeintzuk diren beraien BEHARRAK? akademikoak izango lirateke soilik edo beste arloren batean ere bai?
- LAGUNTZARIK behar dute?

*Lourdes Sarasketa*

# Prebentzio egokia, gaixotasunen sendagarri

Osasunean prebentzioa ezinbestekoa da. Medikuntza prebentiboaren helburu nagusia da osasun-arazoak kontrolpean edukitzea. Alde horretatik, noizbehinka osasun-azterketa egitea oso garrantzitsua izaten da osasun-egoera zein den jakiteko

Denoiz gustatzen zaigu osasuntsu egotea. Gaitza harrapatzekotan ere, ahalik eta arinen pasatzea izaten da helburua. Osasunean eragina duten faktoreak asko dira, eta, esaterako, adinaren eta genetikaren faktoreak kontrolaezinak dira. Hala ere, bi-zi-ohitura osasuntsua eramanez gero hainbat gaixotasun saihestu daitezke. Alde horretatik, prebentzioa da, askotan, gaitzen sendagarri. Hain justu, 1994a ezker ari da Udalaiz Zentro Medikoa Debagoienean osasun-zerbitzuak eskaintzen. Gaixotasunak diagnostikatu eta prebenitzen ditu espezialistak, eta orain arte egin duten ibilbi-



Emakumezko bat azterketa medikua egiteko prest.

de arrakastatsua da haien ezagarririk nabarmenena. Pandemia garaian, COVID-19a detektatzeko probak ere egin zituzten. Hasi zirenetik, berrikuntzaren aldeko apustua erabatekoa izan da.

## Punta-puntako probak

Udalaiz Zentro Medikoa eskaintza zabala da, langile kualifikatuak dituzte eta, gainera, punta-puntako makinak erabiltzen dituzte, bezeroari ahalik eta lasterren gaitza diagnostikatzeko. Arrasateko Euskal Herria plazako 2. zenbakian dagoen egoitza nagusian, gaixotasunak detektatzeko kalitatezko zerbitzuak eskaintzen dituzte: analisi klinikoak, erizaintza, kontsulta medikoa, erradiologia, mamografia, OTA eta hezurren dentsitometria. Horrez gain, irudi bidezko proba guztiak digitalizatu egin dituzte; hau da,

**GAIXOTASUNAK  
DIAGNOSTIKATU ETA  
PREBENITZEN DITUZTE  
UDALAITZ ZENTRO  
MEDIKOAN**

erradiografiak, mamografia, OTA eta erresonantziak. Ondorioz, ez dago plakak errepikatu beharrik, eta emaitzak askoz zehatzagoak dira. Udalaiz Zentro Medikoa erabat sinisten dute teknologiaren aurrerapenean, eta ahalegin berezia egiten dute bezeroari punta-puntako diagnostiko sistema eta tratamenduak eskaintzeko.

Horrez gain, Nafarroa etorbideko 3. zenbakian erresonantzia zentroa dute. Erresonantzia magnetikoak eta birgaikuntzak egiten dituzte han. Egoitza hura txikiagoa da, baina zerbitzu asko ematen dituzte: analisi klinikoak, kontsulta medikoa, erresonantzia magnetikoak, ekografiak eta osasun azterketak, hain zuzen.

Zalantzarik gabe, Udalaiz Zentro Medikoa aukera ona izan daiteke osasun egoeraren diagnostiko azkar eta zehatza egiteko. Beti da erabaki ona osasunean inbertitzea, eta Arrasateko zentro medikoa gaixotasunei aurre egiteko berme segurua da. Ia hogeita hamar urte dira zerbitzu medikoak eskaintzen hasi zirenetik.



**M<sup>a</sup> Angeles Mendizabal**  
**H** **AHO SENDAGILEA**  
Implantologia konbentzionala eta gidatua  
Odontologia estetikoa  
Periodontzia

**Leire Errasti**

Odontologia orokorra  
Ortodontzia

Arantzazuko Ama 2C-behea • 20560 Oñati • Tel.: 943 71 60 71 • mendikorta@outlook.com



**FISIOTERAPIA**

**OSTEOPATIA**

**ERREHABILITAZIOA**

**LOGOPEDIA**

Arantzazu Ilzarbe Garcia Fisioterapeuta - Osteopata ELK. Zenb. 1617  
Lierni Errasti Iraegi Fisioterapeuta ELK. Zenb. 1727 - Logopeda ELK. Zenb. 480205  
Nerea Najera Larrañaga Fisioterapeuta - Osteopatia ELK. Zenb. 3279

Oxirondo plaza 3, 20570 Bergara • 943 76 71 74 • oreka\_bergara@hotmail.com

# Kukubaso: bi urte lanean basoak errekuiperatzen

2021eko maiatzean sortu zuten bertako basoak berreskuratzea helburu duen elkarte. Bertako kide Ainhoa Agirrebeñak orain arte egindakoak errepasatu ditu, eta aurrera begira jarri da: "Pedagogia-lan izugarria geratzen zaigu egiteko"

**Xabier Urzelai Atxa** BERGARA

Kukubaso elkarteak deituta, pasa berri den asteburuan egin dute azken landaketa Agirretxeberriko lurretan, eta 30 lagun inguru batu dira. "Oso pozik gaude halako landaketetara batu izan den jende kopuruarekin; beti egon izan gara talde polita. Oraingoan ere 30 lagun inguru batu ginen, eta zuhaitz berriak landatzearekin batera txoriendako txabolak jartzen ere ibili ginen. Egia da goizean zaparrada ederra bota zuenez batek baino gehiagok azken orduan atzera egin zuela, eta, hala ere, talde polita batu zen", dio Agirrebeñak. "Azken landaketa izan da hau, halakoak egiteko sasoia amaitu da, negua izaten delako garai ona, eta dagoeneko tenperatura altuak ditugu. Hala, Agirretxeberriko lurretan egin ditugun landaketetan askotariko lanak egin ditugu. Lursailaren goialdean haritza, astigarra... landatu genituen. Eta abenduan egin genuen landaketa lursail hartako behealdean ibili ginen. Uste dugu lehen artadi bat egon zela han, harri askoko lursaila dago behealde hartan, eta artea landatzen ibili ginen. Eta egia da halakoetan zuhaitz eta landare ezberdinak landatzen saiatzen garela, baso heterogeneoak izan daitezten, eta, horrekin batera, landaketak ere momentu ezberdinetan egiten ditugu. Hala, Agirretxeberriko lurra nahiko osatuta geratu dira; zaintzen joan beharko dugu orain".

**Herri-lurra berreskuratuz**

Kukubaso elkartearen helburu nagusietako bat da herri lurra berreskuratzen joatea, eta zeregin horretan Udalarekin elkarlanean dabilta. "Udalak hainbat lursail pribatu erosi zituen iaz, eta haiek berreskuratzen joatea da aurrera begira dugun zereginetako bat. Hain zuzen, uste dugu aurrekontuko partida bat



Aurreko asteburuan txoriendako etxolak jarri zituzten. GOIENA

## "LUZERAKO PROIEKTUA DA HAU, JENDEA ERRE EGITEN DA BESTELA"

AINHOA AGIRREBEÑA, KUKUBASO

halako lursailak erosteko bide-ratzea gauza ona dela. Gero, baso horiek errekuiperatzeak onura galantak ditu herriarendako: bertako uraren eta hai-zearen kalitatea hobetu, aisialdirako guneak errekuiperatu... Zerbitzu ekosistemikoak deritzenak. Eta baso-jabeen partetik ere jarrera aldaketa ikusi dugu denbora tarte honetan. Hasieran gure asmoen berri ematen genienean, nahiko eszeptikoak ziren, baina ezetz esan izan diguten batzuekin ondoren egon gara eta ikusi dugu iritzia aldatu dutela. Uste dugu ona dela Udalak lursail haiek erostea; gainera, Bergarako Udalak oso lursail gutxi ditu jabetza propioan".

**Epe luzerakoa**

Agirrebeñak badaki halako ekimenek denbora behar dutela

aurrera egiteko, eta garbi dauka epe luzerako proiektua izan behar duela. "Jendea erre egiten da bestela. Bi urte hauetan herri-tarren partetik harrera ona ikusi dugu, jendea etorri da landaketetara, hitzaldiak antolatu ditugu... Udalarekin hartu-eman ona izan dugu, eta enpresetara ere joan gara babes bila. Izan ere, egia da Kukubason jendea oso gogotsu dagoela, baina lan asko egiteko diru apur bat ere behar da, eta txostenak prestatzen gabiltza enpresetara joaten garenean proiektuaren berri ondo emateko. Horrekin batera, elkarteko batzar orokorra ere prestatu behar dugu, bazkideei egin ditugun lanen azalpenak emateko".

Hala, gaur egun Kukubasok 110 bazkide ditu eta ateak zabal-zabalik dituzte. "Garbi daukagu Debagoienean ekimen mordo dagoela, era askotakoak, eta jendeak indarra non egin erabaki egin behar duela, ezin gara-eta denean egon. Alde horretatik, pozik gaude dugun bazkide kopuruarekin, eta gehiago etortzen badira, ederto. Izan ere, oraindik pedagogia-lan izugarria geratzen zaigu egiteko".

## Alberto Alonso izango da PSE-EEko alkategaia

Gipuzkoako sozialistek azaldu dutenez, hauteskundeetarako "hautagairik onena" da Alonso, eta agintaldi honetan egin duen lana nabarmendu dute. Alonsok azpimarratu du "lehen aldiko ilusio eta ardura berarekin" aurkeztuko dela: "Konpromiso sendoa dut denontzako den Bergara bat mamitzeko eta eraikitzeko".



Alberto Alonso. GOIENA



B.U.

## Abian da 'Bergara oinez'

Beste urte batez, bueltan da *Bergara oinez* egitasmoa. Atzo, hilak 30, egin zuten lehenengo irteera, Pol-Pol elkarteak antolatuta, eta hurrengo irteera San Joxepe elkarteak antolatuko du, apirilaren 20rako. Herriar guztientzat zuzendutako txangoak dira eta gehienez laurogeita hamar minutu irauten dute.

## OHARRAK

### Jardunek hezitzaileen lan-poltsa atera du

Ekainaren 26tik uztailearen 21era egingo ditu Jardunek udaleku irekiak, eta hezitzaile bila dabil. Baloratuko da aisialdiko begirale titulua edo baliokidea izatea, EGA edo baliokidea eta aisialdian esperientzia. Bidali curriculumak [udalekuiarekiak@gmail.com](mailto:udalekuiarekiak@gmail.com) helbidera, apirilaren 5a baino lehen.

### Odola emateko dei egin dute

Hurrengo ateratzeak apirilaren 5ean eta 19an izango dira, osasun etxean, 16:30etik 20:30era. Argibide gehiagorako, deitu telefono-zenbaki honetara: 747 42 99 20.

### 1949an eta 1963an jaiotakoan ospakizuna

49ko kintoak apirilaren 22an batuko dira, Tartufon, eta apirilaren 14a da izena emateko azken eguna (70 euro). ES69 3035 0009 17 0091162180 da kontua, eta ordainketan izen-abizenak jarri. 13:00etan batuko dira, frontoian, eta autobusean joango dira Tartufora (14:00). 1963an jaiotakoek ere Tartufon egingo dute ospakizuna, maiatzaren 13an. Izena emateko, 25 euroko ordainketa egin behar da martxoaren 31 baino lehen, izen-abizenak kontzeptu moduan jarrita: ES19 3035 0009 11 0091162113 (Laboral Kutxa).

**Idoia Aranbarri Arzuaga** BERGARA  
Bergararrek horren berezia duten Erramu-zapatuarekin hasiko dute apirila, bihar. Goizean goizetik hasi eta gauera arte egongo da zer egin herrian zehar antolatuta dituzten ekintzetan, eta, besteak beste, ez dira falta-ko ohiko abelburu, baserriko produktu, artisau eta makineria, burdindegia eta landare erakusketa. Musikak ere izango du lekua egun horretan, eta etxeko-txiki eta gaztetxoentzat ogitarteko-bilgarrien tailerra nahiz sormen-txokoa antolatuta dituzte.

Goizeko protagonista nagusia feria izaten da. 09:30etik 14:30era bitartean zabalduko ditu ateak, eta hiru zatitan banatuta egongo da. Alde batetik, Ibargarai kalean jarriko dituzte abelburuen erakusketa eta elikagai postuak. San Martin plazak, aldiz, 60 artisau postutik gora hartuko ditu. Artisautzaz gain, gozogintza, barazki eta konterba postuek hartuko dute parte. Eusko Label oilasko-pintxoak dastatzeko postua ere leku berean egongo da. Egun horretan, halako postua ustiatzeko aukera ematen zaio Bergarako irabazi asmorik gabeko kultur, kirol, ongintza-elkarte edo herri-talde bati, eta aurten Aurrera kultura elkartearentzat izango dira oilasko-postuko irabaziak. Azkenik, Seminarioxoko patioan kokatuko dira baserriko makineria, burdindegia, landare erakusketa, txerri-pintxoak eta Ekotaloren talo-postua.

#### Trafikoan aldaketak

Erdiguneko zirkulazioan eta aparkalekuetan aldaketak egongo dira bihar. Feriako postuak trabak sortuko ditu zirkulazioan. Gainera, erdiguneko kale batzuk



Zenbait herritar Erramu-zapatuko azokan, iaz. GOIENA

# Azoka eta beste Erramu-zapatuan

Ibargarain, San Martin plazan eta Seminarixoko patioan izango dira bihar abere-erakusketak, artisau-postuak eta baserriko makinak; 2019az geroztik egin gabe zegoen herri bazkaria bueltan da, eta Jardunen sormen txokoa da berritasuna

erabat itxita egongo dira. Ibargarai kaleko 4. eta 14. zenbakien arteko bidea da horietako bat, eta goizeko zazprietatik arratsaldeko hiruretara ez da ibilgai-luentsat erabilgarri egongo. Era berean, Fraiskozuri plaza ingu-

rua ere itxita egongo da bi noranzkoetan. Udalak, bestalde, bi gune horietako aparkalekue-tatik ibilgailuak kentzeko eskatu du gaur goizerako, eta zapatu goizean aparkaleku moduan erabili ahal izango dira San

Martin Agirre Herri Eskolako nahiz Ipintza Institutuko patioak.

#### Irudimena sormen txokoa

Erramu-zapatuko klasikoa izan da gazteendako txorimalo lehia-keta, baina aurten beste era

bateko ekintza antolatu du Jardun eskara elkarteak. 6 eta 12 urte bitartekoendako sortuko duten sormen-txokoa da berrikuntza: "Helburua sormena lantzea da, azokan ikusi ahalko duguna kontuan hartuta. Isla eman nahi izan diogu nekazaritzari eta abeltzaintzari. Gaia oso zabal utzi dugu, baina ferieren barruan aurkituko duten zerbait egin beharko dute, irudimena erabilia". Elkartearen parte-hartzearekin gustura agertu da eta haurrek eta gazteek edozein euskarritan aurkeztu dituzte euren eskulanak –muralak, papiroflexia, txorimaloak, marrazkiak eta liburuxkak, besteak beste-. Horrekin batera, euskararen inguruko lelo, bertso edo esaldi bat aurkeztu behar izan dute parte-hartzaileek, eta hori izango da baloratu eta sarituko dutena, testu onenak 50 euro lortuko baititu.

Sormen txokoa San Martin plazan jarriko dute, Seminarioaren ondoan, eta jasotako lan eta esaldi guztiak han egongo dira ikusgai erakusketa modura, hamabietatik ordu batera, herritar orok ikus ditzan. Jardunetik adierazi dute hurrengo urtera begira ekimenari bultzada emateko asmoarekin jarriko dutela erakusketa: "Helburua proiektua indartzea da datorren urtera begira".

#### Herri bazkaria, bueltan

2019an egin zuten azkenengoz Txapa Irratiak eta Xaxau Konpartsak elkarlanean antolatzen duten herri bazkaria. Azken bi urteetan, ordea, pandemia dela-eta bertan behera geratu da, baina aurten normaltasunez egongo da. Berritua halako ekintza bat antolatzea "garrantzitsua" dela nabarmendu dute antola-

## Ogitarteko-bilgarria egiteko tailerra

Ogitartekoa batzeko zapiak egiteko aukera izango dute etxeko txikiak Erlantz Olabarriak udaletxeko arkupeetan emango duen tailerrean. Olabarriak azaldu duenez, Udalak 200 bilgarri egiteko tela emango du. Hala ere, norberak eraman dezake bere gustuko oihal zatia: "Haurrak dira ogitartekoa jango dutenak, eta, horrela, haurrek gusturago eramango dute".

Azpimarratu duenez, zapiak zenbait baldintza bete behar ditu: %100 kotoia izan eta tamainaz 30 zentimetroko karratua izatea, gutxi gorabehera.

#### Argizariz egina

Ogitartekoa modu jasangarrian bildu eta zapia berrerabiltzeko, erleengandik lortutako argizaria emango diote oihalarri: "Erleek,

eztiaz aparte, argizaria ematen digute, eta hori gauza askotarako erabiltzen da: ukenduak egiteko, kandletan, armairuetan emateko... Gure kasuan, ogitarteko-bilgarriak egiteko erabiliko dugu. Era horretan, oihala ez da zikintzen".

Olabarriak jakinarazi du goizean zehar egingo dutela tailerra, nahiz eta egitarauan ekintza 12:00etarako deituta egon.



Matxiategi 32, behea, Bergara  
943 28 52 80 • 649 94 36 11

Gora Erramu-zapatua, ondo ibili! f @

tzailleek: "Herrira begira ikus-garritasuna ematen digu". Bihar, 450 lagun bilduko dira 14:30ean Udal Pilotalekuan, eta antolatzailleak "pozik" daude otorduak izan duen erantzunagatik: "Jendea gogotsu dagoela ikusten da. Txartelak hamar minutuan saldu genituen, eta sekulakoa da hori. Beste horrenbeste pertsona zeuden zain, baina kanpoan geratu dira. Guk geuk eskerrak eman nahi dizkiegu guztiei, bai ta kanpoan geratu direnei ere. Sentitzen dugu zenbait herritar kanpoan geratu direlako, baina kopurua mugatua da".

Menua aurreko urteetako antzerakoa izango dela aurreratu dute, eta elikagaietan bertako produktuaren aldeko apustua egin dute, beste behin ere. Sarrera modura, Bergarako azokako txorizo egosia eta Basatxerri-patea emango dituzte, eta plater nagusia Eusko Label o-laskoa patatekin izango da. Bergarako gozotegietako pastelak dastatuko dituzte postrean. Menu begetarianoa ere egongo da: humusa, babarrunak barazkiekin eta postrea, hain zuzen ere. Antolatzaileek jakinarazi dute aur-

ten hogeii pertsona inguruk egin dutela aukeraketa hori. Zeliakoentzat, berriz, ogia eta azkenburukoa egokitu dituzte, azken urteetan bezala. Egarrria asetzeko ere, bertako edaria: txotxa -Gipuzkoako Sagardoaren bi kupel jarriko dituzte-. Azkenik, ohiturari jarraituz, bazkalostea zein frontoiko irteera girotzeaz eta herritarrek kale aldera eramateaz txaranga arduratuko da.

#### Bestelako ekintzak

Erlantz Olabarriaren haurrei zuzendutako tailerraz aparte, hamaiketan hasita Ekoudalatzeko kideek gidatutako ezpainetako baltsamoa egiteko tailerlean parte hartzeko aukera egongo da udaletxeko arkupeetan. Arratsaldean, berriz, zezen txikiekin jolasteko gunea jarriko dute, 16 urtetik gorakoendako, Seminarixoko patioan.

### 450 LAGUN ELKARTUKO DIRA UDAL PILOTALEKUAN EGINGO DEN HERRI BAZKARIAN

#### Kaleak musikaz blai

Edozein festa egunetan bezala, musikak ere izango du presentzia Erramu-zapatuan, eta Bergarako Musika Eskolako trikitilariak izango dira kaleak alaituko dituzten aurrenekoak. 10:45ean abiatuko dute kalejira. 11:30 aldera, Aurtizko joaldunak ibiliko dira Bergarako kaleetan, eta ordu berean Bergarako Musika Eskolako dantzariak emanaldia egingo dute Munibe plazan; zehazki, Zumarragako ezpata dantzan eta soka dantzan oinarritutako taldekako dantzak egingo dituzte. Arratsaldean, 17:00etatik 19:00etara bitartean, Gesaltza txaranga ibiliko da herrian barrena, eta, hori amaitzean, Eingo taldearen *Kantan ta dantzan* dantzaldi-erromeria ibiltariak hartuko du lekukoa. San Martin plazan hasi eta Irala kalean nahiz Simon Arrieta plazan geratuko dira. Euria bada, Munibe plazan izango da. Zuberoako Xiberoots taldeak emanaldia egingo du Munibe Plazan (Ikus. 32. orria) eta gauerditik aurrera DJ Argi eta KO.-k musika jarriko dute Arrano tabernan.

## Erramu-zapatuko egitaraua

Hauxe da martxoaren 31rako eta apirilaren 1erako antolatu duten egitaraua:

#### Martxoak 31, Erramu-zapatu bezpera

- **22:00** Bertso-saioa Seminarixoan. Bertsolariak: Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Alaia Martin, Aitor Sarriegi eta Nerea Elustondo. Gai-jartzailea: Ibon Leibar *Txinbo*.

#### Apirilak 1, Erramu-zapatua

- **09:30** Feriaren irekiera. Ibargarain, San Martin plazan eta Seminarixoko patioan banatuko da feria.
- **10:45** Kalejira Bergarako Musika Eskolako trikitilariak.
- **11:00** Ezpainetako baltsamoa egiteko tailerra Ekoudalatzeko eskutik udaletxeko arkupeetan.
- **11:30** Sormen txokoa 6-12 urte bitarteko haur eta gaztetxoentzat. Erakusketa hainbat gunetan jarriko da.
- **11:30** Aurtizko joaldunak Bergarako kaleetan.
- **11:30** Emanaldia Bergarako Musika Eskolako dantzariak.
- **12:00** Ogitartekoa batzeko zapiak egiteko tailerra Erlantz Olabarriarekin udaletxeko arkupeetan.
- **14:30** Herri bazkaria Udal Pilotalekuan.
- **17:00-19:00** Kale-animazioa Gesaltza txarangarekin.
- **17:30** Zezentxoak 16 urtetik gorakoentzat Seminarixoko patioan.
- **19:00** *Kantan ta dantzan* dantzaldi-erromeria ibiltaria Eingo taldearekin. Guneak: San Martin plaza, Irala kalea eta Simon Arrieta plaza. Euriarekin Munibe plazan izango da.
- **22:00** Xiberoots taldearen emanaldia Munibe plazan.

**UGARTE**  
AROTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoiak  
Horma-Armairuak  
Altzariak neurria  
Ateak · Eskailerak ·  
Leihoak · Tarimak ·  
Egur lanak

**ALTZARI DENDA**  
Ikerleku zeharbidea  
Tel.: 943 03 46 30

**AROTEGIA**  
San Juan 1a  
Tel.: 943 76 54 91

**BERGARA**  
aroztegia@ugartearoztegia.com



Ondo ospatu  
Erramu-zapatua!



**Sastreria Alujika**  
BIZI - NAHI

Gizon eta gazte moda  
Osagarriak  
Ezkontza-trajeetan  
espezializatuak

Disfrutatu  
Erramu-zapatua!

Barrenkale, 1 | 943 76 29 91  
instagram @sastreriamujka

**ecenarro**  
cold forming specialists  
www.ecenarro.com

Gora Erramu-zapatua!





# Bertsolariekin hitzordua gaur Seminarixoan

Bezperako bertso-saioarekin hasiko dira Erramu-zapatuko ospakizunak gaur, eta Maialen Lujanbio, Andoni Egañak, Alaia Martinek, Aitor Sarriegik eta Nerea Elustondok hartuko dute parte; aurrekoetan bezala, Ibon Leibar 'Txinbo' izango da gai-jartzailea

**Idoia Aranbarri Arzuaga** BERGARA

Urteroko ohitura bihurtu da Erramu-zapatu bezperako bertso-saioa, eta gaur gauean bost bertsolari igoko dira Seminarixoko oholtzara, gaueko hamarretan; hain zuzen ere, Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Alaia Martin, Aitor Sarriegi eta Nerea Elustondo izango dira bertsolari horiek. Gai-jartzaile lanetan arituko da, azken urteetan bezala, Ibon Leibar *Txinbo*.

Saioa "bero" moduan definitu du Leibarrek, Euskal Herriko bertsolari "onenetakoak" etortzen direlako: "Lekua elegantea da eta emanaldia ere bai. Uste dut jendeak egun hori gordeta edu-



Aitor Sarriegi eta Maialen Lujanbio 2018ko bertso-saioan. GOIENA

kitzeko gogoia izaten duela. Iru-ditzen zait publikoak nahiz bertsolariak gustura etortzen direla ikusi eta kantatzera. Saioa polita izaten da eta gaurkoa ere emanaldi polita izango da".

**Gai serio nahiz umoretsuak**

Bost urte inguru daramatza Leibarrek ekitaldi horretako gai-jartzaile izaten, eta, aurreratu duenez, betiko irizpidea izango du gaiak jartzerako orduan: bizpahiru gai serioak izango dira; gainerakoek umoretik joko dute. Era berean, azaldu du denetik jartzen saiatuko dela, saioak "erritmoa" izateko: "Jokoak egingo dituzte, binakako ariketak, denek batera edota bakarka kantatzekoak".

Seminarixoa, normalean, ia guztiz betetzen dela dio *Txinbo*-k, eta oraingo honetan ere bide beretik doa, azken sarrerak geratzen baitira salgai. Nahi duenak [www.seminarixoa.eus](http://www.seminarixoa.eus) webgunean eskuratu ditzake, zortzi euroren truke. Saldu gabeko sarrerak Seminarixoko txarteldegian jarriko dituzte salgai emanaldia hasi baino ordubete lehenago.

## Xiberoots taldearen reggae doinuak Munibe plazan

Zuberoako Xiberoots taldeak gaueko hamarretan Munibe plazan emango duen kontzertuarekin amaituko da Erramu-zapatua. Sei hilabeteko atsedenaldiaren ostean, martxoaren 15ean eman zion hasiera denboraldi berriari, Zornotzan, eta aurtengo bigarren kontzertua izango da bihar eskainiko duena. *Beat* elektro-poparekin eta beste estilo batzuekin nahasten du seikoteak reggae musika. Dena prest daukate biharko, eta, adierazi dutenez, Bergaran egoteko "gogo handia" daukate. Euren ibilbidetan kaleratu dituzten bi diskoetako *Maule Muffin* eta *Honki Jina* zenbait abesti taularatuko dituzte; baita biniolorako moldatu zuten Mikel Laboaren kantua bat ere. Sorpresarik ez, baina aurreratu dutena da zapatarako "emanaldi potoloa" prestatu dutela. 2021ean kaleratu zuten azken lana, eta jakinarazi dute "laster" etorriko dela hurrengoa.

 **LOREA ALBENIZ**  
ESTETIKA ZENTROA  
aholkularitza eta tratamendu estetikokoak

665 02 13 52  
Toki Eder plaza 5, behea, Bergara

*Ondo ibili ferian!*

 **itesa**  
**Ondo ibili ferian!**  
BERGARA • San Juan auzoa • 943 76 22 97

Altzariak  
Sofak  
Koltxoia

edertu



Aurten **50** urte:  
eskerrik asko denoi!

Masterreka 9 - 11, Bergara • tel.: 943 76 58 79





Pello Garitanoren omenezko lehen proba arrakasta borobila izan zen; 240 bat lagun elkartu ziren plazan. IMANOL SORIANO

# Omenaldi hunkigarria, pedalkada koloretsuekin

2022ko ekainean hil zen Pello Garitanoren omenez 240 lagun igo ziren hilaren 25ean Gorrara, haietako asko bizikleta eta arropa bereziekin edota mozorrotuta; Lokatzakoen asmoa da, "hasiera baten", 2024an ere antolatzea Gorrako ohiko lasterketaren bezperan

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA 2022ko ekainaren 18an hil zen Pello Garitano oso presente dute oraindik ere hainbat bergararrek. Joan den zapatu goizean San Martin plazak erakusten zuen argazkia ikustea besterik ez dago Garitano arrastoa utzi duela ondorioztatzeko. Askorentzat "herrigintzaren ikur" izan denak bereziki zuen lotura estua he-

rriko ziklismoarekin, eta Lokatzak omenaldia egitea erabaki zuen, hain zuzen ere, Gorrako Igoera ezagunaren bezperan.

240 lagun elkartu ziren askotariko bizikletak hartuta eta mozorroak soinean zituztela, San Martin plazatik Gorrarako malda gogorak umoretsu eta festa giroan igotzeko. Senitartekoak ere izan ziren plazako ekitaldian.

## Nor bere erara, baina gora

Herriko aurpegi ezagun batzuek hartu zuten parte proba zikloturistan; Lokatza Ziklismo Eskolan lehen pedalkadak eman eta profesioaletara jauzia ematea lortu zuten Ainhize Barrainkua eta Mikel Aristi bikotea, esaterako: "Plazan elkartu den jendetza ikustea besterik ez dago Pello nolakoa zen irudikatzenko."

## "Mundiala izan zen, zaila hitzez adierazteko"

**ION UNAMUNO** LOKATZA ZIKLISMO ESKOLA

Asteburu oso berezia izan zen Lokatza Ziklismo Eskolako presidente Ion Unamunorentzat. Deialdi berezia zen, mimo handiz prestatutakoa, eta pozik zegoen izan zuen harrerarekin.

**Nola joan zen Pelloren omenezko lehen martxa?** Mundiala izan zen. Pelloren senitartekoak oso pozik ikusi genituen, eskerrak eman zizkiguten. Pello oso garrantzitsua izan da herriko



J.B.L.

ziklismorako; nik, pertsonalki, asko maite nuen. Oso zaila da hitzez adierazteko, Pello arrasto handia utzi zuen.

## Asteburu berean bi zita; hurrengo urtean ere bai?

Orain, asteburua igaro berritan eta berotan gaudela, esango nizuke zalantza barik errepikatuko dugula hurrengo urtean. Baina ondo baloratu behar da, gauzak asko aldatu daitezkeelako une batetik bestera. Asmoa errepikatzea da, baina ikusiko da.

Aspaldiko bizikletekin etorri gara, alde aurretik probatu gabe; probatuz gero, akaso, damutu egingo ginatke... Pello-gatik igoko gara, bai ala bai. Egun berezia izango da, Pello gogoratu eta ondo pasatzekoa".

Gainera, izan zen bizikleta elektrikoan igotzea erabaki zuenik; tartean, Justina Elexpuru: "Aldez aurretik probatxo bat egin nuen ahizparekin, eta ondo ibili ginen; ez dut uste barregarri geratuko garenik. Pellok merezi du, eta hemen gaude".

## Lana bai, gozamina ere bai

Lokatza Ziklismo Eskolako Xabier Uribesalgo pozez gainezka zegoen lehen edizio honek izandako harrerarekin: "Eguralditik hasita lagundu digu Pellok bere omenezko eguna primeran irten zedin". Omenaldirako zer egin erabakitzea, baina ez zitzairen

erraza izan: "Zerbait polita egin nahi genuen. Ideietako bat izan zen lasterketa bati haren izena jartzea, afizionatu mailako beste lasterketa bat. Baina buelta bat gehiago eman eta Pelloren izaera herrikoiarekin lotuago doan zerbait egitea pentsatu genuen, eta Gorrako Igoerarekin buru-belarri ari ginenez bururatu zitzaigun Gorrako Igoera herriko bat antolatzea. Lokatzarentzat ekitaldiak antolatzea... Egun hau disfrutatzenko da, alde aurretik lan asko ekarri digu eta; hori zen Pello, azken finean".

## LASTERKETA BATI HAREN IZENA JARRI BAINO GEHIAGO, PROBA HERRIKOI BAT EGIN NAHI IZAN DUTE



**MIKEL ARISTI**

"Pelloren omenezko igoera berezia modu berezian egin nahi genuen eta horregatik etorri gara aspaldiko arroparekin eta bizikletarekin Ainhize, haren aita eta hirurok".




**JAKUE MENDIZABAL**

"Pellok oso gustuko zituen mozorroak eta kolorea, eta halaxe etorri gara haren omenez, egun ederra pasatzera. Pellok omenaldi hau eta askoz gehiago merezi du".




**AINHIZE BARRAINKUA**

"Bizikleta oso zaharrarekin nator, piñoi txikiak dituen eta garapen oso gogorrekoa... Gogotsu nago Mikelekin eta aitarekin halaxe igotzeko; Pellok merezi du".



**KONTXI BASTERRA**

"2009an omendu genueneko zapia soinean dugula Pello gurekin igoko da Gorrara. Oso jatorra zen, beti laguntzeko prest; merezi du. Poliki joanda, baina helduko gara".



**ANARTZ AGIRRE**

"Asko maite genuen Pello, saltsa guztietako perrexila. Omenaldi bat merezi zuen, zalantza barik. Elgetatik kuadrillatxo bat jaitsi gara, inongo pikerik gabe disfrutatzenko".



Errekalde auzoa: eskuinaldean, Lazareto etxea; ezkerrean, errepidea eta etxebizitzak. A.R.K.

## Errekaldeko auzoko lanen proiektua, onartuta

Proposamenaren alde egin zuten osoko bilkuran alderdiek, eta alkateak nabarmendu du "auzoko beharren lehentasunak adostuta" zehaztu zutela proiektua. Lehiaketara aterako dute orain, eta aurreikuspena da urtea bukatu aurretik hasia lanekin

**Amaia Ramirez de Okariz**  
**Kortabarría** ANTZUOLA

Errekalde auzoko urbanizazioa eta irisgarritasuna hobetzeko proiektua onartu zuten martitzenean osoko bilkuran, alderdi guztien aldeko botoekin, EAJk eta PSE-EEk lan horietara bideratuko den kreditu gehigarrien bozketan abstentziora jo bazuten ere. Dena den, Beñardo Kortabarría Antzuolako alkateak jakinarazi du "onarpen garrantzitsua" dela asteotakoa: "Antzuola 2018-2030 plan estrategikoan gorritz markatutako helburuetako bat zen Errekalde duintzea".

Azaldu duenez, horretarako, bizilagunekin parte-hartze prozesua egiteko nahia zuten pandemiaren aurretik, eskaerak jasotzeko eta proiektu bat plan-teatzeko. Osasun egoerak baldintzatuta, ordea, atarrietako ordezkariekin egin behar izan zuten lanketa hura. Horrez gainera, inkesta bat zabaldu zuten auzoan erantzunak jasotzeko, eta, hala, alkateak adierazi du

"auzoko beharren lehentasunak adostu eta proiektua enkargatu" zutela. Hala ere, proiektuak "atzera-aurrera batzuk" izan ditu, eta "apur bat atzeratu" da.

### Proiektuaren bidea

Martitzenean onartutako proiektua hirugarren bertsioa baitzen. Lehenak 600.000 euroko aurrekontua zuen, eta, hori gogoan, urtarrean egin zuten lehen proposamena. Lurralde batzordean, baina, aldaketa batzuk proposatu zitzaizkion, eta, beraz, otsailera eraman zuten, beste behin. Han eman zitzaion onarpena, eta, era horretan, osoko bilkurara heldu zen, behin betiko onarpena izan zezan.

### IRISGARRITASUNA HOBETZEA ETA "DEGRADATUTAKO" AUZOARI DUINTASUNA EMATEA DA ASMOA

Orain, ordea, lehiaketara atera behar da, eta, horretarako, pleguak idatzi eta publikatu behar dira; bada, asmoa da Aste Santu ostean edukitzea. Publikatu ostean, bizpahiru hilabeteko epe bat eman behar da eraikuntza enpresek eskaintzak aurkeztu ditzaten, eta, azkenik, irabazlea iragartzen da, kontratua sinatzearekin bat. "Udazkenerako kontratua sinatuta eduki ahal izango genuke, dena ondo bada, eta urtea bukatu baino lehen lanak hasita". Halere, Kortabarría erantsi du obrek sei hilabeteko epea dutela.

### Lanen xehetasunak

800.000 euroko aurrekontua izango du obrak. Biribilgune moduko bat egingo dute albo bietan, Lazaretoa eraitsita; aparkalekuek ordezkaturiko dute. Plaza ere egokituko dute, hala nola zorua, argiteria eta lorategiak aldatuta. "Irisgarritasuna hobetuko da, eta degradatuta dagoen auzo hari duintasuna emango zaio".



Antzuolarrak eta aihertarrak, hilaren 25ean, Aiherran. JEAN-MIXEL BARBIER

## 'Mugak zubi' ibilbidean, Legazpi eta Antzuola batuko dituzte

Domekan egingo dute mendi ibilaldia, aihertarrekin, baita zuhaitz landaketa eta bazkaria ere, elkarte batean

**A.R.K.** ANTZUOLA

Aiherra (Nafarroa Beherea) eta Antzuola—edo alderantziz—batzen dituen *Mugak zubi* ibilbidea aurkeztu zuten joan den astean Urruñan (Lapurdi), bi herrien senidetzea are gehiago sendotzeko ez ezik, mugez harago herria egiteko asmoz.

Hilaren 25ean lehen etapetako bat egin zuten elkarrekin bi herrietako lagunek, Lekornetik (Lapurdi) Aiherrara bitartekoa, jatorrizkoa Itsasutik (Lapurdi) hasten den arren, eta, orain, Legazpitik Antzuolara artekoa egingo dute.

Domekan izango da hori. Aiherratik etorriko dira inguruotarra, eta Legazpin izango dute lehen elkargunea; antzuolarrak 08:45ean aterako dira harantz, Sagastitik. Oinez iritsiko dira Antzuolaraino, Arrola menditik, eta, ondoren, senidetzearen isla den zuhaitza landatuko dute herrian.

### Ostean, mokadutxo

Herri bazkaria eta kantaldia ere egitekoak ziren, baina, bertan behera gelditu dira. Halere, parte hartzaileek elkarte batean bazkalduko dute.

## 'Bollywood, Bombay, Barcelona' ikuskizuna ikusgai bihar

Liquido Teatrok sortu du lana, eta "migrazio fenomenoari buruzko ikuskizun bero eta atsegina" dela azaldu du

**A.R.K.** ANTZUOLA

Bombaytik Bartzelonara iritsitako hiru etorkin dira protagonistak, eta aurre egin behar diote "kultura talkari zein nostalgari", aurrez sorturiko ilusioak errealitatearekin bat ez datozela ohartzearan. "Laneko, etxeko edo integrazio arazoek egoera zailak sortzen dituzte, eta haiek baikortasun superlatibo batetik gainditzen saiatzen dira, Bollywoodeko dantzetan zentratuta". Hala ere, egileek nabarmendu dute beste edozein izan zitekeela pertsonaien jato-

rrizko herrialdea zein helmugako hiria: "Fenomenoak haien arteko paralelismo askorekin errepikatzen dira".

Dantza koloretsuak eta komedia uztartuko dituzte, publikoarekin konektatzeko "hizkuntza entretenigarria". "Emaitza, beraz, migrazioaren garaira hurbilke-ta bat da, eszenografiaren eta jantzien dibertsio, ezusteko eta originaltasun plastikoak abiatuta".

Torresoroan izango da, bihar, 19:00etan, gazteleraz. Zortzi euro balio du sarrerak.



Martitzeneko osoko bilkuran elkartutako udal ordezkariak. L.Z.L.

# Energia-kooperatibaren sorrerari babesa

Ixotzen kooperatibako bazkide-laguntzailea izango da Elgetako Udala. Martitzenean egindako osoko bilkuran hartu zuen erabakia udalbatzak. EH Bilduko bost zinegotziekin egin zen bilkura; izan ere, oposizioko ordezkariak ez zen bertaratu

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA

Udalbatzak hamaika puntuko gai-zerrenda izan zuen mahai gainean martitzeneko osoko bilkuran. Horien artean, 92.000 euroko kreditu aldaketa-espedientea 2022ko aurrekontuaren transferentzien atalean. Aurrekontu horretako hainbat diru-lerrotan izandako gorabeherak koadratzeko hartutako erabakia dela azaldu zuen Iraitz Lazkano alkateak. "Behera egin duten diru-lerroen artean nabarmentzen dira 15.000 euroko jaitziera, San Roke ermitako teilatuan ez delako momentuz ezer egin, eta 11.000 euroko jaitziera, lursailen digitalizazioan espero baino gutxiago gastatu delako". Gora egin duten diru-lerroen artean nabarmentzen dira frontoiko plaka fotovoltaiakoak ipintzeko 14.000 euroko gehikuntza, eskolako mantentze-lanetarako 10.000 eurokoa, herriko jaietarako 8.400 eurokoa, energia-komunitatearen sorrerarako 8.300 eurokoa eta kultura etxeko galdara aldatzeko 6.100 eurokoa.

Bestelako kreditu aldaketak ere egin dira transferentzien ataletik kanpo. Nabarmentzen dira 31.000 euroko gehikuntza eguneko zentroaren zerbitzuarengatik eta 2.000 eurokoa etxe tutelatuaren zerbitzuarengatik. Gehikuntza horiek, besteak beste, Foru Funtsetik estaliko dira. "Idazkari kontu-hartzaileak txostena egin du eta 400.000 eu-

roko defizita irteten da. Zifra deigarria izan daiteke, baina horrek ez du esan nahi Udalean zulorik dagoenik aurrekoan hemen entzun genuen bezala. Guztiz kontrakoa da. 318.000 euro gerakinetik finantzatu ditugu, eta horrek defizit moduan kontatzen du. 2022ko likidazioa ez daukagu oraindik, baina aurrekusten dugu 300.000 euro inguruko gerakina egongo dela", zehaztu zuen Iraitz Lazkano alkateak.

**ELE ordenantza**

Elgetako Udalbatzak, bestalde, hasierako onarpena eman dio Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa (ELE) aplikatzeko ordenantzari. Udalerriaren garapenari eragiten dioten planek eta proiektuek hizkuntza-inpakturik izango duten aurreikustea eta neurriak hartzea ahalbidetuko duen tresna da, eta UEMAk garatutako metodologia du oinarri. Hala, herriko planei eta proiektuei jarraipen sistematikoa egingo zaie, eta, horretarako, eragin linguistikoa ebaluatzeko batzordea izendatuko da. "Plan publikoendako zein pribatuendako da", azaldu zuen Lazkanok.

**AURREIKUSPENA DA 2022KO LIKIDAZIOA 300.000 BAT EUROKO GERAKINAREKIN IXTEA**

**Ixotzen-eko bazkide-laguntzaile**

Udala, bestetik, bazkide-laguntzaile bihurtu da sortze bidean den Ixotzen energia berriztagarrien kooperatiban. 1.000 euroko ekarpena egingo du, eta, gainera, 3.000 euroko beste ekarpen bat egingo du. "Kooperatibak gutxieneko kapital hori behar du formalki osatzeko. Hasieratik Udalak bultzatutako proiektua izan da eta Fagorrek ere agindu du bazkide-laguntzaile izango dela; 11.000 euro inguruko ekarpena egingo du. Pagatza Taldeak ere hartuko du parte", azaldu zuen alkateak. Aurrerantzean, Udalak ordezkari bat izango du kooperatiban.

**Hitzarmenak eta akordioak**

Udalbatzak, azkenik, oniritzia eman dio Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun Departamentuak eta Udalak informazioa trukatzeko hitzarmenari zein botiken erabilera optimizatzeko Gipuzkoako Botikarien Elkargoaren eta Udalaren arteko hitzarmenari. Azken horren baitan, maila batetik gorako mendekotasun duten herritarrek aukera izango dute herriko botikak eskaintzen duen jarraipen zerbitzua eskatzeko. Eta Gizabidea Fundazioarekin bi lankidetzahitzarmen sinatuko ditu Udalak: bata *Debagoiena aukera energetikoak 2030* eta bestea *Ikastetxeklik*. Hurrenez hurren, 2.400 eta 1.750 euroko ekarpenak egingo ditu Udalak.

## Sorpresa eta bisita asko aurten ere eskolako Kultura Astean

Beñat Rezusta pilotari bergararrarekin egindako saioarekin eman zioten hasiera, astelehenean

**L.Z.L. ELGETA**

Aitor Mendizabal pilotari ohia eskolako maisua da, eta, Beñat Rezustaren laguntzarekin, ikasleek pilota munduko hainbat alderdi ezagutu aukera izan zuten. Pilotan ere egin zuten, eta sinadurak eskatu zituzten. Oso hurbileko saioa izan zen; pozik ikasleak eta pozik baita ere Mendizabal eta Rezusta.

Elgetako Herri Eskolan urtero egiten dute Kultura Astea Aste Santu aurreko eskola egunetan. Aurtengoa bereziki bete izan da, sorpresa, irteera, jolas eta bisita ugari izan direlako.



Rezusta autografoa sinatzen. GOIENA

**Askotariko ekintzak**

Gaur eman diote amaiera Kultura Asteari, irteera batekin eta asteen zehar egindako jolas-sortaren sari banaketarekin. Egitarau beteko astea izan da, ordea. Mendi txangoa Intxortara, bisi-

ta eguneko zentrorra zein liburutegira, solasaldia Miren Agur Meabe idazlearekin, zirku tailerra, hezkuntza ohituretan eragiteko familiei zuzendutako solasaldia, Erdi Aroko Elgeta ezagutzeko bisita gidatua... Aste Santuko oporrak datoz orain.

## Astrotopaketak martxan dira

Eguaztenean egin zuten lehen astrotopaketa, liburutegian. Hamahiru herritarren aurrean egin zuen aurkezpen-sarrera Ilatargi elkarteko Gorka Buruagak: unibertsoko elementuak, eguzki sistemaren funtzionamendua, NASAko pare bat simulazio... Hurrengo astrotopaketa apirilaren 26an izango da. Interesatuendako Telegram kanala sortu dute.



JOSU GONZALEZ

## OHARRAK

**'Ipuinen ordua' saio berezia gaur**

Bi ipuin saio izango dira gaur: 17:00etan HH3-LH1 adinekoendako eta 18:30ean LH2-LH6 artekoendako.

**Frontenis txapelketa aste bukaeran**

Gizonetan zortzi bikotek eman dute izena eta emakumeetan, bederatzik-. Gaur 17:00etan jokatu dira lehen partidak. Finalak, berriz, domekan 09:00etan.

**Sormen egonaldia eta irekiera ekitaldia**

Nerea Atxa artista arrasatearrak gaur egingo du *Urdina* antzezlanaren irekiera ekitaldia, Espaloian, 18:30ean. Interesatuak [dantzerkiplat@gmail.com](mailto:dantzerkiplat@gmail.com) helbidera idatzi behar dute.



Emakumeen Etxea izango den eraikina eraberritzeko lanak. O.U.

## Hasi dituzte Emakumeen Etxea egiteko lanak

Kale Zaharreko 13. zenbakian egongo da Emakumeen Etxea, eta eraberritze-lan horiek prozesuaren zati bat izango dira; barne banaketa eta antolaketa etorriko dira gero. Prozesu osoa online jarraitzeko bidea zabaldu du Berdintasun Sailak

### Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Hasi dituzte Emakumeen Etxea izango den eraikinaren lanak. Bi zatitan banatuko dituzte eraberritze-lan horiek, eta datorren urte hasierarako amaituta egotea da Udalaren aurreikuspena.

### Bi zatitan lanak

Lehenengo lanak amaituta, etxearen barne banaketa eta antolaketa burutuko da, eta aldi horretarako lanen diseinua parte-hartze prozesuaren laguntzarekin egingo dute. Urtarrilean egin zen *Bisitetik aukeretara* saioak eman zion amaiera aurreko faseari. Inguruko emakumeen etxeetara egindako bisitetan ikusitakoak partekatu zituzten, azken saioan, bisitetan parte hartu duten emakumeek joan ez zirenekin. Beste ekimen batzuk ezagutzeko Oñatikoak eman ditzakeen aukerak ikusteko balio izan ziela adierazi zuten orduan. Orain "Oñatiko proiektuaren sustraiak errotze-ri" ekingo diotela adierazi dute

Udaleko Berdintasun Saitetik. Horrela, apirilaren amaieran egitasmoa ardatzen duten oinarri teorikoak adosteko saio bat egingo dute, eta bi maiatzean eta ekainean beste bi saio egingo dituzte, etxearen barne banaketa adosteko.

### Jarraipen telematikoa

Kale Zaharreko eraikinaren eraberritze-lanen paralelo, online ataria prestatu du Udalak, Oñatiko Emakumeen Etxea eraikitzeko prozesua edonork jarraitu ahal izateko. "Hasieratik adierazi genuen prozesu irekia izatea nahi genuela; nahi duen oro prozesuan sartu eta prozesutik irten daiteke, nahi duen momentuan. Sartu-irten

**'LABUR.EUS/EMAKUMIONETXIA' ESTEKAN SARTUTA ERE JARRAITU AHAL IZANGO DA PROZESUA**

horietan informaziorik ez galtzeko osatu dugu online tresna hori. Bertan aukera dago orain arte egindako bidea edonork ikusi ahal izateko, fase bakoitzean landutakoa eta adostutakoa berrikusi ahal izateko...", azaldu du Izaro Elorza Berdintasun batzordeburuak prentsa-ohar batean. Prozesuaren baitan sortzen joan diren bideo, argazki eta edukiak bildu dira atari horretan. "Tresna hori elikatzen joango gara prozesuak aurrera egin ahala, gure Instagram-sarearekin batera. Iru-ditzen zaigu gaur egun askotariko baliabideak eskaini behar ditugula maila ezberdineko prozesuaren jarraipena ahalik eta modu erosoenean egin ahal izateko, eta, horregatik, edonorentzat erraza eta erakargarria izango den formatu bat aukeratu dugu".

Prozesua *online* jarraitzeko, hauxe da esteka: [labur.eus/emakumionetxia](https://labur.eus/emakumionetxia).



O.E.G.

## Goribarko biribilguneko lanak

Gipuzkoako Aldundiak hasi ditu Goribarko biribilguneko lanak. Lau hilabeteko epea dute obra bukatzeko, eta bitartean lanek zirkulazioan eragingo dutela esan du Aldundiak, baina erreietako bat beti irekita mantenduko dela. Gainera, espaloia egingo dute Kasablanka aldera eta Torreazoko bidegurutze aldera.

### Udako jardunetan begirale izateko izen ematea, zabalik

Ekainaren 26tik uztailaren 21era egingo diren udaleku irekiatarako, arte udalekuetarako eta kirol kanpainarako begiraleak hartzeko izen ematea zabalik dago. Udaleko webgunean sartuta edo HAZ bulegoan eman daiteke izena. Apirilaren 5a da horretarako azken eguna. Udaleku irekietan begirale aritzeko, 16 urte beteta izan behar

dira, eskola-graduata edo parekoa eduki, eta bigarren hizkuntza eskakizunaren pareko euskara maila. Arte udalekuetarako, Arte Ederretako graduaren lehenengo bi ikasturteak gaudituta izatea eta hirugarren hizkuntza eskakizunaren pareko euskara ezagutza izatea eskatzen da. Kirol kanpainarako, berriz, kirol zerbitzu orokorretarako begiraleak eta kirol zerbitzu espezifikotarako begiraleak bereizi dira. Guztiek bigarren hizkuntza eskakizuna behar dute euskaran.

### EAJ entzute-ariketak egiten ari da herritarrekin

Entzute-ariketaren bitartez, Amaia Erostarbe EAJren alkategaiak zein alderdiak berak "herritarren nahiak eta proposamenak zuzenean entzun eta jaso" gura dituzte, "Oñatik aurrera egiten jarraitu dezan". Horrela, gaur, egubakoitza, Bidebarrietan egongo dira jeltzaleak, 17:30etik 19:00etara; eta bihar, zapatua, plazan, 11:30etik 13:00etara.

Bide telematikoa ere jarri ditu alderdi jeltzaleak herritarren nahiak jasotzeko: 747 47 44 80 telefono-zenbakia, [ejppnvonati@gmail.com](mailto:ejppnvonati@gmail.com) posta elektronikoa eta <https://labur.eus/onatientsunez> helbidea. Alkategaiarekin batzeko ere erabil daitezke bide horiek.

### Herri batzarra eta zerrenda aurkezpena ditu bihar EH Bilduk

Bihar, zapatua, bi ekimen egingo ditu EH Bilduk: herri batzarra eta Oñatiko EH Bilduren hautagai-zerrendaren aurkezpen-ekitaldia. Herri batzarrean, hauteskundeetarako kokapen bat egingo du Larraitz Ugartek, eta, ondoren, herrigintzako taldeak azken urtean jorratu duen herri proiektuaren baitan identifikatutako erronken eta ekintza-planaren berri emango du. 11:00etan izango da hori, gaztelekuan. Eguerdian, berriz, Izaro Elorza alkategaiaren talde berria emango dute ezagutzera, 12:15ean, Napparreneko kanto inguruan; eguraldi txarra bada, Kontzejupean izango da taldearen aurkezpena.

# Hamar urte bete ditu auzo-konpostak

2013an jarri zuten Oñatin lehen auzo-konpost gunea, eta, hainbat aldaketa jasan dituen arren, martxa "onean" doa hondakinen kudeaketa. Oñatiko lorezainekin elkarlanean lortutako inausketa-hondarrek askoz konpost hobea egiten lagundu dute

**Mikel Zumalde Etxabe** OÑATI

Dagoeneko hamar urteko ibilbidea egin du auzo-konpostak Oñatin. Egun, 200 familiak baino gehiagok parte hartzen dute hondakinen kudeaketa horretan. Hamar urte hauetan, baina, hainbat aldaketa jasan ditu: hasieran, plastikozko ontziak jarri zituzten, baina arratoien ugaritzeak edukiontziak aldatzea ekarri zuen. Hori dela eta, orain dela hiru urte, edukiontzi handiagoak eta material gogorra-goarekin egindakoak jarri zituzten. Zazpiehun litroko edukiera zuten ontziak mila litroko ontziekin aldatu zituzten. Asier Iraeta Oñatiko Udaleko Ingurumen zinegotzia da, eta hezetasuna ere heldu beharreko beste gaietako bat izan dela dio: "Lehorte garaian, udan, nagusiki, konposta oso lehor egoten zen, eta ur-depositu batzuk jarri genituen ura handik hartzeko". Gaineratu du hasieran zerrautsa ona izan zitekeela pentsatu zutela, baina ondoren ohartu zirela ezetz.

Guztira, herrian sei auzo-konpost gune daude, auzoka banatuta: Errekalde auzoan bat, Bidebarrietan bi, San Martin auzoan beste bat, Olakuan beste bat eta beste bat San Lorenzo auzoan. Horretaz gain, zortzigarren gunea ere badaukate, eta biltegi bezala erabiltzen dutela dio Iraetak: "Zortzigarren gunea ontze-gunea da; auzo-konpost gune guztietan jasotakoa biltzen dugu han, eta, hala, amaiera ematen zaio ontze-prozesuari". Auzo guztietan jasotakoa bildu ondoren, konpost guztia galbahe automatikotik pasatzen dute, soilik konpost xehearekin gelditzeko. Behar ez dituzten konpost zati handiak kutxa handietara eramaten dituzte. Iraetak onartu du puska handiak txikitzeko makina bat erosi nahian ari direla. Hori horrela, konposta nahi duen herritar kopuru



Auzo-konpost gunea Bidebarrieta auzoan. OIHANA ELORTZA

## AUZO-KONPOSTEKO PARTE-HARTZAILEEK HONDAKINEN TASAN %25EKO HOBARIA DUTE

minimo bat dagoenean deialdia egiten da konposta jasotzera joateko. Udalatxearen atarian egin izan dute deialdia, eta norberak eraman behar ditu zakuak edo ontziak.

### Kaptazio kanpaina

Antolakuntzakoek familia gehiago batu nahi dituzte proiektura. Horretarako, izena emateko bi bide daude: presentzialki, Oñatiko udaletxeko Herritarren Arreta Zerbitzuan; edo Udalaren webgunearen bitartez. Joan den astean, Foruen plazan informazio-puntua jarri zuten eta kanpainarako propio sortutako poltsak banatu zituzten herritarren artean. Gainera, laster, auzo-konpostaren proiektuaren nondik norakoak biltzen dituen bideo bat kaleratuko dute, herritarrei proiektuan parte hartzeko gonbita egiteko. Asier

Iraetak helburua gogoratu nahi izan du: "Gure asmo nagusia da ahalik eta jende gehien batzea; izan ere, aurreko urtetik aurrera baliabide aldetik egoki gaude". Iaz pertsona bat kontratatu zuten, egunero gunez gune konpostaren jarraipena egiteko eta funtzionamendu egokia bermatzeko. Alde horretatik, pertsona bat horretaz arduratzen denetik diferentzia "handia" dela nabarmendu du Iraetak, eta begi-bistakoa dela konpostaren kalitatea "onagoa" dela. Gaur egun prozesu osoa kontrolatzen dutela dio, eta, beraz, ahalik eta jende gehien animatu gura izan du auzo-konpost proiektuan parte hartzera: "Nahi adina familia batzeko dei egin nahi dugu".

### Hobaria hondakinen tasan

Auzo-konpostean parte hartzen duten herritarrek hondakinen tasan %25eko hobaria izango dute. Hala, hobari horretaz disfrutatuta nahi duten herritarrek udaletxeko Herritarren Arreta Zerbitzura jo behar dute, eta izena emateko eskerra-orriaz gain, hondakinen tasaren azken ordainagiria aurkeztu beharko dute.



NIRE USTEZ

JONMIKEL INTSAUSTI

## Asimetriak

1960ko hamarkadan, asimetrian bizi zen Zumarragako Renfeko geltokira egunero trena hartzera jaisten zen baserritarra: espainolez jakin ez eta nahita luzatzen zion leihatilako langileak txartela erostearen denbora, haren euskal elebakartasunez aurpegira trufa egin artean. 1999an, Zuberoako kantariak minez adierazi zigun, etxeko sukaldean egindako elkarrizketan, ez zuela haboro ogia uskaraz erosterik: frantsesa nagusitua zen-eta auzoko *boulangerie*-n.

Azken asteotan ataka are estuagoan jarri nahi gaituzte mailukadaz epaile espainiarrek: Irungo udaltzain, Barakaldoko Kultur Etxeko langile edo Donostiako Uliazpi Zentroko begirale erdaldun berriek libre lukete lanean euskaraz ez egitea. Asimetrian bizi gara: ondoko bidea zabal-zabala badugu, darabilgun espaloia are estuago ari zaigun egiten. Argi azaldu zuen egoera Olatz Zugastik 2015eko *Joko arauan* kantari: *Mintzaira arrotzean, edo berdin zurean, ez duzu erabaki ahal, zurea ez den joko arauan*. Eta ez, joko eta mintzaira horiek ezin dira gureak izan.



Zeramikarekin jolasean. PXFUEL

## Gaur itxiko da apirileko Arte Jardunaldietarako izen-ematea

Apirilaren 12tik 26ra bitartean izango dira jardunaldiak eta gaur da izena emateko azken eguna

**Mikel Zumalde Etxabe** OÑATI

Antixena gaztetxeak apirilerako antolatutako Arte Jardunaldietan parte hartzeko epea gaur amaituko da. Apirilaren 12tik 26ra, buztina landu, argazki esteno-peikoa, graffitiak, Photoshop, mural margotzea, serigrafia eta pintura tailerrak egingo dituzte. Tailerrez gain, komikigintzak Euskal Herrian izan duen ibilbideaz berba egiteko mahai-ingurua antolatu dute, eta Artixena eguna ospatuko dute apirilaren 22an. Egun horretarako azoka antolatu dute eta egingo duten bazkariko txartelak Arra-

no Tabernan eskuratu daitezke. 24an, *Bomb it* dokumentala ikusiko dute.

### Zozketa

Hasiera batean, apirilaren 12an egin behar zuten buztin tailerra, eta 19rako aurreikusita zegoen *Tornuarekin jolasean* tailerrean plaza mugatuak gainditu egin dira; hori dela eta, tailerrak bi egunetan egin beharrean lau egunetan egingo dituzte. Hala, buztin tailerra apirilaren 12an eta 13an egingo da eta *Tornuarekin jolasean* tailerra, apirilaren 19an eta 20an.

# Uxue Oses eta Madalen Etxegarai, sasoi betean

Oses txapeldun izan zen joan den astean Laboral Kutxa Masterrean, elite mailan, binaka, Olatz Arrizabalagarekin; astebete lehenago, Etxegaraik jantzi zuen txapela, txapelketa berean, lehen mailako pilota mistoan, Irati Zabalarekin bikotea osatuta

**Iñigo Barrena Kortabarria** OÑATI

Bi pilotariak joko maila ezin hobean daude, eta horren adierazle da azken bi asteetan txapela bana ekarri dutela Oñati aldera: bata, Laboral Kutxa Masterrean, binaka, elite mailan; eta besteak, txapelketa berean, binaka, lehen mailako pilota mistoan.

Biek ala biek aitortu dute "ez zutela espero" txapeldun izatea eta "oso pozik" daudela egindako lanarekin. Bakoitzak, ordea, bere helburuak izan ditu txapelketan zehar. "Nik txapelketan parte hartzea eta gozatzea nuen helburu, eta gutxinaka lan eginda iritsi da hori", dio Osesek. Etxegarairentzat, berriz, konfiantza hartzea izan da garrantzitsua: "Nire helburu nagusia konfiantza hartzea zen, eta txapelketa hasi zen unetik ikusi nuen hori; emaitzak ere aldekoak ziren, eta, azkenean, txapela ekartzea lortu nuen".

**Hurrengo helburuak**

Emakumezkoen pilotak ez du etenik, geroz eta txapelketa gehiago jokatzen baitira urtetik urtera. Aurrera begira jarrita, Etxegaraik eta Osesek orain dauden sasoi aprobeztatzuz "pilotarekin gozatzen" jarraitu nahi dute. "Aurreko urtean lesioak medio ez nuen behar beste go-



Etxegarai eta Oses txapelarekin. IÑIGO BARRENA

zatu, eta orain kantxan maila ona erakusten jarraitu nahi dut", adierazi du Etxegaraik. Eta Osesek ere antzerako helburuak ditu aurretik: "Une honetan kantxan dudak konfiantzarekin jarraitu nahi dut, eta, beste txapel bat jantzeko aukera baldin badago, ongi etorria izango da".

**Pilotan jarraitzeko asmoa**

Madalen Etxegarai eta Uxue Oses batxilergoko bigarren maila ari dira egiten egun, eta laster erabaki garrantzitsua hartu beharko dute: non ikasi,

hain zuzen. Horrek pilotarekiko duten harremana aldatuko dien galdetuta, argi dute biek. "Kanpora joaten bagara ere, aukera asko izango ditugu entrenatzen jarraitzeko, eta, alde horretatik, ez dut uste pilotan jokatzeari utziko diogunik", aitortu du Osesek. Etxegaraik uste du ikasketak eta pilota bateragarriak direla: "Orain arte, biak uztartzea lortu dugu, eta, askotan, pilota ihesbide bat izaten da; beraz, Oñatin edo kanpoan ikasi, berdintza jarraituko dugu pilotan".



Gimnasia erritmikoko zuzendaritzako kide berriak. IÑIGO BARRENA

## Aldaketak gimnasia erritmikoko zuzendaritza sailean

Resu Muruak presidente kargua utzi du, 17 urteren ostean; haren ordezkari lau kide berri batu dira zuzendaritzara

**I.B.K. OÑATI**

Aloña Mendiko gimnasia erritmikoko sailak aldaketa garrantzitsua izan du. Resu Muruak, azken 17 urteetako presidentea, kargua uztea erabaki du; haren ordezkari lau gurasok osatutako talde batek hartu du zuzendaritzaren ardura.

Orain arte, Resu Murua eta Lide Osinaga kirol arduraduna izan dira gimnasia erritmikoaren saila aurrera eraman dutenak, baina errelebo beharra zegoela argi zuten. Osinagak kirol arduradun jarraituko du, baina aurrerantzean alboan

aire freskoa izango du aurrera eraman beharreko lanak egin ahal izateko.

**Zuzendaritza berria, gogotsu**

Ekhine Zumeta, Miriam Urzelai, Gema Muñoz eta Itziar Usandizaga dira zuzendaritzara batzordea batu diren lau kide berriak, eta "ilusio handiz" hartu duten aukera dela aitortu dute. Era berean, sailari "indar pixka bat" emateko asmoa agertu dute; horretarako, "hainbat ikuspuntutatik" ekingintza gehiago aurrera eraman nahi dituztela gaineratu dute.

## Asteburuan hasiko dira Herriko Futbol Txapelketako finalerdiak

Bihar, Kopako finala erabakita geldituko da; apirilko hirugarren asteburuan jokatuko dira Ligako finalerdiak

**I.B.K. OÑATI**

Herriko Futbol Txapelketa azken txanpan sartuko da bihurtik aurrera, finalerdiak jokatzen hasiko baitira. Zirt edo zart egiteko unea iritsi da Liga Txapelketako zein Kopako taldeentzat. Hain zuzen, Kopako finalerdiak jokatuko dira lehenik, asteburu honetan. Lehen partidaren Sarutobi eta Shatoken Moura taldeek neurtuko dituzte indarrak, bihar 14:00etan. Arratsaldean, 18:30ean, berriz, Frakas Brabas eta Tutelatraku arituko dira nor baino nor gehiago finalerako txarte-

laren lehian. Finala, aldiz, apirilko azken asteburuan jokatuko da.

Bestalde, Liga Txapelketako finalerdietako lehen neurketan Albok eta Weinguter lehiatuko dira; bigarren finalerdian, ostera, Mazedonia eta Sasquatch taldeen artean irtingo da bigarren finalista. Neurketa horiek Aste Santu ostean jokatuko dira eta finala, Kopakoarekin batera, azken asteburuan. Lau taldeentzat helburua argia da: 2023ko Herriko Futbol Txapelketako titulu nagusia eskuratzea.

## Gazte mailako pilotariak, txapeldun

Gizonezkoetan ere albiste pozgarriak izan zituzten Aloña Mendiren pilota sailekoek. Gipuzkoako Mendebaldeko finalak jokatuta ziren Zubikoako pilotalekuan, eta, gazte mailan, Iñaki Barrena Lete eta Manex Madinagoitia Igarzabal izan ziren txapeldunak: 22-10 irabazi zioten Gaztelupe taldeko Jokin Mendizabal eta Josu Mendizabal bikoteari.



Madinagoitia eta Barrena, kopekin. ALOÑA MENDIREN PILOTA SAILA

# Komunikazio Campusa 2023

## Bideo-podcasta

Sorkuntza eta zabalkundea sare sozialetan



**NOIZ:** 2023ko uztailaren 3tik 7ra.

**TALDEA:** 15 lagun, gehienez.

**NON:** Mondragon Unibertsitateko Komunikazio Campusean, Aretxabaletan.

**ORDUTEGIA:** 09:00-13:30 (ordu erdiko atsedenaldiarekin).

**NORENDAKO:**

DBH-4ko eta batxilergoko lehen mailako gazteak.

**IZEN-EMATEA:**

2023ko ekainaren 19ra arte.

**PREZIOA:** 125 euro.

Master-eskolak adituen eskutik:



**Xabier Urzelai**

Goienako kazetaritza-argazkigintza aditua.



**Ainhoa Vitoria**

Komunikatzailea eta Gazteako irrtati esataria.



**Unai Portilla**

Ikus-entzunezko Komunikazio Graduko irakaslea.



### Anima zaitetz eta eman izena!

ANTOLATZAILEAK:

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA



**Mondragon  
Unibertsitatea**

Humanitate eta Hezkuntza  
Zientzien Fakultatea

**Izen-ematea zabalik:**

[www.labur.eus/komunikaziocampusa2023](http://www.labur.eus/komunikaziocampusa2023)

**Informazio gehiago:**

600 02 27 20

[komunikaziocampusa@mondragon.edu](mailto:komunikaziocampusa@mondragon.edu)



Iazko lasterketaren irteera. 10:00etan hasiko da proba, Arrasateko plazan. IMANOL SORIANO

## Etxekoak daude onenen artean lehiatzeko

**MENDI LASTERKETAK** Arrasate-Udalatxek 350 korrikalari batuko ditu etzi, eta, tartean, maila oneko atletak izango dira. Ainara Urrutia, Ane Zabala, Aritz Kortabarria eta Iñigo Alzola ordezkari debagoiendarrak aurrealdean ibiltzeko hautagai dira

### Xabier Urzelai Atxa ARRASATE

Domekan (10:00) Arrasate-Udalatxek zazpi urte beteko ditu. Lasterketaren ezaugarriei dagokienez, Mondraitzeko lagunek orain artekoari eutsi diote –21 kilometro eta 1.200 metroko desnibel positibo–, baina sari hobek egongo dira, eta, *streaming* bidez, lasterketaren hedapena indartu egin nahi dute.

### Errekorrak eguneratuta

Iazko edizioa esanguratsua izan zen, Gontzal Murgoiatik eta Onditz Iturbek lasterketako errekorrak ondu zituzten eta. Murgoiatik 1.47.22an geratu zuen erlojua eta Iturbek 2.07.32 egin zuen lasterketa. "Babesle zein laguntzaileen laguntzari esker, sari ekonomikoak handitu egin dira edizio honetan, eta garaikurrak berri

egin dira. Berritasun nagusi bezala, gainsari berezia ere egongo da ibilbideko denbora ofizialak hobetzen dituen lehen lasterkariarentzat", adierazi zuen Ganix Lasak prentsaurrekoan.

### Erdiak, debagoiendarrak

Aurreratu moduan, irteera-puntuan 350 korrikalari izango dira, eta horietatik %52 Debagoiene-

koak dira (184); tartean, 119 arrasatear. Eta emakumezkoen parte-hartzea ere handitzen doa, nahiz eta oraindik ere txikia den gizonezkoekin alderatuta. Hala, 37 emakumezko izango dira lasterketan; guztien %10. Nabarmentzekoa da kanpotik datozenen artean Euskal Herriko mugetatik haragokoak ere etorriko direla lasterketara; besteak beste, Bartzelonatik, Gironatik, Albacetetik, Asturiastatik eta Zaragozatik.

### Aurrekoen lehia

Eta korrikalari horien guztien artean jende azkarra dago. Mondraitetik aurreratu dituzte izen batzuk: "Lasterketa irabaztera deituak daudenen artean, emakumezkoen artean hiru edizioetan txapela janztea lortu duen Oihana Azkorbeitia izango da irteeran. Dena den, Andrea Garai, Sonia Lopez eta bailarako Ainara Urrutia garaipeneko lehian ibiliko direla espero da, ahaztu barik lasterketa irabaztea zer den badakien Ane Zabala arrasatearra ere egongo dela. Gizonezkoen artean, aurreko edizioetan Arrasaten txapela janztea lortu duen Asier Larruzea izango da faborito nagusia. Garaipenerako lehian, Ander Iñarra, Diego Diaz eta Iñigo Alzola eta Aritz Kortabarria arrasatearrak ere ibiliko dira".

### Udalara oinez joateko eskaera

Lasterketaren beste osagai bat publikoarena da, korrikalariak izugarri eskertzen dute-eta ikusleen berotasuna. Eta Mondraitzeko lagunek eskaera egin dute. "Jendeari eskatu nahi diogu Udalara oinez joateko, han auto pilaketak saihesteko", adierazi zuen Eneko Urrizalkik.

## 'Goiena.eus' atarian proba zuzenean

Mondraitz taldeko lagunek iaz egin zuten *streaming*-erako jauzia, eta aurten apustua indartu egin gura izan dute. Hala, egunean bertan Artemaneko, GOIENAKO eta Mondraitzeko kolaboratzaile sarea ibiliko da lanean lasterketa zuzenean erakusteko. Ibilbidean zehar hainbat puntu estrategikotan izango dituzte kamerak, eta, eguraldiak baimentzen duen arte, drone bidez hartuko dituzte irudiak bai Udalatxan eta baita Besaiden ere.

Emankizuna 09:45ean hasiko dute, lasterketa hasi baino hamabost minutu lehenago, eta astelehenean *Harmailatik* saioak (21:30, 23:30) erakutsiko ditu egunak emandakoak.

## "LASTERKETAREN ZUZENKOAN APUSTUA EGIN DUGU, INDARTUTA

GANIX LASA, MONDRAITZ

## PARTE-HARTZAILEEN %52 DIRA BAILARAKOAK, ETA EMAKUMEZKOAK, %10: GUZTIRA, 37

## Hiru urteko hutsunea betetzera dator Bergara Hiria torneoa

**PILOTA** Apirilaren 18tik maiatzaren 29ra bitartean jokatu dute, eta Debagoieneko zortzi pilotari daude

### Xabier Urzelai Atxa BERGARA

Bergara Hiria 25 urte beteko ditu aurten, eta, hiru urtetako hutsunearen ondoren, indarberrituta dator txapelketa. "Beselako torneo eta partiduekin klubean lanpetuta ibili gara,

baina pandemia tarteko duela hiru urte bertan behera geratu zen torneo; dena gertu genukan. Hala, orain, gainontzeko pilota elkarteetatik esaten zigten ea noiz errekuiperatu behar genuen torneo. Bada, interesa

dagoela ikusita, animatu egin gara", adierazi du Julen Aranburuk. Hain zuzen, apirilaren 18an hasita, 40 pilotari batuko dituzte Bergaran –sei bikote izango dira emakumezkoen kategorian, sei promesen kategorian eta zortzi bikote elite mailan–.

### Debagoieneko zortzi

Txapelketak puntako pilotariak batuko ditu, eta tartean egongo dira Debagoieneko zortzi. Emakumezkoetan, Maddi Barrocal (Bergara), Uxue Osés



2019ko sari-banaketa ekitaldia. GOIENA

(Oñati), Maddalen Etxegarai (Oñati) eta Leire Galeano (Antzuola). Eta elite mailako gizonezkoen kategorian batuko dira Ander Murua (Arrasate), Ander Etxaniz (Bergara), Iñigo Erle (Oñati) eta Manex Balerdi (Antzuola). "Bertako pilotariei lekua egiten saiatzen gara, baina ez bertakoak direlako bakarrik, baita maila oneko pilotariak direlako ere". Partiduak martitzenetik jokatu dituzte (19:30) eta finalak Pentekostean izango dira.



# Ezin amaitu trabaz betetako lasterketa

**DUATLOI EGOKITUA** Arazo mekaniko bat tarteko, Joseba Azkaratek ezin izan du amaitu Espainiako Duatloi Txapelketa. Ez da traba bakarra izan: Antxintxikatik salatu dute Espainiako Federazioan ez dagoela araudia egokitzeko borondaterik

**Xabier Urzelai OÑATI**

"Joseba Azkaratek dituen zailtasun handienak ez dira fisikoak". Halaxe laburtu du Antxintxikako ordezkari Aitor Rementeriak joan den astean Sorian gertatu zitzaiena. Izan ere, eta paradoxi-koa bada ere, atleta oñatiarrak Espainiako Duatloi Paralimpikoan aurkitu ditu traba handienak.

Kontua da halako probak oraindik ez daudela egokituta lesio maila handia duten kirolarien ezaugarrietara, eta salatu dutena da Espainiako Federazioaren partetik utzikeria dagoela: "Sorriara joan aurretik bagenekien zerekin egingo genuen topo. Alde horretatik, azpimarratzekoa da Josebak lasterketan izan zuen jarrera, traba horiek guztiak gainditzen saiatu zelako eta lasterketa amaitzeko haren eskutian zegoen guztia egin zuelako".

**Iaz gauza bera, Avilesean**

Zoritxarrez, iaz Avilesean gertatu zitzaiena Sorian errepikatu da asteburuan: "Iaz lasterketa hasi eta berehala Josebak aldapa gogor bat gainditu behar zuen, eta zirkuitu hartan ez aurrera eta ez atzera geratu zen. Kontua da gaur egun dagoen araudiarekin lesio maila handiak dituzten partaideek ez dutela ia aukerarik proba amaitzeko, araudia gerritik gora arazorik ez duten partaideak kontuan hartuta eginda dagoelako. Ibilbide aldapatsuak, aulkitik bizikletara pasatzeko pertsona bat baino gehiagoren laguntza izateko ezintasuna... Eta hori guztia gaindituz gero, nola poliki zozen, lasterketa amaitzeko denboraz kanpo geratzen zara. Izan ere, Sorian garbi esan ziguten gehienez bi ordu genituela lasterketa egiteko. Bada, Espainiako Federazioan araudiari buruz dauden hutsuneak azaleratzeko asmoarekin joan ginen hara, eta, noski, lasterketa bukatzeko asmoz, baina ez zen posible izan".



Joseba Azkarate, ezkerrean, Soriano irteera-puntuan. GOIENA

## IAZ AVILESEN GERTATU MODUAN, SORIAN ERE ZIRKUITUA EZ ZEGOEN ONDO EGOKITUTA

**Arazoak galga batekin**

Joseba Azkarate ez zen helmugara iritsi, zirkuituan zehar arazo mekanikoak izan zituelako. "Zortea izan genuen Josebaren bizikletako balaztako takoa askatu egin zelako. Alegia, Joseba freno barik geratu zen. Lasterketan bertan Josebak ezin du ikusi hori gertatu denik, eta eskerrak ez zuen aldapa behera harrapatu, sekulako kolpea harrezakeelako... Horregatik eskatzen

**"ESKERRAK GALGA EZ ZITZAIOLA MALDAN BEHERA APURTU"**

**"ARAUAK EZ DAUDE TETRAPLEGIKOEI EGOKITUTA"**

AITOR REMENTERIA, ANTIXINTXIKA

dugu lasterketan zehar Joseba taldeko kide batekin joatea doan, baina ez digute halakorik baimentzen. Ezta boxetan Joseba bizikletara pasatzeko bi lagun laguntza izatea ere. Bada, hark arazo mekaniko hori izan zuenean, publikoko ikusle batek bultzatuta egin behar izan zuen helmugarako bidea, aipatu moduan, ez zigutelako haren ondoan joaten utzi. Zentzurik ez duen araudia da hori, gure inguruko edozein lasterketako antolatzaileak irtenbideak aurkitzen saiatzen dira, baina Espainiako Federazioan ez dago batere borondaterik araudi hori egokitzeko", adierazi dute Antxintxikatik.

Antxintxikatik eskatzen dutena da paraplejia dutenez harago tetraplegia duten kirolariak ere aintzat hartzen hastea. "Espainiako Federazioak egokitu egin beharko luke araudi hori. Kontua da apenas dagoela Joseba Azkaraten ezaugarriak dituen kirolaririk, baina hor dago Azkarateren meritua. Izan ere, Federazioaren jarrera horrekin guri iristen zaigun mezua da: 'Ez zaitezte etorri, lana baino ez duzue-eta ematen'. Eta hori aldatu egin behar da".

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

### FUTBOLA

GIZ. OHOR. ERREG.

#### Bergara-Mutriku

Zap. 12:00. Agorrosin.

#### Lagun O.-Aloña Mendi

Zap. 15:30. Garmendipe.

#### Mondra-Urola

Zap. 16:00. Mojategi.

#### UDA-Beti Gazte

Dom. 16:30. Ibarra.

EMAK. OHOR. ERREG.

#### Intxaurdi-Leintz Ariz.

Zap. 18:30. Donostia.

#### Bergara-Hernani

Zap. 12:30. Ipintza.

GAZTEAK, EUSKAL LIGA

#### Antiguoko-

#### Aretxabaleta

Zap. 15:30. Berio.

#### Bergara-Gernika

Zap. 16:00. Agorrosin.

GORENGOEN MAILA

#### Antzuola-Ikasberri

Zap. 11:30. Eztala.

#### Billabona-Mondra

Zap. 16:00. Billabona.

#### Danena-UDA

Zap. 16:00. Zizurkil.

#### Elgoibar-Bergara

Zap. 17:30. Mintxeta.

### ARETO FUTBOLA

MAILA NAZIONALA

#### Mondrate Atsedena.

#### Eskoriatze Atsedena.

GIPUZKOAKO TXAP.

#### Herrikide-Mondrate

Gaur. 20:00. Tolosa.

#### Ingou C. Aloña-Euskal.

Zap. 18:00. Zubikoa.

GIPUZK. HIRUG. MAILA

#### Oarso-Eskoriatza

Gaur. 20:30. Errenteria.

### SASKIBALOA

EBA

#### Tabirako-MU

Zap. 19:00. Landako.

EMAK. LEHEN MAILA

#### Mondragon Uniberts.

Atsedena.

GIZON. LEHEN MAILA

#### MU-Ebaki Solutions

Zap. 16:00. Iturripe.

GIPUZK. LEHEN MAILA.

#### Soraluce BKE-Take O.

Gaur. 20:45. Labegarai.

#### Mekalki Aloña-Inter.

Zap. 18:00. Oñati.

### ESKUBALOA

GIZON. EUSKA. TXAP.

#### Urdaneta-Fagor Prof.

Dom. 12:15. Berango.

EMAK. EUSKAD. TXAP.

#### Cons. Ug. Aloña-Etxeb.

Dom. 12:00. Zubikoa.

GIZ. GIPUZK. TXAP.

#### Urola-Mugarri Ingou

Zap. 18:00. Zumarraga.

#### Soraluce BKE-Hondar.

Zap. 18:00. Bergara.

### PILOTA

#### UDABERRI SARIKO

#### FINALAK:

**Aretxabaletan:** Gaur, 19:00.

**Bergaran:** Gaur, 19:15



Bergarako neskek Zumaikoren kontra, iaz. GOIENA

## Lagun Onaken kontra 'finaletako bat' Aloña Mendirendako

**FUTBOLA** Oñatikoe kontrario zuzena den Azpeitiko taldearen zelaietan jokatu dute zapatuan (15:30)

**X.U. ARRASATE**

Ohorezko erregional mailako lau ordezkariak zazpi jardunaldi dituzte azken esprinta egiteko, baina denak ez daude egerra berean. Aretxabaletak (38) eta Bergarak (36) azken bi hilabeteetan bideratu dute, neurri handian, denboraldia, eta arnasa hartu dute, larritasuna ematen duten postuetatik urrundu. Mondrak (17), berriz, aspaldi ikusi zuen aurtengoak urte gogorra izan behar zuela. Sailkapenaren azken postuak errealtatea modu gordinean erakus-

ten du, baina zuri-moreek amaierara arte lehiakor izaten jarraitu nahi dute, eta azken hiru partiduak berdindu izanak erakusten du hori. Hala, hiru talde horiek etxean jokatu dute asteburuan.

Aloña Mendirendako (28) azken zazpi jardunaldi hauek intentsitate handikoak izan behar dute; nahiz eta jaitziera postuetan egon, euren esku dago mailari eustea. Eta zapatuko kontrario Lagun Onak (32) da, hain zuzen, kategoriari eusteko kontrario zuzenetako bat.

# "Pozik nabil aktore eta zuzendari obra berean"

**MIREIA GABILONDO** AKTOREA ETA ZUZENDARIA

'Ez naiz inoiz Dublinkin egon' lana eskainiko du Tentazioa Produzioak-ek domekan, 19:30ean, Amaia antzokian; 'Arrasate.eus'-en eta leihatilan sarrerak, hamar eurotan

**Aitziber Aranburuzabala Juldain**  
ARRASATE

Proiektu askorekin batera ari da Bergarako: gaur, Santiagon eskainiko duten *Semea pixka bat motelago dabil soilik* lanean parte hartuko du; eta domekan, Amaia antzokiko taularen gainean Amesti familiako *Begoña ama* izango da, obrako zuzendari izateaz gainera.

**Komedia da, baina garrantza.**

Egunerokotasunari buruz egiten dugu berba, familiarterekin harremanez, eta ze zaila izaten den askotan bestea den modukoa onartzea. Amesti familia gara, gurasoak eta semea eta alaba. Alaba orain dela hiru urte etxetik joan zen, haserre; homosexuala dela esan zigun, guk ez genuen onartu eta Londresera egin zuen alde. Hiru urteren ostean etxera itzuli da Gabonetan eta denak prest gaude konpontzeko, baina alaba neska-lagunarekin etorriko da eta besteok ez dugu ondo ulertuko hori.

**Zu zeu ama zara, beste behin, ezta?**

Adin honekin hala tokatzen zait; kar-kar. Ama askok bezala, gauzak ondo egin nahian gaizki egiten ditut askotan; kontu asko eskatzen dituen ama eta isilik egoten ez dakien ama da Begoña.

**Alboan dituzu Iñigo Aranburu, Iñigo Azpitarte eta Aitziber Garmendia.**

Lantalde oso polita egin dugu. Aranbururekin aurretik lan egin barik nengoen, baina *Iñaki* aitaren papererako aproposa iruditu zitzaidan. Azpitarterekin *Sisiforen paperak* lanean izan nintzen; gustuko aktorea dut, eta *Martin* semea izateko aproposa. Eta Aitziber Garmendia *Elena* alaba da. Askotan zuzendari izan dut, aktore oso kuttuna niretzako. Publiko helduentzako egindakoa da, gazteentzako ere aproposa.

**Lan bikoitza duzu: aktorea eta zuzendaria; zelan daroazu?**

Lehenengo aldia da bizitzan, eta, erabakia hartzea kostatu egin zitzaidan arren, oso gustu-

ra nago orain eta erraza egin zait besteak zuzentzea, baita neure burua ere. Sara Cozar izan dut zuzendari-laguntzaile, eta esperientzia polita ari da izaten, bai.

**Markos Goikolea da istorioaren idazlea; nor da?**

Iruñekoa da, orain dela zazpi urte Bartzelonan bizi bada ere; antzerkigintzan eta telesailetan ari da lanean. Patxo Telleriak eta biok iaz zuzendu genuen *Antzerkigintza berriak* laborategian ezagutu nuen. Orduan idatzi zuen istorio hori, eta Tentazioa-k taularatzeko aproposa iruditu zitzaidan.

**Zer diozu eszenografiaz?**



Mireia Gabilondo. MARCEL ARRAYAGO

Komedia askotan izaten den moduan, batez ere, aktore-lanak dauka pisua. Eszenografia nahiko xumea da: etxeko egongela bat eta atzean dagoen balkoia da ikusiko duguna, eta kontakizun osoa jarraian eginda dago, denbora-salto barik.

**Aurrera begira, baduzu esku artean beste proiekturik?**

Irailean hasiko gara orain borobiltzen ari garen *Esnearen kolorekoa* izeneko ikuskizun berria prestatzen.

**Antzerkiaren Nazioarteko Eguna izan zen astelehenean; zer da egun hori zuretzako?**

Ondo dago guretzako egun bat izatea, eta pozik joaten gara Donostia Antzerki Sariak banatzen dituzten galara, nahiz eta aurten ez garen joan; Galiziara etorri garenez, ezin han izan.

**Ibilbide luzea duzu antzerkigintzan; atzera begiratu, zer diozu?**

Zaila da honetaz bizitzea, baina kide naizen Ttanttaka taldeak 40 urte beteko ditu eta Tentazioa Produzioak-ek, 25 urte; hortaz, ezin kexatu, ezta?

## Bailarako Dantzari Eguna egingo dute bihar, zapatua

Aretxabaletako, Antzuolako, Arrasateko eta Oñatiko dantzari helduak elkartuko dira

**A. A. J. OÑATI**

Iaz Aretxabaletan egin zuten Bailarako Dantzari Eguna, Leizarra Musika Eskolak antolatuta, eta bihar, zapatua, Oñatiko Oñatz Dantza Taldekoek egingo dituzte anfitrioi-lanak. Iaz moduan, eskualdeko bost talde batuko dira biharko topaketan: herrikoez gainera, Arrasateko Arrostaitz eta Lore Gazteak taldekoak, Aretxabaletako Leizarra Dantza Taldekoak eta Antzuolako Oinarin taldekoak, elkarrekin goiz-pasa ederra egin eta herritarrei zein eskualdetik joango diren euskal dantza zaleei erakustaldi politik eskaintzeko.

**Kalejira eta emanaldia**

Erdiguneko kaleetan zehar 11:30etan hasita egingo duten kalejirarekin ekingo diote biharko topaketari, eta, ondoren, 12:00etan hasiko da ekitaldi nagusia; hau da, Foruen Plazan elkarrekin egingo duten dantza emanaldia. Eguraldi txarra eginez gero, ekitaldi nagusia Zubikoa kiroldegian egingo dute. "Ilusio eta gogo handiz prestatu dugu biharko topaketa eta irrikaz gaude elkarrekin egun polita pasatzeko. Animatu eta etorri, bada!", diote antolatzaileek.



Iñigo Azpitarte, Mireia Gabilondo, Iñigo Aranburu eta Aitziber Garmendia. MIKEL BLASKO



# Folk, rock eta pop ukitua duten melodia gozoak

Juan Vallsek gidatzen duen Oñatiko Ramada Inn eta Aitor Aldanondo bergararra buru duen Harria taldeen kontzertua izango da bihar, zapatua, gaztelekuan, 19:00etan hasita; sarrerak zortzi eurotan daude eskuragarri

## Aitziber Aranburuzabala Juldain OÑATI

Juan Vallsek (gitarra eta ahotsa), Iñigo Ugartek (gitarra), Ander Etxanizek (baxua) eta Mikel Marcok (bateria) osatzen duten Ramada Inn taldea "gogotsu" dago iazko otsailean argitaratu zuten *Pills for horses* estreinakoa lana herritarren aurrean zuzenean gaztelekuko agertokian eskaintzeko. "Publikoaren partetik harrera oso ona izan du eta musika-agerkarietan jasotako kritikekin pozik gaude, iazko disko onenen artean izendatu zuten eta. Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Kutxa Fundazioak antolatzen duten Katapulta Tour Gipuzkoa birarako aukeratzeak ere indarra eman digu, eta udazkenetik aurrera hainbat emandaldi egiteko aukera izango dugu; musika jaialdietan gehienak", azaldu du Juan Vallsek.



Oñatiko Ramada Inn taldea, Antixena gaztetxean iazko martxoan. IMANOL SORIANO



Bergarako Harria taldea, Seminarioxan otsailean eman zuen kontzertuan. I.S.

## Diskokoak eta kantu berriak

Biharko kantu-zerrendan, diskoko kantuez gainera, abesti berriak ere izango dituzte. "Buru-belarri ari gara uztailean Berako Atala estudioko Iñigo Irazokirekin grabatuko dugun bilduma laburra prestatzen, eta esango nuke estilo aldetik aldatu bat dutela. Hiru ale berri eskainiko ditugu bihar".

## Bergarakoak ere "gogotsu"

Aitor Aldanondo (gitarra akustikoa eta ahotsa), Maitane Azkarate (ahotsa), Ekaitz Aranberri (gitarra eta ahotsa) eta Guille Sanz (bateria) dira Harria taldea. "Azaroan argitaratutako

disko osoaz gainera, hiru bertsiotako eskainiko ditugu. Ander Elortza (baxua) eta Adolfo Alcocer (gitarra) izango dira gurekin. Zailtasunak ditugu kontzertuak lotzeko; bada, gogotsu goaz Oñatira", dio Aitor Aldanondok.

# Koultur Ostegunak zikloaren baitan, apirilean bi kontzertu

Janus Lester beratarra apirilaren 20an izango da gaztetxean eta Eibarko Kokein taldea apirilaren 27an

## A. Aranburuzabala ARRASATE

Aste Santuko oporrak tarteko, apirileko azken bi eguenetarako proposamenak egin ditu Kooltur Ekintzak taldeak. "Publiko gaztearen eta pop-zaleen artean egon den sorpresa bitxienetako bat da

Berako Janus Lester musikaria. Kontzerturik eman barik ezagun egin zen bakarlarri moduan, eta gaur egun taldearekin ari da zuzenekoetan. Oinarrian popa euskaraz egiten dute, baina baditu musika beltzaren ukituak

ere", dio antolatzaile taldeko Iker Barandiaranek.

## Kokein taldea apirilaren 27an

Zalao Urain abeslariak gidatzen duen boskoteak hartuko du azken egunean lekukoa Arrasateko gaztetxeko taularen gainean. "Taldea beterranoa da; zazpi disko dituzte argitaratuta; azkenekoa, iaz, *Atomika*, Mauka Musikagintzaren eskutik. Rocka zentzu oso zabalean lantzen du boskoteak eta zuzeneko indartsuak egiten ditu".

## Goienakideen txokoa

### MARTXOKO IRABAZLEAK

- ERRIGORAKO SASKIA**  
Gaizka Eraña Arana (Arrasate)
- HARREMAN DENDAKO OTARREA**  
Iker Zelaia Rodríguez (Onati)
- ARRIKRUTZ KOBETAKO SARRERAK**  
Santiago Bernal Julian (Onati)  
Ainhoa Murgiondo Aramendi (Aretxabaleta)  
Alberto Galarraga Aranzabal (Bergara)
- ZUMELAGA JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA**  
Ekain Sotil Muniategiandikoetxea (Bergara)
- SANTA ANA JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA**  
Dorleta Mendizabal Kortazar (Bergara)
- GOIKO BENTA JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA**  
Amaia Iñarra Murua (Onati)
- 'HOBE IXILIK' ANTZERKIRAKO SARRERAK**  
Roberto Gomez Benito (Bergara)
- 'ARRAINAK BIHOTZEAN' HAUR ANTZERKIRAKO SARRERAK**  
Ainhoa Arbelaitz Gantxegi (Bergara)
- REALAREN ETA ELXEN ARTEKO PARTIDARAKO SARRERAK**  
Jaione Igartua Gallego (Bergara)
- REALAREN ETA CADIZEN ARTEKO PARTIDARAKO SARRERAK**  
Irati Lakue Zeziaga (Arrasate)

#### SARIAK JASOTZEKO:

Antzerkizako sarrerak. Goiena Kibeko txartela eskutik, bizi sarrera izango dituzue. Antzerkizako txartelagilean. Sarrerak hiru hilabeteko epean izango dira. **ARRIKRUTZ KOBETAKO OTARREA** 9:43:09:20:00. Orotarria: asteartetik igardera 10:00 - 17:00 (sarrera dortsu hitzordua egiteko). Hurrengo denborako otarria. **Otarria** jasotzeko, jo zuzenean, bazkide txartelarekin, Hurrengo denborako. Arazoteko Eroski hipermerkatuan duen denborako. **Errigorako saskia jasotzeko**, zuzuki GOIENAKide aplikazioan. Sarrera jasotzeko. **IRABAZLEAREN TXARTELA** eskutik edota **IRABAZLE ZENBAKIA** adfazean eman behar da GOIENA Otolas Lantzetan 31. Asteleke 9:43:25:05:05. Orotarria: astelehenetik eguena 09:00 - 18:00. Egubakoitzean: 08:00 - 14:00

## Realaren eta Getaferen arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean

### GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Real-Getafe partida beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuzuki eta zuzuki aukeratzeko beste lagun batek. **Real Arena futbol zelaiko tokirik onenetik. Partida apirilaren 8an, zapatua, 18:30ean izango da.**

Parte hartzeko azken eguna: apirilak 2

### Irabazi bi lagunendako otordua

#### SIRIMIRI JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkariako Otorduan atala eta hartu parte! Parte hartzeko azken eguna: apirilak 5.

- ☎ 943 25 05 05
- ✉ goienakide@goiena.eus
- 📱 "Goiena app"-a / zozketa atalean.
- 🗨 GOIENAKIDE Jatetxea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...

BAZKIDETZA KUOTA: 65 €  
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus




DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!

# goiena kide


Okm: batzen gaituen distantzia.



**URTEURRENA**



## Enkarna Grisaleña Gil



2022ko martxoaren 7an hil zen, 93 urte zituela.

---

Urteurreneko meza zapatuan, apirilaren 1ean, izango da, 20:00etan, Araozko San Miguel parrokian.

---

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko senideon izenean. Oñatin, 2023ko martxoaren 31n.

**OROIGARRIA**



## Jesus Mari Abarrategi Ibabe



2023ko martxoaren 22an hil zen, 67 urte zituela.


---

*Gogoan izango zaitugu.*

---


1955eko kintada.  
Aramaion, 2023ko martxoaren 31n.

**OROIGARRIA**



## Isabel Diego Ortiz

### Jose Ignacio Uribarri Jausoro



---

*Leialtasuna eta ohorea.*

---

Eskoriatzan, 2023ko martxoaren 31n.

**BABESLEA**

# Oroilore

Maitasunez bizi,  
maitasunez agurtu

Guri deitu zuzenean edo, nahitago baduzue, jakinarazi zuen aseguru-konpantziari gurekin nahi duzuela agurtu maitasunez.



Marioren, Ibanen eta Maribiren partetik, besarkada magikoak zuretzako, bihotza sendatzeko balio duten horietakoak. Guk baditugu gordena zuretzako, gure beharra ducenerako.


**Mario, Iban eta Maribi**

---

Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA  
Moyua ONATI • Tel.: 943 71 66 37

**OROIGARRIA**

## Felipe Setien Ortuzar



2023ko martxoaren 25ean hil zen, 73 urte zituela.

---

*Zurekin oroitzu etorriko zaigu irria eskerrik asko Felipe gugan utzi baituzu zure zatitxo baten argia.*

*Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi eta gure ondoan izan zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.*

---

Bergaran, 2023ko martxoaren 31n.

**OROIGARRIA**

## Esperanza Lizarralde Gallastegi



Nerea Artola lankidearen ama  
2023ko martxoaren 29an hil zen, 84 urte zituela.

---

Bat egiten dugu senideen saminarekin.

goiena™

---


Goiena Komunikazio Taldea.  
Arrasaten, 2023ko martxoaren 31n.

## GUARDIAKO FARMAZIAK


- ARRASATE EGUNEZ**
- Egubakoitza, 31 RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
- Zapatua, 1 ETXEBERRIA: Zarugalde 38 / 943 77 16 30
- Domeka, 2 AZKOAGA-AZKOAGA: Ferrerías kalea 1 / 943 79 15 15
- Astelehena, 3 JUNCAY: Kontzeziño 12 / 943 79 79 99
- Martitzena, 4 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26
- Eguaztena, 5 IRIZAR: Erguin 11 / 943 79 12 39
- Eguena, 6 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
- 
- BERGARA EGUNEZ**
- Egubakoitza, 31 OIARBIDE: San Antonio 3 / 943 76 11 05
- Zapatua, 1 ESTELLA: Matxiategi kalea 5 / 943 76 19 63
- Domeka, 2 ESTELLA: Matxiategi kalea 5 / 943 76 19 63
- Astelehena, 3 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
- Martitzena, 4 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74
- Eguaztena, 5 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
- Eguena, 6 OIARBIDE: San Antonio 3 / 943 76 11 05
- 
- OÑATI EGUNEZ BAKARRIK**
- Egubakoitza, 31 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
- Zapatua, 1 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
- Domeka, 2 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
- Astelehena, 3 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
- Martitzena, 4 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
- Eguaztena, 5 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
- Eguena, 6 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
- 
- ARRASATE GAUEZ EGUNERO**  
(22:00etatik 09:00etara)
- 2023 osoan: JUNCAY: Kontzeziño 12 / 943 79 79 99
- 
- BERGARA GAUEZ EGUNERO**  
(22:00etatik 09:00etara)
- 2023 osoan: MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:  
COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

**ESKER ONA**



## Maribi Gomez Pagalday



2023ko martxoaren 25ean hil zen, 74 urte zituela.


---

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.


---

Aretxabaletan, 2023ko martxoaren 31n.

**ESKER ONA**



## Esperanza Lizarralde Gallastegi



Candido Artolaren alarguna  
2023ko martxoaren 29an hil zen, 84 urte zituela.

---

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.

---

Arrasaten, 2023ko martxoaren 31n.

**ESKER ONA**

## Juan Mari Leturia Arrue



2023ko martxoaren 21ean hil zen, 85 urte zituela.


---

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.


---

Bergaran, 2023ko martxoaren 31n.

**ESKER ONA**



## Jabier Arregui Liziaga



Juana Egurenen alarguna  
2023ko martxoaren 29an hil zen, 97 urte zituela.

---

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

---

Etxekoak.  
Arrasaten, 2023ko martxoaren 31n

## ASTEAGOIENA TELEBISTAN

**ANDONI CALBANO  
ATLETA BERGARARRA  
EZAGUTZEN**

Abiadura-lasterkaria da, eta Espainiako Txapelketan brontzezko domina irabazi zuen 200 metroko proban, 21.09ko denborarekin.

*'Luzapena'* Gaur, 18:00, 20:00 eta 22:00

**TOC TALDEAREN EMANALDIA**


Mungiako laukoteak Kooltur Ostegunetan otsailean egindako zuzeneko osorik ikusteko aukera.

*'Kooltur Ostegunak'* Egubakoitza, 21:00 eta 23:00

**BERGARAKO OSOKO BILKURA**

Martxokoak emandakoa ikusteko aukera. Erregularizazioa eta "zaintzen krisia" izan ziren landutako gaietako bi.

*'Bereziak'* Zapatua, 12:00 eta 20:30, eta domeka, 10:00 eta 23:00

**ARRASATE-UDALATZ LASTERKETAREN LABURPENA**

Domekan jokatu den zarpigarrenaren irudiak eta protagonisten adierazpenak jasoko dituzte *Harmailatik* saioan.

*'Harmailatik'* Astelehena, 21:30 eta 23:30

**IMMIGRAZIOA AZTERGAI**

Saretzen egitasmoaren baitan. Besteak beste, Gu Haziak Gara taldeko sortzaile Paloma Martinez elkarriketatuko dute.

*'Hemen Debagoiena'* Eguaztena, 18:00, 20:00 eta 22:00



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:  
[goiena.eus/telebista](http://goiena.eus/telebista)  
Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / [kultura@goiena.eus](mailto:kultura@goiena.eus)

**EGUBAKOITZA 31**

**ELGETA 'Ipuinen ordu' berezia**  
Haur Liburuaren Egunaren harira, saio bikoitza: 17:30ean eta 18:30ean.  
*Liburutegian.*

**ELGETA Sormen erakustaldia**  
*Urdina* antzezlanaren erakustaldia egingo du Nerea Atxa sortzaileak.  
*Espaloian, 18:30ean.*

**OÑATI Pake Lekuren urteko batzarra**  
2022ko balantzea eta aurrera begirakoak landuko dituzte.  
*Pake Lekun, 18:30ean.*

**LEINTZ GATZAGA 'Munduko hizkuntzen basoak' proiektuaren aurkezpena**  
Jon Sarasuak egingo du.  
*Kultura etxean, 18:30ean.*

**ARRASATE Dantzaldia**  
Portaloi Kultura Elkartearen eskutik. Dantza zale guztiendako.  
*Kulturoloan, 18:30ean.*

**BERGARA Behi Bi Blues taldea**  
Gaizka Azkarate eta Azkaiter Pelox zuzenean.  
*Irala kalean, 20:00etan.*

**BERGARA Bertso saioa**  
Erramu-zapatu bezperako saioa. Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Alaia Martin, Aitor Sarriegi eta Nerea Elustondo oholtzan.  
*Seminarixoan, 22:00etan.*

**ARRASATE Eguzkierripa Rock jaialdiari laguntzeko**  
Denso Productions, Truman eta Olatz Ugarte, Sinkeen, Urbe eta Chuleria Joder taldeak. Sarrerak, bost euro.  
*Gaztetxean, 22:30ean.*

**ZAPATUA 1**

**ARAMAIO 'Babestu maite duzun mendia' mendi martxa**  
Araba Bizirik plataformak deituta, hamabi kilometroko martxa, Durakogain- Asensiomendi-Danborralde ibilbidearekin.  
*Frontoian, 09:00etan.*

**BERGARA Erramu-zapatua**  
Askotariko ekintzak egun osoan zehar. Egitaraua osorik 31. orrialdean.  
*Bergaran.*

**OÑATI Areto-bizikleta maratokia**  
40 minutuko lau saio egingo dituzte.  
*Zubikoan, 10:00etan.*

**OÑATI Debagoieneko Dantzari Eguna**  
Arrasateko, Aretxabaletako, Antzuolako eta Oñatiko dantzariek. Ekitaldi nagusia, 12:00etan, Foruen plazan.  
*Oñatiko kaleetan, 11:30ean.*

**ARRASATE Ludoteka ibiltaria**  
3 eta 12 urte artekoendako. Ordutegia: 11:30-13:30.  
*San Andresko gazte txokoan.*

**ARAMAIO 'Tabuen kutxatik oholtzara' ikuskizuna**  
Alaia Martin, Ane Labaka, Uxue Alberti eta Miren Amuriza bertsolariek eta Oihana Rodriguez eta Gari Otamendi musikariek. Sarrerak, bost euro.  
*Kultura etxean, 18:00etan.*

**ARRASATE Masaje tailerra**  
Gaztetxoendako.  
*Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.*

**OÑATI Ramada Inn eta Harria taldeak**  
Sarrerak, zortzi eurotan, Txokolatexan eta udal webgunean.  
*Gaztelekuan, 19:00etan.*

**BERGARA Dantzaldi-erromeri ibiltaria**  
*Kantan ta dantzan* delakoa.  
*San Martin plazan hasita, 19:00etan.*

**BERGARA Xiberoots taldea**  
Reggae doinuak nagusi.  
*Munibe plazan, 22:00etan.*

**DOMEKA 2**

**ELGETA Lubakietara bisita**  
Izena emateko: 943-79 64 63 edo [turismo@debagoiena.eus](mailto:turismo@debagoiena.eus).  
*Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroan, 10:00etan.*

**ARETXABALETA 'Iurbeltz' antzezlan**  
Ameztu taldearen eskutik, adin guztientzako aniztasun istorioa. Jolasaren, umorearen eta errespetuaren bidez, kolore eta ideia guztiek lekua dutela ohartaraziko dute.  
*Arkupen, 17:00etan.*

**ESKORIATZA Zinema emanaldia**  
Gaztetxoendako. Sarrerak, bi euro.  
*Zaldibarren, 17:00etan.*

**OÑATI Willis Drummond (sarrerak agortuta)**  
*Gure tokiak tour II* biraren baitan geldialdia egingo dute.  
*Gaztetxean, 19:00etan.*

**ARRASATE Herri kirolak**  
Gaztetxoendako.  
*Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.*

**ASTELEHENA 3**

**OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea**  
Pentsio duinak eskatzeko.  
*Foruen plazan, 12:00etan.*

**ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea**  
Pentsio duinak eskatzeko.  
*Herriko Plazan, 12:00etan.*

**BERGARA Pentsiodunen elkarretaratzea**  
Pentsio duinak eskatzeko.  
*San Martin plazan, 12:00etan.*

**ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea**  
Pentsio duinak eskatzeko.  
*Herriko Plazan, 12:00etan.*

**MARTITZENA 4**

**ESKORIATZA Ekintzak gaztelekuan**  
Tortilla lehiaketa, bazkaria eta kontzertua.  
*Gaztelekuan, 12:00etan.*

**BERGARA 'Ezkutatu diguten historia' erakusketa**  
Hilaren 9ra arte.  
*Aroztegin, 18:00etan.*

## EGUAZTENA 5

**OÑATI Arantzazuko parketxean bisita gidatuak**  
Erreserbak egiteko: 943-78 28 94.  
Parketxean, 10:00etan.

**LEINTZ GATZAGA Bisita gidatua Gatz Museoan**  
12:00etan euskaraz eta 13:00etan gaztelaz. Izena emateko: [reservas@gatzmuseoa.com](mailto:reservas@gatzmuseoa.com) edo 943-71 47 92.  
Gatz museoan.

**OÑATI 'Oñati, txokolatearen herria' bisita gidatua**  
Izena emateko: [txokolateixia@hotmail.com](mailto:txokolateixia@hotmail.com) edo 605 76 35 95.  
Txokolateixian, 17:00etan.

**BERGARA Eguaztenetako azoka**  
Herriko baserritarren garaiko produktuak erosteko aukera.  
Oxirondon, 18:00etan.

## EGUENA 6

**OÑATI Arantzazuko parketxean bisita gidatuak**  
Erreserbak egiteko: 943-78 28 94.  
Parketxean, 10:00etan.

**OÑATI Arantzazuko santutegira bisita**  
10:30ean eta 15:30ean euskaraz eta 12:30ean eta 17:00etan gaztelaz. Izena emateko: 943-79 64 63.  
Arantzazuko Turismo Bulegoan.

**ELGETA Intxortara bisita gidatua**  
Gaur, ele bitan. Izena emateko: [infoturismo@debagoiena.eus](mailto:infoturismo@debagoiena.eus) edo 943-79 64 63.  
Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroan, 10:30ean.

**OÑATI Espeleotxiki abentura**  
Gaur, euskaraz. Izena emateko: [arrikruz@onati.eus](mailto:arrikruz@onati.eus) edo 943-08 20 00.  
Arrikruzten, 10:30ean.

**ARRASATE 'Arrasate, hiribildu bizia' bisita gidatua**  
Izena emateko: [Arrasate.eus](mailto:Arrasate.eus) edo 943-25 05 05.  
Herriko Plazan, 11:00etan.



AMEZTU

**ARETXABALETA 'Ipurbeltz' antzezlana**  
Ameztu taldearen eskutik, adin guztientzako aniztasun istorioa. Jolasaren, umorearen eta errespetuaren bidez, kolore eta ideia guztiek lekua dutela ohartaraziko dute.  
Etzi, domeka, Arkupen, 17:00etan.

**LEINTZ GATZAGA Bisita gidatua Gatz Museoan**  
12:00etan euskaraz eta 13:00etan gaztelaz. Izena emateko: [reservas@gatzmuseoa.com](mailto:reservas@gatzmuseoa.com) edo 943-71 47 92.  
Gatz museoan.

**OÑATI 'Oñati, txokolatearen herria' bisita gidatua**  
Bisitak egingo dira 10:00etan, 12:00etan eta 17:00etan. Izena emateko: [txokolateixia@hotmail.com](mailto:txokolateixia@hotmail.com) edo 605 76 35 95.  
Txokolateixian.

**OÑATI 'Oñatiko altxorrak' bisita gidatua**  
Izena emateko: [turismo@onati.eus](mailto:turismo@onati.eus) edo 943-78 34 53.  
Turismo Bulegoan, 13:00etan.

## EGUBAKOITZA 7

**OÑATI Arantzazuko parketxean bisita gidatuak**  
Erreserbak egiteko deitu 943-78 28 94 telefono zenbakira.  
Parketxean, 10:00etan.

**OÑATI Arantzazuko santutegira bisita**  
10:30ean eta 15:30ean euskaraz eta 12:30ean eta 17:00etan gaztelaz. Izena emateko: 943-79 64 63.  
Arantzazun.

**ARRASATE 'Arrasate, hiribildu bizia' bisita gidatua**  
Izena emateko: [Arrasate.eus](mailto:Arrasate.eus) edo 943-25 05 05.  
Herriko Plazan, 11:00etan.

**ELGETA Intxortara bisita gidatua**  
Gaur, ele bitan. Izena emateko: [infoturismo@debagoiena.eus](mailto:infoturismo@debagoiena.eus) edo 943-79 64 63.  
Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroan, 11:00etan.

**LEINTZ GATZAGA Bisita gidatua Gatz Museoan**  
12:00etan euskaraz eta 13:00etan gaztelaz. Izena emateko: 943-71 47 92 edo [reservas@gatzmuseoa.com](mailto:reservas@gatzmuseoa.com).  
Gatz Museoan.

**OÑATI 'Oñati, txokolatearen herria' bisita gidatua**  
Bisitak egingo dira 10:00etan, 12:00etan eta 17:00etan. Izena emateko: [txokolateixia@hotmail.com](mailto:txokolateixia@hotmail.com) edo 605 76 35 95.  
Txokolateixian.

**OÑATI Sancti Spiritus unibertsitatean bisita gidatua**  
Izena emateko: [turismo@onati.eus](mailto:turismo@onati.eus) edo 943-78 34 53.  
Turismo Bulegoan, 13:00etan.

## ZAPATUA 8

**OÑATI Arantzazuko santutegira bisita**  
10:30ean eta 15:30ean euskaraz eta 12:30ean eta 17:00etan gaztelaz. Izena emateko: 943-79 64 63.  
Arantzazun.

**OÑATI Arantzazura bisita umeekin**  
Izena emateko: 943-79 64 63.  
Arantzazun, 11:00etan.

## ZINEMA

## ARRASATE

## AMAIA ANTZOKIA

**Todos a la vez en todas partes**  
Zapatua eta astelehena: 19:30.

**Lau ahizpa magikoak**  
Zapatua: 17:00.

## BERGARA

## SEMINARIXOA

**Los Fabelman**  
Domeka eta astelehena: 19:30.

**Violeta, el hada traviesa**  
Domeka: 17:00.

## OÑATI

## KULTURA ETXEA

**Todos a la vez y en todas partes**  
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.  
Domeka: 19:30, 22:00.  
Astelehena: 19:30.

**Lau ahizpa magikoak**  
Zapatua eta domeka: 17:00.

## GASTEIZ

## FLORIDA

**Air**  
Martitzena: 20:30.

**Cronica de un amor efimero**  
Egubakoitzetik domekara: 20:00, 22:00.  
Astelehena eta martitzena: 20:00.

**Honor entre ladrones**  
Egubakoitza: 17:00, 19:00, 21:45.  
Zapatua eta domeka: 11:30, 17:00, 19:00, 21:45.  
Astelehena eta martitzena: 17:30.

**El castigo**  
Egubakoitzetik domekara: 19:30, 21:30.  
Astelehena eta martitzena: 19:45.

**El hotel de los lios**  
Egubakoitza: 17:00, 19:00.  
Zapatua eta domeka: 12:00, 17:00, 19:00.  
Astelehena eta martitzena: 17:00.

**El imperio de la luz**  
Egubakoitzetik domekara: 19:00, 21:30.  
Astelehena eta martitzena: 19:30.

**Irati (euskaraz)**  
Egubakoitza: 19:00, 21:30.  
Zapatua eta domeka: 11:30, 19:00, 21:30.  
Astelehena: 20:00.  
Martitzena: 17:00.

**John Wick 4**  
Egubakoitzetik domekara: 21:00.  
Astelehena eta martitzena: 19:00.

**Loli tormenta**  
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 19:45.  
Astelehena: 17:30, 20:00.  
Martitzena: 17:30.

**Mari(dos)**  
Egubakoitza: 19:15, 21:30.  
Zapatua eta domeka: 11:30, 19:15, 21:30.  
Astelehena eta martitzena: 19:30.

**Matria**  
Egubakoitzetik domekara: 17:00.  
Astelehena eta martitzena: 17:15.

**Momias**  
Egubakoitza: 17:00.  
Zapatua eta domeka: 11:45, 17:00.  
Astelehena eta martitzena: 17:30.

**La furia de los Dioses**  
Egubakoitza: 17:30.  
Zapatua eta domeka: 11:30, 17:30.  
Astelehena eta martitzena: 17:15.

**Un paseo con Madeleine**  
Egubakoitzetik domekara: 17:15.  
Astelehena: 17:00.  
Martitzena: 17:30.

**Una bonita mañana**  
Egubakoitzetik domekara: 21:30.  
Martitzena: 19:45.

**Violeta, el hada traviesa**  
Zapatua eta domeka: 12:00.

**Oink oink**  
Egubakoitza: 17:15.  
Zapatua eta domeka: 12:00, 17:15.  
Astelehena: 17:30.

## KRITIKA

## Matria

Zuz.: Alvaro Gago. Herr.: Espainia (2023). Aktoreak: Maria Vazquez, Santi Prego, Susana Sampedron. Iraupena: 99 minutu. ★★★★★

## Arnasa falta

## ANTONIO ZABALA

Ramona izeneko pertsonaiaren istorioa kontatzen zaigu. 40 urte inguruko emakumea da. Haren bizitza nolako den jakingo dugu, kamerak beti gertutik jarraitzen duelako. Haren bizitza ez da batera erraza. Lan egoera oso latza da, eta lan bat baino gehiago behar du bizirauteko. Bikotekideak ez du aintzat hartzen eta esplotatu egiten du, eta alabarekin dituen harremanak gatazkatsua dira, amak alaba gidatu nahi duelako, amak berak izandakoa baino etorkizun hobea izan dezan. Erretzailea da eta arnasa hartzeko inhalagailuaren laguntza behar du. Egoera fisiko hori egoera psikologikoaren metafora izan daiteke. Ramonari bizitzan arnasa falta zaio. Egun osoa, etengabe, alde batetik

bestera, ia atsedenen hartzeko aukerarik gabe. Zuzendariak asko mugitzen du kamera, pertsonaiaren etengabeko mugimendua jarraitzeko, eta plano hurbil eta itxi asko erabiltzen ditu, Ramonak bizi duen egoera itogarria adierazteko. Emakume borrokalaria da, burugogorra, besteekin eskuzabala eta, batzuetan, zakarra.

Maria Vazquezek egiten duen lana zoragarria da. Halako pertsonaia bat interpretatzerakoan aktoreak neurrigabekeriaren erortzeko arriskua izan dezake, baina Maria Vazquezek intentsitate eta sinesgarritasun handia ematen dio pertsonaia; hain zuzen ere, barrutik irteten den indarra kanporatzen du.

AZKEN BERBA



IZAR ODRIOZOLA

## 'Angelus Novus'

Paul Klee artistak margotutako koadroa da *Angelus Novus*. Walter Benjamin filosofoak eskuratu zuen gero, baita harekin alegoria bat sortu ere. Historiaren *progresu* edo aurrerabidearen ideia kritikatu nahi zuen. Hegoak zabalik dituen aingerua ageri da koadroan, eta, Benjaminen hitzetan, iraganeko hondamendiei begira dago. Aingeruaren desira iraganean puskatutakoa berriz konpontzea da, baina *aurrerapen deituriko urakanak bultzatzen du etorkizunera*.

Batzuetan ahaztu egiten zaigu *aurrerapena* eta *ona* ez direla, nahitaez, sinonimoak. XX. mendean bazegoen etorkizuna utopiarekin lotzeko ohitura, baina, egun, distopia-zaleagoak gara. Are gehiago, distopia apokaliptikoan bizi garela esatera ausartuko nintzateke. Pelikula gehiegi ikusi ditugu eta apokalipsia zonbiekin erlaziona dezakegu, baina distopiak gaurko errealitatearen antz handiagoa dauka.

*Angelus Novus*-i gertatu bezala, gu ere urakan formako haizeteek bultzatzen gaituzte etorkizunera. Hala ere, orain arteko tonu apokaliptikoa leundu nahian, garaiz ote gabiltza urakan-haizeen intentsitatea baretu eta nahi dugun lekurantz hegan egiteko?

BUKATZEKO



Sonia Sanchez eta Aitor Bergara, Arrasateko Ekocenterrean. MIKEL ZUMALDE

# Bogan da bigarren eskuko produktuen salmenta

Emausen %22 igo da bigarren eskuko jantzien eta produktuen salmenta 2019tik 2022ra; hori horrela, ekonomia zirkularrean eraginkorrak izaten jarraitzeko, egoera onean dauden arropak uzten dituztenek %10eko deskontu-bonua jasoko dute

**Mireia Bikuña Madrid** ARRASATE  
Bigarren eskuko merkaturak goraka doa. Kontsumo-eredua aldatzen ari da, produktu berrien prezioaren igoeraren eta erosketen iraunkorraren aldeko apustuaren ondorioz, besteak beste. Zelaunaldiko gazteek bigarren eskuko artikuluak erabiltzen hasi izanak eragina izan du iogera horretan. Aurreiritziak

alde batera utzita, berrerabiltzen hasi dira.

Ondorio hori Gipuzkoan ere nabaritzen da. Ekonomia zirkularra eta bigarren eskuko salmenta sustatzen duen Emausek 157.840 jantzi saldu zituen iaz; hau da, 2019an baino %22 gehiago. Igoera hori Emausek Arrasaten duen dendara ere estrapolatzen da. "Guk ere nabaritu

dugu. Bezero fidelak ditugu, astero etortzen diren horietakoak. Arropaz harago, baditugu beste produktu batzuk, baina jantziak asko saltzen dira. Gurean eragin handia izan zuten dendan egindako eraberritze-lanek. Orain, denda itxura dauka lokalak", dio Arrasateko Ekocenterreko dendako arduradun Sonia Sanchezek.

## '+10' kanpaina

Ekonomia zirkularrean eraginkorrak izaten jarraitzeko bidean eta berrerabilpena bultzatzeko, udaberri eta uda sasoirako armairu-aldaketa garaian *+10* kanpaina ipini du martxan Emausek: udaberriko eta udako arropak egoera onean ematen duten guztiek %10eko bonua jasoko dute, hurrengo erosketan batean gastatzeko.

Berrerabilpenaren bidean sendo jarraitzeko, 2023an bi salmenta-gune berezi berri irekiko dituzte: Hermanin bata eta Errenterian bestea. Era berean, Irungo Ekocenterrean arropa pisura erosi ahal izango da aurrerantzean: kiloa 16,95 eurotan.

## Arrasatekoan, etxetresnak

Bigarren eskuko salmenten igoeran zeresan handi dute jantziek, baina etxetresna elektrikoak ere asko eskatzen dira. Hain zuzen ere, hori da beste ekocenter batzuekin alderatuta Arrasatekoak duen eskaintza: bigarren eskuko garbigailuak, hozkailuak, lehorgailuak... eros daitezke. "Etxetresna elektrikoaren berrerabilpen osoa egiten dugu hemen. Hainbat pauso jarraituz, marka handietako etxetresnak berriak izango balira bezala uzten ditugu. Halako produktuak manipulatzea ahal izateko ziurtagiria daukagu Arrasaten. Azken finean, produktu arriskutsuak dira. Bi pertsona arduratzen dira lan hori egiteaz", azpimarratu du Arrasateko Ekocenterreko arduradun Aitor Bergarak.

Bidekurtzeta kalean dagoen dendak astelehenean zapatuta zabalitzen ditu ateak, ordutegi jarraituarekin: 10:00etatik 20:00etara, etenaldi barik.

GOIENA  
TELEBISTA  
SASOI  
BERRIA

## ARRASATE-UDALATX MENDI LASTERKETA

ZUZENEAN 'GOIENA.EUS' ATARIAN  
APIRILAREN 2AN, DOMEKAN, 11:00ETAN

'HARMAILATIK' SAIO BEREZIA  
APIRILAREN 3AN, ASTELEHENEAN,  
21:30EAN ETA 23:30EAN



DESKARGATU  
GOIENA  
APLIKAZIOA

**goiena**  
Zu hemen zaude.

